Asimismo se entregarán por quien los posea los libros y objetos de toda índole de la finada escuela vasca; la documentación, objetos, insignias y fondo de las sociedades nacionalistas y, en una palabra, todo lo perteneciente a esas sociedades o con ellas relacionadas.

En ciertas regiones de las provincias vascongadas y en nuestra querida Navarra se usan el chistu y los correspondientes instrumentos para sus bailes. En las Vascongadas muy bien que sigan con sus patriarciales costumbres; en Estella eso es planta exótica desconocida e importada por los que todos sabemos. Se

acabó el «gora euzkadi», estamos en tiempos de VIVA ESPAÑA, por consiguiente, quien los posea entregará todos esos instrumentos en el mismo plazo.

Asimismo, se prohíbe la palabra «Agur», importada por los separatistas en lugar del «Adiós», genuinamente español. Con lo dicho y para quien quiera entender quede de sobra explicado el motivo de la publicación de este Bando y lo que con ello se persigue.

Pasadas las cuarenta y ocho horas de plazo y si esta Autoridad sospechara que las cosas que se pide se entregue, no han sido entregadas por alguna persona o Entidad, se harán registros domiciliarios, aplicando a los contraventores la pena que haya lugar. ¡VIVA NAVARRA! ¡VIVA ESPAÑA! (Estella, 25 de setiembre de 1936).

Suak itzali ziren. Beharko. Bainaz zentsura (militarra eta zibila, D. Ridruejoren hitzetan) ez. Zentsura, kontrol ideologiko bezala, benetan Damoklesen ezpata izan da, adierazpide askatasunaren gain.

Bi konsiderazio mota egin daitezke zentsuraren alorrean: bata, erizpideei berei buruzkoa; eta bigarrena, zentsuratzalearen jokamoldeari buruzkoa.

Zeintzu har genitzake frankismoaren zentsuraren erizpide nagusi bezala? L. M. Abellan-ekin zazpi hauek aipatuko ditugu³³:

- 1) Erromako indizearen erizpideak, implizituki zein espreski.
- 2) Erregimenaren ideologiaren zein praktikaren kritika.
- 3) Moraltasun publikoa.
- 4) Historiografia nazionalistaren presupostuen aurkakoa.
- 5) Ordena zibilaren kritika.
- 6) Ideología ez-autoritario edo marxisten apologia.
- 7) Oro har, erregimenaren aurkako autorearen edozein obra-en debekua.

Kriterio hauek luzaro iraun dute zirkunik egin gabe, gogor. 1965ean bertan Donostiako Informazio-Delegatuak, José Ramón Aparicio-k JAKINen Zuzendariari ematen zion erizpide nagusiak kolore bera du:

«El criterio es claro: Se puede publicar todo lo que no atente a los principios fundamentales del Estado español, incluidos entre éstos, claro está, el Dogma, la moral y las buenas costumbres. Con un carácter más amplio tampoco me parece pro-

cedente publicar nada que pueda hacer el juego a los enemigos de esos principios fundamentales»³⁴.

Kriterio hauek aplikatzeko orduan —hona bigarren kontside-razioa—, ez dago uniformitaterik, berdintasunik batetik bestera. Sarri «irakurle» ofizialaren, zentsuratzalearen esku zegoen era-bakia. Bainaz gertatzen da? Beldurra, segurtasunik eza. Vicente Gaos poetak egoki adierazten duena: «La aplicación de los criterios de censura depende del 'capricho español' de los censores y el miedo de éstos de ser, a su vez, censurados por sus superiores, si han tenido mano blanda o han errado. Es lo del alguacil alguacilado. De modo que los censores son al mismo tiempo, verdugos y víctimas».

Beldur horren eragina gurean beste inon baino areagoa izan da. Ezaguna da, euskal liburua, Donostiako eta Bilboko Delegazioetan baino aiseago onartzen zutela Madrileko etxe nagusian.

b) Euskal liburuaren desgiroa

Zertan da euskal liburua giro honetan?

Liburu zaharrak erreta edo izkutatuta, eta berririk ez. Euskal liburua, euskal idazlearekin batean, katakunbetara (klandestinitate-ra) edota diasporara (desterrura) aldatzen da.

Giro honen berri egokiro ematen digu M. Ugaldeki bi pasarte hauetan³⁵:

«El antieuskerismo y el antivasquismo se muestra vengativo, se fusila a los hombres por sólo haber cultivado la lengua o militado en organizaciones culturales vascas; y, por otro, se pierden muchos escritores en flor, bien sea por miedo, porque hasta tener libros escritos en euskara era peligroso, y publicarlos era impensable, o porque, como ocurrió en muchos casos, el escritor se había exiliado». (233. or.).

(...)

...persecución lingüística y de ahogo en que tiene en esta época a todo aquello que se aproxime a la lengua vasca, aun en la forma inocente de un diccionario». (241. or.).

Inozentzia gabeko jazarpen-aldi hau luzea izan da oso. 1950 aldeira irekidura gisako aldakuntzaz mintza bagaitezke ere, euskal liburuaren alorrean, hori bera ere zeharbidez gertatu da. Esan nahi baita, Hegaoaldean gerraostean 1949-1950. urteetan argitaratutako

lehen liburu-sorta (batipat S. Mitxelenaren *Arantzazu, euskal poema*) horren baimena ez zela bide arruntetik lortu. Liburu hori, eta berdin Bera-Mendizabalen *Euskal-erdel Iztegia* eta Muxikaren *Pernando Amezketarra* Pedro Rocamora-ren influentziaz lortu ziren. Rocamora Francoren Gobernuko «Información y Turismo»ko Zendari Orokorra zen, eta Zarautzen igarotzen zituen oporraldiak. Uda batez, honekin elkarritzetatu ziren Jose Artetxe eta Patxi Unzurrunzaga, baimen eske. Gerora, 1966an, Salbatore Mitxelenaren heriotzakoan, honela gogoratzan zion Lisboako Enbaxada espainoletik Rocamorak berak Jose Artetxeri solasaldi hura:

«La evocación de esta entrevista que tuvimos con Icharopena en mi casa de Zarauz, me confirma lo generoso de su afecto, al que yo quiero corresponder manifestándole, en estos momentos, mi más profunda gratitud. Ciertamente que eran aquellos tiempos más difíciles que los actuales. Pero le aseguro que fue para mí una inmensa satisfacción romper aquellas trabas y mitigar aquel rigor con que el pueblo vasco veía limitada la proyección literaria de sus creaciones vernáculas». (Lisboa, 1966-1-19).

Amaitzeko, esan dezagun zentsura honek liburu prozesuaren partaideak oro jo dituela gogor: egilea, argitaletxea, banatzailea, irakurlea, denak salbuespenik gabe.

Autorea, autozentsurak iraindu du. Kalera atera orduko gorriak ikusi ditu. Superbizitzeko, bi bide asmatu behar izan ditu: kode semantiko bat asmatu, eta ezizenez publikatu.

Editoreak ezin izan du kalera irten. Kasurik onenean ere, zentsuratzale «malgré lui» gertatu da editorea (eta Fragaren legearen ondoren gehiago).

Liburua banatzeak eta irakurtzeak berak lanak dituzte. Arriskuak. Liburu asko, izan ere, klandestinoki sartu, zabaldu eta irakurri beharrekoa zen.

Egoera kafkiano hau giroa ez baino desgiroa deitzen du Jon Etxaidek. Eta honela deskribatzen du³⁸:

«Nik, giroa baino desgiroa esango nioke hobeto guk euskal lanari ekin genion denbora tristeari. Euskal giroa formatu beharra zegoen alde guztietan aurkitzen genituen eragozpenak urratuz. Legeak ate guztiak isten zizkigun. Euskaraz idatzitako libururik ez zen posible izan argitaratzea 1950garren urteraino. Urte hone-

tan atera ahal izan ziren Orixeren «Euskaldunak» eta nere «Alos-torrea», gure Joxe Artetxe zenak Rocamora —aldi hartan Información y Turismoko buruzagi oker ez baldin banaiz— jaunarekin egin zituen ahaleginei esker. Aurretik, euskarari buruz gaztelaniaz idatzitako zer edo zer utzi zuten argitaratzen. Uste dut lehenbizikoa nere aitaren «Desarrollo de las Conjugaciones euskaras» izan zela 1944garren urtean. Urrengo urtean, 1945ean, 'Boletín de Amigos del País' argitaratzeko baimena lortu zen. Baina aldizkari hau ere gaztelaniaz ateratzen zen. Hiru urte ge-roago, 1948an, 'Boletín de Amigos del País'ek, literatur osagarrri bezala 'Egan' aldizkaria atera zuen, baina baldintzan izan zen euskaraz eta gaztelaniaz erdizka ateratzea. Urteak pasata, 'Egan'-ek —euskararenganako gorrotoa baretu zenean— baldintza jan egin zuen eta euskaraz bakarrik ateratzen hasi zen. Neure 'Purra! Purra!' ateratzeko, lehenbizikoz baimena ukatu zidaten. Bigarren saioan gaztelaniazko itzulpena eginerazi zidaten eta horrela lortu nuen baimena. 'Joanak-Joan' elaberriarekin nerebizio galbarioa pasa nuen, baimena lortzeko. Gutxienez urtebetean jardun nintzen burrukan Información y Turismo-ko jendearekin. Hemengo delegazinoak Madrili botatzen zion aitzakia eta Madrilek hemengo delegatuari. Gogoratzen naiz, azkenean, Madrilen errazago lortzen zirela baimenak hemen baino, eta legeak hemengo delegazinoaren bitartez egitea eskatzen bazuen ere, uste dut kasorik gehienetan zuzenean egiten zela, hemen baino eragozpen gutxiago aurkitzen zelako. Hontaz nik baino gehiago daki noski Zarautzko Editorial Itxaropena-ko Untzurrunzaga jaunak, 1952garren urtean 'Kulixka Sorta' ateratzen hasi baitzen euskaraz. Lehendabiziko urteak izugarri zailak izan ziren. Gogoan har 'Joanak-Joan' sail honetan atera zela 1955garren urtean eta zer lanak eman zizki-gun baimena eskuratzek. Besteak ere halatsu ibili ziren. Baina kosta hala kosta, 'Kulixka Sorta' izan zen, euskaltzaleak bildu eta beren lanak argitaratzen saiatu zen lehenbizikoa. Gainerakoan, aldi hartako euskaltzaleok Diputazinoko Bibliotekan bildu ginene Artetxe jaunaren inguruan eta berau genuen gure lanetan bero-tzen eta animatzen gintuena (...)

Ni neu ere poliziak detenitu nindun bi aldizkari horien ('Euzko Gogoa' eta 'Gernika') zabaltzailetzat eta kolaboradoretzat salatuz eta Martuteneko gartzelan aurrena eta gero Gasteizko gartzelara esposaturik eraman. Eta guztি hau euskal kulturaren alde lan egiteagatik. Frankismoak Euskalerriarekin egin duen jenozidioa, gaurko belaunaldikoak ondotxo konturatzen ez diren modukoa izan zen. Ni behintzat, askotan, etsirik egon nintzen gure Herria —herria bere hizkuntzarekin alegia, zeren hizkuntza galduz gero ezin baititeke izan gure herria— biziarekin aterako ote zen frankismoaren hatzaparretatik».

4. AMAIERA

Ondorio eta konklusiorik gabe amaitu nahi dut lan hau. Neure buruari galdera pare bat eginez. Bata: egia ote da, Martin Ugaldeko dioen bezala, katalana eta galegoa baino atakatuagoa izan dela euskara? Eta bigarrena: egia ote da, askok uste duen bezala, orain bizi dugun egoera aurrekoaren arras bestelakoa dela?

Neurez baino gehiago besteren eritziz, galdera hauei erantzuten saiatuko naiz.

4.1. Euskara, atakatuena?

Martin Ugalderen eritzia beraren lerro hauetan bil daiteke:

«O sea, que a diferencia de la literatura que se ha hecho en castellano en el exilio, un exilio que comprende sólo a la personalidad de su autor y sus ideas, la lengua vasca, *el euskara ha estado exiliado también como lengua*. No sé lo que ha ocurrido en el caso del gallego y del catalán, quizás algo parecido; pero en el caso del euskara, bastó que alguien escribiese en la lengua unos versos de amor para catalogarlo como nacionalista peligroso; algunos fueron fusilados sólo por este pecado. Esto, y lo que esto supone, es lo que no comprenden algunos todavía. Lo mismo o parecido ha podido ocurrir, digo, con el catalán y el gallego, pero con una diferencia: ocurre que por razón de sus afinidades con el castellano, como lenguas romances hermanas que son, no padecen de un corte tan radical por causa de este aislamiento de la lengua escrita y su falta de presencia en las escuelas y la Universidad, además de que, creo no equivocarme, la persecución al euskara ha sido mucho más violenta y más radical que la padecida por los romances. Esto tiene expresión, entre otros medios, en la presencia que han tenido, aunque haya sido reducida, en los cursos universitarios de las literaturas romances en Barcelona y Santiago»³⁷.

Ez dakit nik M. Ugaldeko arrazoi duenentz. Bost axola, ez bait gaude hemen martirien norgehiagoketarik sortzeko. Hori bai, M. Ugaldeko aditzera ematen duena biziki interesgarria da guretzat: hots, badela alderik erromantzeekin eta euskararekin frankismoak eraman duen jokamoldean. Artez eta zuzen ez dugu orain artean puntu hori arakatu. Lege orokorrak eta euskarari bakarrik dagozkionak, bietatik aurki daiteke aipamenetan, baina unibertsalaren eta partikularren zentzuan, eta ez behin ere euskara modu berezi eta okerrago batez tratatua dela erakusteko.

Gogorrago ala bigunago ez dakit, baina badirudi euskara modu desberdin batetan desegin nahi izan duela frankismoak. Eta gisa da. Helburua bat bera izanda ere, hizkuntza periferikoen ezabatzea, taktika, teknika zen desberdina. Ninyoles-ek³⁸, kasu honen ikerketarako bi elebitasun mota bereizten ditu: erromantzeekin izandako politikari «bilingüismo diglósico» deritzo, eta euskara-rekikoari, «bilingüismo sustitutivo».

Frankismoak gallegoa eta katalana dialektotzat jo ditu, arras desprestigiatu ditu hizkuntza bezala, eta bigarren mailako eginkizunetara baztertu ditu, solas eta famili hizkuntza soil gisa, kultur balioia ukatuz. Diglosia programatua.

Euskararekin ezin zezakeen berdin-berdin joka. Ezin, ba, euskara españolaren dialektotzat jo. Gehienez ere hau, ikusi dugunez: «reducido a funciones de dialecto por su pobreza lingüística y filológica». Euskarak lehen momentutik desagertu egin behar zuen. Hona alternatiba bakarra: asimilazioa; bi hizkuntzarentzat ez bait zegoen lekurik.

Alde honestatik begiratuta, badirudi, bai, euskararen aurkako politika bapatekoagoa izan dela, kontzesio gutxiagokoa.

4.2. Zapalkuntzatik elebitasunera?

Bigarren galdera hau honela adieraz genezake hobeki: azken urteotan egiazki egoera berrian al gaude ala lehengo egoera berberak jarraitzen du orain ere, hori bai, aldien izpirtiuak gomen-datzen dituen egokipenez?

Sarreran aipatu ditugu frankismoaren hizkuntz politikaren epe eta aroak. Aldakuntza begien bistakoa da. Edo nahiko bada: begien bistako aldakuntza bat badago behintzat. Bai, baina ez ote azalekoa? Horra hor gakoa. Eta horra konformagaitzaren betiko galdera.

Galdera bera egin nahi dut neronek ere. Eta ez, aldakuntzari, lege mailan nahiz praxi mailan, aitorzen ez dudalako. Egoeraren eboluzioa itsuenak ere badakus. Aldakuntza guztia, taktiko hutsa bezala ere ez dut epaitzen.

Eta hala ere, beldur naiz. Beldur, asimilazioaren mila aurpe-

gien berri bait dugu. Beldur, gaurko politiko espanyolen hizkuntza monopolioaren filosofia ezagututa. Beldur, azkenik, politiko abertzaleen euskararekiko ezaxola ikusita.

Deskribatu dugun zapalkuntzatik lortu dugun elebitasunera ez dagoela halako jauzi kualitatiborik pentsatzen dut inoiz. Baietz sinetsi nahi, eta zalantzak sortzen dizkit errealityeak. Ikusera pessimista honetan ez nago bakarrik, hala ere.

Autuan dugun galderari nolabait erantzunez, Ninyoles-en eta Siadecoren aipuak ekarri nahi ditut, honekin nere lana burutz, eta, denbora berean, hizkuntz bilakaeraren balantze gisako ikusera bat eskainiz:

«La ideología del bilingüismo —con la relegación de las lenguas no oficiales a una función subordinada— va a suponer la nueva táctica del asimilismo aperturista. (...)

El bilingüismo ha sido la cobertura, aparentemente neutra, de todo proceso de asimilación. (...)

El hecho de que los antiguos abogados del asimilismo hayan pasado a cultivar los amorosos tópicos del liberalismo español sobre el 'providencial' bilingüismo de los Países Catalanes, de Galicia o de Euskadi, es muy significativo. Y se entiende sin dificultad porque, a pesar del reciente descrédito político de los anteriores argumentos asimilistas, los soportes institucionales nunca han dejado de orientarse en la práctica hacia la sustitución, no hacia el 'bilingüismo'»³⁹

Eta Siadecok bere aldetik:

«...el colonialismo lingüístico ha tenido su expresión más brutal y despiadada en el imperialismo que se ha registrado en la época de la Dictadura franquista, con el objeto de erradicar definitivamente el euskara.

...el cambio de política lingüística iniciado con el postfranquismo, más que el abandono del colonialismo lingüístico, representa la adopción de nuevas formas que consoliden la hegemonía de la lengua castellana en todos los territorios del Estado, como se desprende de las medidas más recientes»⁴⁰.

J. M. T.

1. IBARZABAL, E.: *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia, 1977, 126. or.

2. Josep Benet-ek *Catalunya sota el règim franquista* (Edicions Catalanes de París, 1973) liburuaren lehen zatia publikatu du bakarrik. Lehen parte honen edukinak hau biltzen du: «Informe sobre la persecució de la llengua i la cultura de Catalunya pel règim del general Franco».

Liburu honi zor diogu lan honetan erabiltzen dugun informazio asko eta asko. Behin eta berriz aipatuko dugu. Irakurketa erraztu nahian liburu honen aipuak textu barruan egingo ditugu, oin-oharretara bidali gabe. Liburua ere ez dugu osoan aipatuko, honela baizik: *Catalunya...*

3. Arazo hau hurbilagotik ezagutu nahi duenak artikulu hau irakur dezake, benetan argigarria: «JAKINen historiurrea: abertaletasuna eta euskara» in JAKIN 21, 1981, 19-34. orr.

4. Ikus *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 1978, 385-440. orr.

5. Ikus *ibid.* 81-124. orr.

6. TABARES, J. C.: «Pensamiento» in: *La cultura española durante el franquismo*, Mensajero, Bilbo, 1977, 145-168. orr.

7. NINYOLES, R.: *Cuatro idiomas para un Estado*, Edit. Cambio 16, Madrid, 1977, 52. eta 62. orr.

8. SIADECO: «Historia de la regresión del euskara. Áreas castellanizadas» in: *Estudio Socio-lingüístico del euskara*. I bol. I tomoa, 56-58. orr.

9. *Palabras de Franco*, Editora Nacional, Bilbo, 1937, 9 orr.

10. ABELLA, R.: *La vida cotidiana durante la guerra civil. La España nacional*. Planeta, Bartzelona, 1976, 357. or.

11. *Palabras del Caudillo*, 202. or.

12. SOLDEVILLA-DURANTE, I.: «Observaciones sobre la repercusión de la guerra civil española (1936-1939) en la evolución de las lenguas de España» in: *Langues et Linguistique*, 8, 2, 1982, 136. or.

13. RIDRUEJO, D.: *Escrito en España*, Buenos Aires, 1964, 18. or.

14. RIDRUEJO, op. cit., 177-178. orr.

15. NINYOLES, op. cit., 50-51. orr.

16. Administrazio frankistak egin lana (hots, euskara bizitza publikoan eta ofizialean) jadanik xeheki emana du J. Urrutiak *Euskararen Liburu Zuria-n* (ikus 4. oin-oharra arestian). Informazio-iturri emankorra da. Bainan geure aldetik, ahal izan dugunean, J. Benet-en liburuaren bidez osatu egin nahi izan dugu, J. Urrutiak ez bait ditu aipatzten ordena horien zigorrak.

17. *Los vascos frente a la cruzada franquista*, 389. or.

18. *Ibid.*

19. ITURRALDE, J.: *La guerra de Franco, los vascos y la Iglesia*, II, Donostia, 1978, 462. or.

20. *Ibid.*, 464. or.

21. Gertakari hauek eta beste asko euskal apaizek argitaratu dituzten liburuetan aurki ditzake irakurleak. Horien artean aipa genitzake: Iturralderen *La guerra de Franco, los vascos y la Iglesia; El clero vasco frente a la cruzada franquista*; E. A. TALDEREN *En la persecución*, in *Archivos Clero Vasco I. Año 1936*, abril 1978; *Ayer como hoy. Documentos del clero vasco*. Selección y presentación por Alberto de Onaindia, Edit. Axular, Donibane Lohiztune, 1975.

22. *Euskararen Liburu Zuria*, 389. or.

23. *El Libro Blanco del Euskara*, Bilbao, 1977, 395. or.

24. Euskal Herriaz zein besteez, arazo honi buruz, informazio gehiago nahi duenak, duela hirubat urte neronek egindako lana begira dezake: TORREALDAI, J. M.: «Nazio kulturen zanpaketa: Euskadin gertatua» in *Común* 3 (1979), 85-98. orr.

25. Ikus *El Libro Blanco del Euskara*, 390-391, 402, 415. orr.

26. *Euskararen Liburu Zuria*, 319. or.

27. ITURRALDE, J.: *o. c.*, 453. or.

28. TXILLARDEGI: *Huntaz eta Hartaz, Goiztiri*, Baiona, 1965, 92-93. orr.

29. TORREALDAI, J. M.: *Euskal idazleak, gaur*, Jakin, Oñati, 1977, 52. or.

30. GUBERN, R.: *La Censura. Función política y ordenamiento jurídico bajo el franquismo (1936-1975)*. Ed. Península, Bartzelona, 1980, 30 orr.
31. *Ibid.*, 23. or.
32. ABELLA, R.: *o. c.*, 114-115 orr.
33. ABELLAN, M. L.: *Censura y creación en España (1939-1976)*. Ed. Península, Bartzelona, 1980, 112. or.
34. Ikus JAKIN 21, 1981, 275. or.
35. UGALDE, M.: «El exilio en la literatura vasca: Problemas y consecuencias», in: *El exilio español de 1939*, Taurus, Madrid, 1978, Tomo VI.
36. «Yon Etxaide: garai ilunetan idazle», in *Zeruko Argia*, 827, 1979, 21-22. orr.
37. UGALDE, M.: *o. c.*, 248. or.
38. NINYOLES, R.: *o. c.*, 53-58. orr.
39. *Ibid.*, 52-53. orr.
40. SIADECO: *o. c.*, 65. or.

ORAIN ETA HEMEN

GAIAK

LIBURUAK

KULTUR BIDEETAN

GUTUNAK



ORAIN eta HEMEN

Charles Darwin-en mendeurrenaren: 1882-1982

Charles Darwin (1809-1882) hil zela ehun urte direnean, ez da txarto egongo atzerantz begiratu bat botatzea, geroztikako zientzian hain eragin handia izan duen gizonaren nortasuna eta ekarpena gogoratzeko.

Ehiztari porrokatua, zomorro-bildumaria, ikasle eskas eta parrandista xamarra genuen Darwin gaztea, aitaren esanez, familiara lotsa ekarriko zuena. Izen ere, irakurle fina zen arren, erdipurdiaka bukatu zituen Teologi ikasketak, Medikuntza ikasten bi urtez aritu eta gero. Bere autobiografian Darwin-ek berak dioskunez, sasoι hartan kualitate bi besterik ez zeukan etorkizunari begira, hots, zaletasun gotor franko zituela, eta laket zitzaiola arazo- eta kontu konplexuak ebaztea.

Bere bizitza bideratu zuen abagadunea 1831. urtean suertatu zitzaion, munduari itzulia emateko Beagle belantzian naturalista legez izena eman zuenean. Bost urte iraun zuen, zenbait egiaztapen eta neurketa zientifiko burutzekoa zen itsasaldiak. Bidaian zehar, era askotako behaketak egin zituen, datu-kopuru itzela erdietsirik. Halaber, Darwin-en adimenak metamorfosi-prozesu ohartezina jasan zuen bosturte hartan.

Hasieran, Brasil-go oihan tropikal naharoaren kontenplazioak txunditu egin zuen 23 urtetako Darwin; egia esan, ez dezaguzu orduko Charles lar razionalistatzat jo, debozioz beterik so egiten bait zion ingurune jori hari. Hau da, XIX. mendean Naturaren gainean nagusi ziren ideiak, tente zeuden artean haren gogoan. Hala ere, Patagonia aldeko eta Galapagos irletako ikuskizunek aldatu egin zuten bertaren pentsamoldea, espezieen Eboluzioari buruzko lehen susmoak idaroki zizkioten eta.

Periplua amaitu eta gero, London inguruetako landetxe batetan iragan zuen nasaiki bere bizitza osoa, liburuak eta seme-alabak sortzen zituelarik. Giro lasai honetan, argibideen bila arakatu zuen, metodikoki eta urtetan zehar, ekarritako datu-piloa. Dena den, datuen arteko zerikusia bilatzean ez zen noraezean ibili: Eboluzioaren ideia ipartzat hartu bide zuen.

Gainera, harremanetan zegoen garai hartako geologo, zoologo eta botanikari ospatsuenekin.

Ihardun emankor honen emaitzarik preziatuena, *Espezieen jatorriaz* (1859) dalako liburua dugu. Bertan, Eboluzioaren teoria agertzen zuen, ondoko puntuotan laburbil genezakeena: 1) Espezie desberdinaren ale-kopuruek nahiko konstante diraute Naturan. 2) Biziunen ugalkortasuna, kopuru iraunkor horiek mantentzeko premiazkoa dena baino handiagoa da. 3) Beraz, hilkortasun nabariak egon behar, berau «bizitzagatiko burruka»ren ondorioa delarik. 4) Espezie bakoitzeko aleak ez dira elkarren zeharo berdinak, aldaki txikerrak (anatomikoak, fisiologikoak, etc.) bait dituzte. 5) Aldaki hauek heredagarriak bide dira; beraz, eta «hautespen naturala» dela kausa, aldaki abantailosoak gorde eginen dira, besteak iraizten direlarik. 6) Hurrengo belaunaldietan aldaki abantailosoak metatzu doazke, ingurunera hobeto moldatzuz. 7) Hortaz, leku desberdinako baldintza berezieta bizidunak desberdinki moldatzean, espeziazioa ematen da.

Bazegoen zenbait puntu ilun teoria horretan, herentziaren arazoaren aldetik esate baterako (berauek Mendel-en lanak argituko ditu). Hala ere, lanabes erabilgarria bihurtu zen orduan, fenomeno ulergaitz asko eta asko azaldu egiten bait ziren beraren baitan. Mundu biziaren printzipio bateratzalea zen. Gaur egun, Eboluzioaren teoria sintetikoak (Neodarwinismoak) gaindituta dago.

Baina teoria hark Biologiarako eite modernoa zekarren aldean. Batetik, biziunen populazioekin egiten du lan, ez ale solterekin, eta oso garrantzi handia ematen dio inguruneari. Bestetik, zera: aldakiak zoriz (azarean) gertatzen dira, eta ez inolako xede edo intentziopan; ondoren, inguruneak, bahe bat balitz bezala, hobekien moldatuak faboratzzen ditu. Hau da, feed-back baten bidez erregrula daiteke sistema osoaren iraunkortasuna.

Espezieen jatorriaz liburuaren argitarapenak polemika garratz luzea sortu zuen, maiz, arazo zientifikoak ukitu beharréan, teologiko eta politikoak eztabadatzen zirelarik. Izan ere, hiru mende lehenago Kopernik-ek bezala, eztanda izugarria eragin zuen Charles Darwin-ek. ■ *Kepa Altonaga.*

Don't cry for me, Argentina!

Aste batzuk igaro dira eta Falklands edo Malvinak irletako gerratea amaitu da: Argentinak galdu du gerra hori. Armen zaratarekin batera, eskierki gogor eraso izan zaio Inglaterraren

kolonianismoari, eta ez naiz ni hasiko hemen Estatu eta Monarkia horren «garbitasun» kolonialistak defendatzen. Lotsakizun litzateke nornahirentzat ere. Bainaz zilegi bekit X. Kintanak *Egin*-en esandakoei neure azpimarra ezartzea.

«Galtieri deitura duenak bere amona Machu Pichun jaioa» ote du, galdezen du Kintanak. «Amerikar bizilagun jatorren atzoko (eta gaurko gehituko nuke nik) kolonialistak, indioak zapaldu, esklabutu, hil eta maparen eremu askotatik kulturaz, hizkuntzaz eta arrazaz ere desagerterazi dituztenak, beren oraingo heredero zuzenen ahoz ingelesei kolonialista eta imperialista esaten ari» ote litezke?

Gaurregun (eta betidanik), eguzkiaren argia ukatzen ibiltea izango litzateke Ameriketan krioiloek ezarri zuten, eta ezartzen duten, genozidioa ukatza. Amerika kolonialean eta independentean berdintsu izan da: Indioak Amerikaren etorkizuna galtzen 1492an hasi ziren eta gerotzik maldan behera joan izan da beti horien itxaropena.

Euskaldunak ere ez dira, oro har, indioen eta haien kulturaren askatzaile gertatu. Gure indiano arrunten ondoan, izan genituen gure arma-gizonak eta lege-gizon kolonialistak ere. Espainiak mendetan erabilitako Indietako Lege-liburua Diego de Enzinas nafarraren *Cedulario Indiano* (1596) izan zen. Bainaz itzul nadin Argentinara.

Argentina beti ikusi edo sentitu izan dugu, Estatu «zuria» eta indiorik gabekoa bezala. Hala ere, ez da hori guztiz egia sekula izan, eta Independentziaren egunetan ere Askatzailaek (San Martin, Belgrano, etab.) arduratu ziren arazoaz, beti ere krioiloen interesak zainduz izan bazen ere, Amerika «librea», indioentzat, ez baita hain librea izan.

Argentina-ri bere bandera eman eta Independentzia hain bortizki defendatu zion Manuel Belgrano-k (1770-1820), adibidez, ez zuen lotsa eta zalantzarik izan herrialde hartako jatorrizko bizilagunen hizkuntzei mugak, hesiak eta zurien komentzien araberako legeak ezartzeko. Bidezkoa da Independentzi unean ere legearen lehentasunak zeren alde eta zeren kontra eman ziren gogoratzea.

Argentinar Belgrano haundiak honela agindu zuen «Reglamento para los naturales de Misiones» (probintzia) deituan:

«Aunque no es mi ánimo desterrar el idioma nativo de estos pueblos; pero como es preciso que sea fácil nuestra comunicación, para el mejor orden prevengo que la mayor parte de los cabildos se han de componer de individuos que hablan el castellano, y particularmente el corregidor, el alcalde de primer voto, el síndico procurador y un secretario que haya de extender las actas

en lengua castellana» (Art. 19). «En cada capital de departamento se ha de reunir un individuo de cada pueblo (...) para elegir un diputado que haya de asistir al congreso nacional, bien entendido que (...) ha de saber hablar el castellano (...)» (Art. 23).

Harremanak ondu eta xamurtzeko, ez zuten «Askatzaile» haindien hizkuntzak ere ikasi zitezkeenik pentsatu, edota Buenos Aires-en hizkuntza «carrotz» haindik ere eskubiderik izan zezaketenik. Bestelakoik gertatu balitz, gainera, anakronia eta ukronia ere izan zatekeen. Eta horrela egin da, beraz, Amerika, europarren Amerika krioiloa, Malvinetako gerrate honetan hainbeste aipatu diren «eskubide historikoen» antzeko eta hobeago asmo ongi ahaztu eta baztertu ondoren, alegría. ■ *Joseba Intxausti.*

Leopoldo Etxeberria gogoratuz

Joseba Intxausti

Orain zenbait hilabete (1981-azaroa-18) hil zitzalgun Leopoldo Etxeberria Unanue (1942-1981). Hila da, ba, «Anatsan». Hobe beharrez eta bapateko oroitohar labur eta eskas batetik ihesi, gaur arte ez dugu heriotze mingarri horren albisterik jaso gure aldizkarian. Atzerapen eta guzti, barru-barrutik hunkitu ninduen adiskide eta euskaltzale eredu haren bizitza trinkoaren oroigarri bat ekarri nahi nioke irakurleari orrialde hauetara. Zalantzak gabe berezitasun apartekoak izan zituen Leo-ren bizi-zak, eta guztiontzat eredugarri izateraino, esango nuke nik.

Euskaltzale honek Euskal Herriko eskualde batean utzi duen urratsa handia izan da, betea. Behin baino gehiagotan Rikardo Arregi gogora ekarri izan dit Leo-k, bere euskaltzaletasun langileagatik. Biek, laiko eta herritar soil bezala ekin zioten euskal lanari, herkideen euskal ekintzak sustatu eta bideratuz. Be-launaldi berberekoak dira: 1960aren inguruau hasita, urte gutxitara indarreanagotu zen olatu gaztean agertu zen Leo. Rikardo bezalaxe, garaiz ere.

Baina bien arteko aldeak ere gogoratzekoak dira: Rikardo-k lehen pausoak Donostiako Seminarioan eman zituen; Ikastetxe horretan zituen erroak. Bere lana euskal ikasle gazteen tartean eman zuen Rikardo-k, eta haren erakarmena ezaguna izan zen. Beharbada, karisma pertsonal horretan ez da Leo hain distritsua izan, edo ez da bederen gisa berekoa gertatu: honen dohai-nak bestelakoak izan dira.

Autodidakta hutsa zen, Unibertsitate eta Seminariorik gabea: autoikasle apala, baina oso argia eta zentzuz betea. Txundituta uzten zuten nornahi haren jakin-minak, jakitateak eta itxurakeriarik gabeko apaltasunak. Lehen-lehenik eskulaneko langilea izan da Leo: langileen artean hasi eta hezi zen; euskaltzaletu ere langileen artean zebilela euskaltzaletu zen. Sindikalismoan eta kooperatiba-munduan eman du Leo-k bere biztza. Haren euskaltzaletasuna hortik zetorren eta hortxe eman zen.

Leo Etxeberriak gainera, beste zerbaite berezia ere izan du bere lanetan: jatorrizko eskualdera, Urolaldera alegia, zuzendua izan da Leo-ren egiteko. Egia da muga horiei ere gaina hartu zirela, han eta hemen hainbat hitzaldi emanez, baina *berea* Azpeitia zen, Azpeitia eta ingurua. Hurbileko errealityate helkorra inoiz sortu ohi digun iguina ez zuen ezagutu: atxekimendu osoz besarkatu zuen suertatu zitzaison ingurua, nahiz eta aldakuntza handiak bultatzeko asmoz izan onarpen hori. Maitatzen zuena guztiz hobetu nahi zuen. Nolabait esateko, geografia zabalean baino gizartearen sakontasun-bila egin zuen lan gure gizonak, izpiritua leial, kezkati, ezdigmatiko eta liberal batez; baina, hori bai, bere azken xedeak non zituen ongi zekiela beti ere. Euskal Herri osoaren zerbitzutan ihardun zuen bere jaioterritik.

Azpeitiko herriak hilondoko omenaldi bat eskaini zion Leo-ri (1982-otsaila-6). Omenaldi horretarako bildutako hainbat albisteri eman nahi nioke hemen leku. Geroztik, haren alarguntsa Inaxi Bereziartua eta lagunei esker, beste xehetasunik ere jaso dut. Besterik ezinean, guztiotatik laburbilketa mugatu bat emango zaio irakurleari, ba, lerro hauetan.

ELAko sindikalista

Langilegoaren barnean hasi zituen L. Etxeberriak bere Iana eta trebakuntza. Lehenik Elizaren langile-mogimenduetan (JOCen bereziki). JOC-isten artean euskal zentzu bat txertatu nahi izan zuen berehala. 1960ko hamarkadaren hastapenetan gaude. Eliztar ekintza progresista bat zen hura Leo-rentzat. Handik hasita, laster bilatuko zuen beste irtenbiderik: 1964-65etan ELAra jo zuen, eta 1968an barneko etena etorri zenean (eladioena, alegia) ELA ofizialari segi zion. 1974eko krisian, berriz, ELAren sindikatutasuna hobetsiko zuen.

Sindikalismo librearen alde borrokatu zen, frankismoaren legeriak eta orduko egoera sindikalaren zirrikitoetatik askatasun

horretarako lehiatila berriak irekitzen ahaleginduz. Konbenio kolektibo aldeko lanari gogoz heldu zion, langilegoaren ordezkaritzak hobetuz eta lan-baldintzak samurtzen saiatuz.

Ekintzale bezain ikastzale izan zen Leo urte haletan: Langile-mogimenduen historiaz biziki arduratu zen. Lantegietako ahaleginetan, Sindikatuko zereginetan eta bere gisarako edo taldeko ikasketetan jasotakoak, eta betidanik indartuz zekarren euskal jakiteak lagundu zioten ELAren III. Kongresuan (Euba-Eibar 1976) bere ekarkinak eskaintzen.

Kooperatibista

Arrasatearren kooperatiba-mundua ezagutu ala, berak ere lehiatsu parte hartu zuen mogimendu gazte honetan, eta laster bilakatu zen eragile lantegiko lagunen artean, denen arteko ideiak berritu eta kanpokoekin zubiak egiten. Lanbide berri honetan, Leo-ren dohain pertsonalek egiteko on bat bete zuten: etenik gabeko zerbitzu-grina zuen, lanerako gaitasun aparta, hobekuntz gogo hasekaitza, dio lagun batek.

Lasteari zituen bere gain lantegian egin behar ziren euskal itzulpenen lanak. Lantegiko erantzukizunei aurpegi emateko buru-belarri saiatu zen ikaskizun berriak eskuratzenten. Haren prestakuntza nondik zetorren jakinik euskaltzaleok Leoren gain batez ere euskal historiaz ikasi zituenak miresten genituen: baina haren lantegi-lagunek miresgarria aurkitzen ziotena beste zerbaiz izan zen: «Cómo una persona que en su juventud no ha tenido oportunidades de estudio, ha podido llegar a poseer el nivel cultural y empresarial que dominaba» (J. Martínez).

Kooperatibara sartu eta hilabete gutxi barru Batzorde Zuzendaritara eraman zuten lagunek (1974), Lagun Aroko zuzendaritzara iristen zelarik. Eginkizun hauek eman zioten eskarrimentuaren ondoren «Urolaldean gizarte-arazoetarako lagunik jantzien» gertatu zen.

Dirudienez, C.O.M. Kooperatibara pasatzerakoan (1974), Leo sindikalista borrokalaria izateak nahiko kezkatu zituen hura onartu behar zuten lagun batzuk. Barruan izan orduko egin zion toki euskarari, urteroko Memorial eta Biltzarrean azalpenak euskaraz ere emanez.

Ahal izan zuen bezain laster, orduko lantegi-barneko giroari bekoki eman zion oso eztaba idatua zen beste arazo bate-

tan: LKAren kooperatiba-sarearekin lotzearen komentenziaz galduet zuen, berriz ere, Leo-k lagunei (1975). Garrazki erabilitako gaia zen hau lantegian, mesfidantza handiak sortzen zituen eta ozpinduta zegoen arazoa. Hilabete batzuetan lortu zuen, pausoz pauso, C.O.M. Iantegia LKAaren inguruko kooperatiba-Elkartera sartzea (onarpena, 1979).

Euskal Iantegi hauen arteko egitura berriak zabaldu eta indartu nahiez eta, oraingoan, Urolaldeko bere bailaran ere el-karte hori bultzatzeko Urkide sortu zen (1980). Leoren partaidetza eta gogoa ezagunak izan ziren bide berri hauek urratzean: bera izan zen Urkideren Lehendakaria ere.

Euskaltzalea. Idazlea

Eta ibiliaren ibiliaz, hamaiatxo irakurketen eraginez, langile-munduan bizi zen gizon honi hizkuntza eta kultur balioen kontzientzia argitu zitzaison. Gizakizun horietaz arduraturik hiru axola nagusitan bildu zuen bere egitarau: 1) Ikastolaren eraikuntza, 2) Hizkuntzaren indarberritzea, 3) Euskal Historiaren zabalkundea.

Ikastola eraikitzen. Bailarako kultur elkartean gogoz parte hartu zuen Etxeberriak: gizarteko gizona zen, eginean eta eraginean ahalegintzen zen, bere liburu-gelatxoan ikasi eta ikasi ito gabe. Haren arrastoa hainbat eginkizun berritan urratu zen. Kultur Asteak, Hitzaldiak, Alfabetatze jaio berria... dena zen aitzakia ederra jendea jakitez jantziagotzeko, euskarari gizartearen gaitasun berriak txertatzeko. Baino inguruak eskaintzen zizkion, edo inguru horrentzat premiazkoak izan zitezkeen tresnetatik maiteena eta baliagarriena Ikastola izan zen.

Ikastolaren hazkunde-ordu malkartsuetan egokitut zitzaison, eraikuntza hari bide berriak irekitzea, horretarako lemari heldu behar izan zionean, ausarki heldu zion bere egitekoari zaputz egin gabe. «Ez zen Leo bere lanean kokildu edo inoiz atzeratu», dio Ikastola-lanetan haren ondoan ihardundako batek.

«Euskararen bizitzaz eta zabaltzeaz asko kezkatzen zen eta Ikastoletan ikusten zuen hortarako biderik egokiena» (E. Larrañaga). Ikastola-ingurura bildu izan nahi zituen bera bizi zen gizarteko indarrik onenak: gurasoak, eliztarrak, Udala, Herria...

1975-78. urteetan izan zen Ikastolaren Lehendakari. Garai honetako da hainbat saioaldi berri: Arautegi berria moldatu

zen; bailarako «Izarraizpe» Irakaskuntzarako kooperatiba sortu; Ikastolako langileen egoera normaldu; Azkoitiko Ikastolari ere eman zion bere bultzada, eta berehala hasi zen Urolako Man-komunitatearekiko lehenen harremanak lantzen; Ikastolak egoitza berria behar zuela ikusirik, inguruko erlijiosoen ikastetxeekin elkarrizketan hasi zen, irtenbide baten bila.

Jendarterako dohain aparta zuenez, harek parte hartu zituen bilerak kontaezinak dira, eta guztieta nabarmena zen gure gizonaren eragina: «Bultzagile eta suspertziale zen. Ingurua bere asmo biziz betetzen zuen».

Euskara lantzen, euskara zabaltzen. Kooperatiba, lanari duintasun berri bat bilatzeko tresnatuz zeukan bezala, Ikastola ere beste tresna bat zen Leo-rentzat: gure herriaren nor-tasun-berezkarririk handiena, hizkuntza alegia, aintzina ateratzeko zen Ikastola. Haren ekintza sozialean ez-ezik, etxe-barneko lan-ordu isiletan ere euskarak lekuriak handiena izan zuen Leo-ren bizitzan.

Leo garbizalea zen; baina ez asmakizunetan sartuko zen garbizalea, herriak bere baitan bizirik zituen hitz eta esaerak arretatsu jasotzen zituen garbizalea baizik. Azpeitiko euskara arduraz ikasi eta aztertu zuen, bere ondoan zeukan hizkuntzaz osorik jabetu nahi zuelako. Bere gisara, eta Alfabetatzearen inguruan erosotasun hobeak aurkitu zituenean, klasikoei heldu zien bihotz beroz. Garai batean iluntzero eman zen Axularren irakurketara, zenbait pasarte buruz ikasteraino; bakarrik, here kontura, eta taldean ere bai lan handia egin zuen honeitan. Oso maiteak zituen Lizardi eta Orixe; estimurik onena zien bertsolariei, baina nahiko kritiko ere agertzen zen inoiz (Amuriza zuen maiteena). Azken gaixoaldiko une larrietañ begiak itx eta gozokiro dastatzen zituen Aranaldek belarriba jaulkitzen zizkion Lizardiren olerkiak.

Euskaltzaindiaren lanari itzalik handiena izan zion. Batasunerako bideak ezagutu eta gizartearen zabaltzen ihardun zuen (Ikastolan, Kultur Asteetan, etab.). Batasun-arrazoa Ikastolan bototara eraman zenean, txitean pitean, konturatu ere egin gabe, bera izan zen aldekoei arrazoik onenak bildu zizkiena (lagunik onenak kooperatibazaleen artean aurkituz, eta kontrakoik gogorrenak geroko bere hauteskunde-lagun batzuen artean zituelarik...).

Ildo horretatik, Euskaltzaindiko zenbait lagunek hitzaldi-sail bat eman zuten Azpeitian (1972), batasunaren eztabaidea gor-

dinena zen unean. Leo zen antolatzailako bat eta hizlarien aurkeztailea. Ez dago, beraz, esan beharrik ere, Euskal Herri osoaren batasunerako lanabesik egokiena bezala ikusten zuela Etxeberriak hizkuntzaren batasuna.

Ez herriko hizkuntzetan, ez hizkuntz eztabaideetan galdu edo agortu zen Leo. Aipatu beharrekoa da haren kazetari-lana. Ekin-tza-gizonaren baitan luma-gizona ere bazuen Leok beregan. Zerriku Argia-n eman zuen bere lanik handiena; asterokoaren orrietan halako ohizkotasuna irabazi zuen, azkenik, «Anatsan»-ek. Hortixe ezagutu genuen euskaltzale gehienok Leo Etxeberria. Luma zaindua zuen, aberatsa, zabarkeria guztietatik ihes egiten zuena.

Euskal prentsarekiko haren lankidetza ez zen, ordea, artikulugintzara mugatu; asterokoaren barne-antolamendua berritu nahi izan zenean (1972?), lagunen deiari erantzunez idaz-elkar-tean sartu zen, asteoro Donostiarako joan-etorria beteaz. Gerroxeago, Zerriku Argiaren barneko lagunartea berriz ere aldatu zenean, *Dela-ri* eskaini zion bere lankidetza.

Irakurle eta ikasle bezala topatutako aberastasunak, maite zuen herriari eman nahi zizkion, beti bizi-bizirik agertu zuen zerbitzu-gogoak zirikatuta. Euskara indartzeko eta herritarren kontzientziak argitzeko, Alfabetatze-mogimenduan sartu zen, ikastaroetarako euskal irakaskizun ugari prestatz, eta ikasle eta irakasleei emanez. Horretarako, ordea, landutako euskaraz gain beste zerbait behar zuen, eta herriaren gaurko orainalditik iraganaldieta zuzendu zuen bere begirada, gure nortasun nazionalaren bila. Azterkizun bezala, euskal Historia aukeratu zuen.

Historilaria

Badirudi, Leo-k hiru pilare nagusi ikusten zituela euskal nortasunaren euskarri bezala: Hizkuntza, Historia, Instituzioak. Beste berezkariak ukatu gabe, lehenengo bien alde eman zituen bere izerdirik ugarienak.

Euskal *herria* maite zuen Leo-k, herri xumea eta apala, mendez mende izenik gabe iragan ohi dena. Horrengan bilatu zuen Etxeberriak euskal historia; horregatik, *historia sozialaz* ardura-tu zen bereziki. Horretarako, ordea, inongo unibertsitatetara joan gabe, bere herritar batengen idoro zuen eredua: Ildefontso Gu-

rrutxaga azpeitiar erbestera zuen maisua. Ildefontsok bezalaxe, Leo-k ere Euskal Herriko eta, hurbilago oraindik, Azpeitiko errebolta sozialak aztertu zituen. Bere gizarte-ekintzan (sindikatuan, kooperatiban) langileen askatasunaren alde ihardun zuen bezalatsu, Historia aztertzean ere jende langilearen askatasun-ahaleginez arduratu zen.

Bere liburutegiaz gainera, jakiten eta ikerketan lagun zeazketen zenbaitekin saiatu zen harremanik onenak korapilatzen. Oso gogoko zuen Gurrutxaga, eta Donibane Lohitzunen ikustatu ohi zuen; Loiolan, berriz, Aita Egillor, Artxibategiaren arduraduna, bidaide izan zuen, Artxibategian ezezik, Euskal Herriko zoko historiko jakingarrienak ongi ezagutzeo ibilaldietan. Baina, Euskal Herria nahiko ibilia zuenez, inguruetako lurraldetara zabaltzen hasia zen: azkenekoz, elkar ikusi genuenean, San Pedro de Cardeña-n izan zen, hain zuzen. Bidaia hauetako, geratu da haren paperetan lekukorik franko.

Euskaltzaleontzat, ordea, haren bidaldirik probetxuzkoenak, hitzalditarako eginak dira, noski. 1968. ingurutik aurrera euskal historiarenean irakasle bezala ihardun zuen Leo-k, herrietaiko Kultur Asteetan eta Alfabetatze-ihardunaldietan bere mintzaldiak emanet. Betetako lan honen albiste zehatzak haren paperetan eta egunkarian ikusi beharko litzateke.

Herriko gizona

Azpeitiarra zen Leopoldo, oso herriko semea. Maite zuen jaioterria, maite zituen herritarrok. Azpeitia hobeago bat nahi zuen. Horregatik, haren artxibategian ikus daitekeenez, sona handiko herriko semerik prestuenen albisteak arretaz jasotzen zituen: Julian Elortza, Ildefontso Gurrutxaga, Karmelo Etxegarai, Jose Artetxe... Eedu pertsonaltzat zeuzkala esango luke batek. Berdin, Azpeitiko herriaren unerik jakingarrienak aztertzen saiatu zen (matxinadak batez ere).

Jaioterriarekiko kezka hauak eguneratuz, azken aldiko politika-berrikuntzan zuzenean parte hartu zuen. Hauteskunde aurreko mitinetan zabaldu zituen bere ideiak, eta utzi dituen paperetan dago zenbait idazlan. Udaletxerako hautatua izan zenean, Azpeitiko euskal plangintzari lehiaz ekin zion, urtetako lanaren ondorio umotu bezala, «Udaletxearen Kultur Sailerako Egitamu» bat prestatuz.

Alderdi politikoen artean beti gorde zuen halako urruntasun garbi eta leial bat, beti ere aurrerazale eta ekintzale borritza agertuz, eta inongo alderdirekin osorik uztartu gabe, guziekiko errespetoa gordez eta herriari bere osotasunean zerbitzua eskainiz.

* * *

Joan zaigu Leopoldo Etxeberria, ustez urtetarako euskaltzaile langilea izango genuena. Gutxi dira honelakoak, eta batzutan gazterik joaten zaizkigu (lehenago Lizardi, Loramendi, Lauaxeta; geroago R. Arregi, G. Aresti...): harek ereindako haziak izango ahal du, Urolaldean, berriz ere uulta onik!

J. I.

Euskal zuzenbide pribatua: etorkizunik ba ote?

Andrés Urrutia

Azken urteotako euskal letretan oso estudiatura ez izan arren, bada Euskal Herrian zuzenbide pribatuaren aldetik berezitasun franko. Hemen, ikuspegi juridiko eta historiko batetik, azken bi mendeotan sail honetan izan diren aldaketa garrantzitsuenak azaltzen saiatuko gara.

Baina horretarako, zehatz ditzagun lehenbizi lan honen mugak. Alde batetik, tituluan «euskal» hitza ezarri arren, Hego Euskal Herriko legeria pribatuari lotuko gatzaizkio batez ere, Euskal Herriko eskuadre historikoek izan duten desberdintasun juridikoaren funtsezko batasuna azaltzeko. Bestalde, zuzenbide pribatu horren edukinean (erakunde eta abarretan) bereziki eta zuzenki sartu gabe, hemen zera planteatuko dugu: Estatu mailako Konstituzioa eta Kodeak eta Euskadi mailako azken Estatutua direla eta, legeria hauek, Nafarroako legeria forala barne, izan duten eta izango duten aldaketa.

Hau honela izanik, eskema honi jarraituko gatzaizkio lan honetan: I. Euskal Foruak eta zuzenbide pribatua XIX. mendearen hasieran: zuzenbide pribatuaren edukina eta aplikazioa; II. XIX. mendea: Foruen deuseztapenaren ondorioak zuzenbide pribatuan; Estatu mailako kodegintza eta Euskal Herriaren kasua; III. XX. mendea: «Eranskinak»; gerraurreko eta gerra osteko salaldiak; lehenengo errealitateak: Bizkaiko eta Nafarroako Konpilazioak; IV. Espainiako azken konstituzioa, Euskadiko Estatutua eta Nafarroaren kasua; V. Zenbait ondorio eta gogoeta etorkizunari begira.

I. EUSKAL FORUAK ETA ZUZENBIDE PRIBATUA

«*Ubi ius, ibi societas*», «*ubi societas, ibi ius*», esaten omen zuten erromatarrek. Eta praktikan honela gertatzen dela, ez dago inolako dudarik ere. Horrela euskal gizarteak mendez mende eraiki zuen zuzenbide berezia euskal zuzenbidea dugu. Gizarte, Iurrealde eta egoera konkretu bati lotua, bere iturri legislatiboak eta bere garapena izan ditu, baita, Alemaniako jurista historikoek esango lukeenez, bere «*izpiritua*» ere.

Eta euskal zuzenbide honen adierazleak, Iparraldeko Foruez aparte, Bizkaia, Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako Foruak ditugu. Hala ere, zentzu zabalean hartzan dugu hemen «*Foru*» hitza, hots, Euskal Herriko eskualdeetako herri bakoitzak bere burua gobernatzeko zuen lege nagusia bezala.

Zuzenbide pribatuaren edukina eta aplikazioa

«*Foru*» hauek eskualdeetako herri bakoitzaren legegintzarako boterean dute beren iturria eta, euskal zuzenbide berezia izanik, bai zuzenbide publikoa bai zuzenbide pribatua besarkatzen ditu haien edukinak. Arlo publikoan, hain ezagunak diren erakundeak agertzen zaizkigu: Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak, edo Nafarroako Gortea. Arlo pribatuan, ostera, edukintzat pertsona pribatuen arteko harremanak hartzen dituen arloan alegia, sistema oso berezia agertzen da, gizarte baserritar bati dagokiona hain zuen ero. Honela sortzen dira, beste askoren artean, ondoren azaltzen diren erakundeak:

1. Testamentua egiterakoan oinordekoak aukeratzeko askatasun osoa. Gaztelako zuzenbide pribatuaren aldean, semeei legez tokatzen zaien herentziaren partea arras sinbolikoa izango da bai Bizkaian (seme bat ez beste guztiak herentziatik apartatzeko eskuidea bait zuen aitak) eta baita Nafarroan ere (legezko parte hau «cinco sueldos febles o carlines y una robada de tierra en los montes comunales» besterik ez baitzen). Honela, seme bat aukeratzerakoan, baserriaren batasuna eta iraupena lortzen da, hautaturiko semea eta horren familia baserrian gelditzan direnez hori aurrera ateratzeko. Besteek, bigarren semeek, etxetik kanpora irten beharko dute beren ogibidearen bila.

2. Honekin batera, ezkontzako ondare-erregimenaren (Bizkaiko «Comunicación foral» eta Nafarroako «Régimen de conquistas») eta ezkontz kontratuaren bidez, familiaren eta baserriaren arteko lotura indartzen da; izan ere, gurasoek aukeratutako se-

meak eta honen familiak gurasoekin batera eramatzen bait dituzte, sozietate familiarrean, baserriko betebeharra, berorren osotasuna bermatuz.

3. Gainera, erakunde hauen sistema osotzeko, oinetxekotsuna («troncalidad») agertzen da. Erakunde honen bidez jaiotetxeko ondasunak jaiotetxeen gelditzea lortzen da, ezin bait dira horiek jatorri-familiatik atera ahaide oinetxeko guztien kontsentimendurik gabe (familiakoek dute gainerako guztien aurretik ondasun horiek hartzeko eskubidea).

Honela lortzen da sistema oso bat, juridikoa eta ekonomikoa hain zuen, baseriaren inguruan funtzionatzen duena.

Zuzenbide pribatuaren ezaugarriak

Ikus ditzagun orain sistema juridiko honen ezaugarri orokorrak:

1. Ohiturazkotasuna. Izan ere, zuzenbide pribatu hau ohiturazkoa izango da hasieran, idatzizko Konpilazioak agertu arte. Are gehiago, kasu konkretu batetan, Gipuzkoakoan hain zuen, bertako Foruen Bilketan ez agertu arren, ohiturazko sistema baten bidez (ezkontz kontratuaren, testamentuaren eta salerosketaren bidez) sostengatzen da baseriaren batasuna eta familiaren ondare-erregimena. Ohiturazkotasun hau Bizkaiko Foru Berrian ere agertzen da, honela mintzatzen zaigunean: «...beste batzuk, barriz, erriaren bakebide ta nasaibiderako eta zuzentasuna artez egin daiten bearrezko diranak eta usarioz eta oituraz egin diranak ezarri barik dagoz bertan [Foruan]». Beraz, ohiturazko izaera azpimarratzean adierazten zen, bertan agertzen ziren legeak ez zirela Bizkaian indarrean zirauten ohitura guztiak. Haistik, ohiturazkotasun hau argiroen erakusten duen legeria Nafarroakoa da, historian zehar jarraitutako printzipioaren arabera egun ere bere 2. eta 3. legeetan honako hau esaten duenez:

Ley 2.^a. Prelación de fuentes: En Navarra la prelación de fuentes de Derecho es la siguiente: 1) La costumbre; 2) Las leyes de la presente Compilación...

Ley 3.^a. Costumbre: La costumbre que no se oponga a la moral o al orden público, aunque sea contra ley, prevalece sobre el derecho escrito...».

Ohitura, beraz, legearen kontrako bida ere, zuzenbidearen lehenengo iturria da Nafarroan eta legearen aurretik aplikatzen da, berezko baldintzak betetzen baditu.

2. Lurralde mugatua. Nafarroan izan ezik —Nafarroa osoan

aplikatzen bait da bertako zuzenbidea—, beste eskualde guztietan mugatuki aplikatuko da zuzenbide pribatu eta foral hau. Bizkaiari dagokionez, Luz Lauean bakarrik aplikatuko da eta ez, noski, Hamabi Hirietan, non Gaztelako zuzenbide pribatuari jarraitzen bait zaio. Horregatik, eta gero ikusiko dugun bezala, zuzenbide hau arras baserritarra izango da eta beraren indarra gizarte baserritarera bakarrik hedatuko da. Gipuzkoan ere baserrietan eta familia baserritarren artean aplikatuko da ohiturazko zuzenbide pribatu hau, bertako hiriak lehendanik Gaztelako zuzenbideari jarraitzen bait zaizkio.

3. Nahiz eta sakabanatua agertu eta formulazio desberdinak eskualdeetako Foruetan (Bizkaiko eta Nafarroako Foruetan, adibidez), bere izaeraren aldetik egoera eta gizarte konkretu bati ihardesten dio funtsean zuzenbide pribatu eta foral honek. Eta gizarte hori, hain zuen ere, Euskal Herrian «Ancien Régime» delakoak eraikitakoa da. Honela, zuzenbide honek, bere konponente edo elementu sozialak edukirik (herri-basoak, esaterako), jabetzaren kontzeptu kolektiboa ere zaindu eta sostengatuko du. Jabetza ez da izango eskubide individual eta orokorra (ideologia liberalean bezala), baizik eta familiaren eta baserriaren batasanaren funtzioan ulertuko da. Honela, eta lehen ere azaldutako erakundeen bidez, sistema juridiko bat agertzen da Euskal Herrian, hain zuen ere zuzenbide foral publikoarekin batera (exentzioak, autogobernua etab.) XIX. mendera arte iraungo duen eredu sozio-ekonomikoa definituko duena. Eredu honek, Euskal Herriko lurren eskasia eta probretasuna kontutan harturik, familiaren eta beronen lurren explotazioaren batasunean kokatuko du bere helburua; horretarako, alde batetik, emigrazioa bultzatuko du laneku-soberakina (bigarren semeak) eta bestetik Foruen erregimen fiskal eta publikoari esker (zergen exentzioak eta guziekiko berdintasuna) lortuko du bere oreka XIX. mendea etorri arte.

Hauek dira, bada, gaingiroki ukituta, XIX. mendearren hasieran Hego Euskal Herrian indarrean dirauen legeria pribatuaren ezaurriak.

II. XIX. MENDEA

XIX. mendea hastera doanean, sistema juridiko honen kontrako erasoak gero eta ugariagoak izango dira. Ilustrazioak ezarritako ideologia liberal eta uniformalizazioaren ondorioz eta Frantziako Erreboluzioaren ostean, legearen aurreko berdintasuna

iraultzaile liberalen helburu bihurtzen da. Haatik, berdintasun honek, abstraktuki kontsideraturik bederen, legearen batasuna eskatzen du eta, noski, horretarako oztoporik larriena eskualdeetako zuzenbide historikoak dira. Klase sozial bezala ideologia libera-larekin batera sortzen ari den burgeseria, horrela, «estatu naziонаlа» eraikitzen daraman bideari helduko dio. Agian Frantzia izango da aitzindari arlo honetan: Ipar Euskal Herriko Foruen desagerpena lekuko. Uniformatze honen bidez, hizkuntzazko, ekonomiazko eta zuzenbidezko batasuna lortu nahi da. Funtsean, burgeseria honek behar duen merkatuaren batasun linguistiko eta juridikoak herri txikietako erakundeen desagerpena eskatzen du. Prozesu hau argi eta garbi azalduko da Spainian zuzenbidearen arloan, frantses armada aurrean zutelarik Cádiz-eko Gorteek egin-dako Konstituzioaren 251. artikuluan:

El Código Civil y Criminal y el de Comercio serán unos mismos para toda la Monarquía, sin perjuicio de las variaciones que por particulares circunstancias podrán hacer las Cortes.

Foruen deuseztapenaren ondorioak

Iruzkintzen ari garen joera uniformatzaile hau zuzen-zuzen doa zuzenbide foralen kontra. Spainian, hala ere, prozesu hau oso berezia izango da. 1713an desagertu ziren Foru publikoak (Aragoan, Katalunian, Balearetan), baina zuzenbide pribatuan indarrean diraute Foruak XIX. mendean; alde horretatik, Spainiako kodegintza zibilarentzat oztoporik gaitzena izango dira, prozesu hori aztertzerakoan azalduko dugunez. Estatu espainolak XIX. mendean jarraituko duen politika uniformatzaileak ezaugarri hauek izango ditu gure ustez:

1. Estatu nazionalaren ideia. Ideologiarekin batera, estatu nazionalaren ideia ari da sortzen Spainian ere independentzi gerraren ondoren. Eta estatu nazional honek bere zuzenbide «naziонаlа» beharko du, bere Kodeetan agertuko dena. Zuzenbide hau kodegintzaren bidez egingo da, Kode nazionalak lortu arte. Kode nazional hauetan Gaztelako zuzenbidea agertuko da batetik eta bestetik liberalek Frantzian bezala eragindako zuzenbide arrazoizko eta unibertsalaren nahia. Baina prozesu hau Spainian Frantziakoaz bestelakoa izango da, Spainiako eskualdeetako zuzenbide historikoek kontrajarritako erresistentziarenengatik. Horregatik, Kode Zibila ez da lortuko argitara ematea 1889ra arte. Frantziak, ostera, 1807an lortuko du bere Kode Zibila.

2. Ekonomi batasunaren ideia. Estatu nazionalarekin batera

klase berri bat agertzen da: burgeseria liberala. Eta burgeseria liberal honen projektu ekonomikoa kapitalismoa da. Projektu honentzat ezinbestezko tresnak Kodeak dira. Honela Espainiako lehenbiziko kodea Merkatal kodea izango da eta 1829an agertuko da. Merkatal kode honetan kapitalismoari dagozkion erakundeak erregulatzen dira, aurreko Merkatal Ordenantzak (Bilbokoak, esaterako) derogatuz. Beraz, zuzenbide berri honen bidez eta kodegintzari esker, zuzenbide foralak desagertuz doaz Estatu mailan. Ideologia liberal honek, lurren desamortizazioa erabakiz eta jabetzari buruz kontzeptu individualista eta asboluto bat sartuz, Foruek eragindako jabetzazko erakunde kolektiboen kontrako era soa suposatzen du. Honela, Foru hauen edukina, zuzenbide pribatuaren aldetik, indarrean iraun arren, gero eta laburragoa izango da.

3. Karlistaden eragina. Lehen azaldutako prozesua karlistadekin batera emango da Euskal Herrian. Horregatik, XIX. mendean zehar, karlistaden ondorioz, kodegintzaren pausoak eta Foruen kontrako erabakiak paraleloki joango dira, argi dagoen prozesua bete arte. Lehenengo urratsa 1839ko Urriaren 25ean argitaraturiko legea izango da:

Art. 1.^o Se confirman los fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad Constitucional de la Monarquía.

Onartzen dira, bada, Foruak, baina Monarkiaren batasun konsituzionalaren pean. Praktikan honek Foruen desagerpena suposatuko du, sistema juridiko bien arteko oposizioarengatik. Jakina denez, laster hasi zen lege honen desarroiloa, zeinetan pauso hauek azpimarra bait daitezke:

a) Nafarroari dagokionez, 1841eko Abuztuaren 16an argitara ematen da Lege Paktatua. Honen indarrez, erresuma izatetik probintzia izatera pasatzen da Nafarroa, bere erakunde juridikoak galten dituelarik:

Art. 2.^o La administración de Justicia seguirá en Navarra... hasta que... se formen los Códigos generales que deban regir en la Monarquía.

Art. 3.^o La parte orgánica y de procedimiento será en todo conforme con lo establecido o que se establezca para los demás Tribunales de la nación...

Art. 5.^o Los Ayuntamientos se elegirán y organizarán por las reglas generales que rigen o se adopten en lo sucesivo para toda la nación.

Hortaz, zuzenbide pribatua desagertzen ez bada ere, sistema

juridiko hori sostengatzen duten Nafarroako erakundeak (Tribunalak, Gorteak etab.) ezabaturik gelditzen dira, horien lekua Espainiakoek hartzen duten bitartean.

b) Beste hiru probintzietan prozesu berbera jarraitzen da, XIX. mendean publikatutako dekretu eta legeek adierazten dute-nez. Erakunde foralen desagertzea izango da erabaki horien xedea. Har dezagun, adibidez, 1841eko Urriaren 29an agerturiko erret dekretua:

Siendo indispensable reorganizar la Administración de las Provincias Vascongadas por razones que me habéis expuesto, del modo que exige el interés público y el principio de la unidad constitucional sancionado en la ley de 25 de Octubre de 1839... vengo en decretar lo siguiente:

Art. 1.^o Los corregidores políticos de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava tomarán la denominación de Jefes Superiores Políticos...

Art. 3.^o Los Ayuntamientos se organizarán con arreglo a las leyes y disposiciones de la Monarquía...

Art. 7.^o La organización judicial se nivelará en las tres provincias al resto de la Monarquía...

Art. 8.^o Las leyes, las disposiciones de gobierno y las providencias de los Tribunales se ejecutarán en las Provincias Vascongadas sin ninguna restricción. Así como se verifica en las demás provincias del reino.

Honetaz aparte, eta azken karlistadaren amaieran, 1876ko Uztailaren 23an, hiru probintzietako Foru publikoen azken aztarnak derogatzen dira: Foruak, zuzenbide publikoaren aldetik bederen, pikutara joan dira. Zutik eta tente, euskal zuzenbide pribatua bakanrik gelditzen da. Baino honen egoera ere ez da inola ere ona, orain ikusiko ditugun arrazoiengatik.

Espainiako kodegintza eta Euskal Herria

Estatu mailan kodegintzaren prozesua aurrera doa. Cádiz-eko agindu konstitucionala betetzeko, laster hasten dira kodeak ate-ratzen. Lehenengo Merkatal kodea izango da, 1829an, eta kode penal gero, 1848an. Kode hauen agertzeak zuzenbide penal foralen desagertzea eta merkatal erabaki foralen derogazioa eka-rriko du. Bestalde, jarraian emango dira Kode Zibilerako projek-tuak. Hala ere, zuzenbide pribatu foralean behaztopatuko dira beti. Hori dela eta, hiru fase berez ditzakegu kodegintza zibila-ren prozesuan:

1. Kode bakar eta uniformearen aldia. Aldi hau 1851n egin zen Kode Zibilerako projektuarekin amaitzen da. Projektu honen ezagarrak honako hauek ziren: a) joera unformatzailea: Gaztelako zuzenbide pribatuan oinarritzen da eta beste zuzenbide pribatu foralak desagertzearen aldekoa da; b) frantses kutsua: Gaztelako influentziaz aparte, Napoleon-en Kodean argi hartzen du, frantses eredu juridiko batzu —testamentu olografoa, esaterako— espinolduz. Baina projektu honek frakasatu egiten du, bai barne-edukinagatik eta bai eskualde foralen erasoengatik ere. Hau ikusirik, alde batera uzten du Gobernuak Kode Zibilaren projektua, eta honela bigarren aldia hasten da.

2. Lege orokorrak. Hauek gai jakin bat erregulatzen dute Estatu osorako, horrela, zeharka behintzat, gai horren unformatzea lortuz. Kriterio honi jarraitzen zaizkio, beste askoren artean, ondoko legeok: Hipotekaren legea (1861), Notari legea (1862), Uraaren legea (1866), Ezkontza zibilaren legea (1871) etab. Hauen bidez zuzenbide foralaren edukina laburtzen da eta murrizten. Har dezagun, adibidez, meatzeen kasua. Jakina denez, Bizkaiko zuzenbide foralean oinetxeko ondasunen artean sartzen dira meatzeak; oinetxekotasunari lotuta daude, hortaz. Hala ere, XIX. mendean, eta autore espinolek jarraitutako ideien arabera, Meatzeen legeak ondasun higiezintzat jotzen ditu meatzeak, oinetxekotasunaren mundutik ateratzen ditu zuzenbide uniformearen munduan sartuz. Honela zuzenbide foralaren edukina eta hedadura askoz txikiagoa izango da mendearen azkenean.

3. Lege orokoren ondoren, eta halekin batera, 1880an, berriro hasten dira Estatu mailako Kode Zibilerako entseiuak. Azkenean, 1888an, Kode Zibilaren oinarrizko legea onartzen da Madrileko parlamentuan. Oinarrizko lege honek zuzenbide pribatu eta foralak onartzen ditu, baina Espainiako Kode bakarretarako beharrak diren neurrian soilki:

Art. 6.^o El Gobierno, oyendo a la Comisión de Códigos, presentará a las Cortes, en uno o varios proyectos de ley, los apéndices del Código Civil, en los que se contengan las instituciones forales que conviene conservar en cada una de las provincias o territorios donde hoy existen.

Idea, beraz, argi eta garbi dago: kode bakarrerako bidean gaude. Kode bakarraren eranskin hutsak izango dira zuzenbide foralak. Eta are gehiago lege honek bere 1. oinarian dioena kontutan hartzan badugu: «El Código tomará por base el proyecto de 1851 en cuanto se halla contenido en éste el sentido y capital pensamiento de las instituciones civiles del derecho his-

tórico patrio». Agerian dago, hortaz, Kodearen oinarria Gaztelako zuzenbide pribatua dela eta hau dela zuzenbide nazionala, beste zuzenbide foralak bigarren mailan gelditzen direnez. Horregatik doi-doi datoñ harira Roca i Triasen hitzak:

Se codifica el derecho de Castilla y para los castellanos y no para los sometidos a algún ordenamiento foral. Pero esta idea tan clara durante las discusiones de las Leyes de Bases y que llegó a provocar una fuerte polémica entre los que no estaban de acuerdo con el sistema, fue pronto olvidada por los Tribunales, especialmente por el Tribunal Supremo, que se empeñó en identificar el Código Civil con el derecho común, olvidándose que la intención de los legisladores fue considerarlo como la codificación de un derecho particular.

Geroago, publikatzen denean, 1889an, honela mintzatzen zai-gu Kode Zibila 12. artikuluan:

Las disposiciones de este título (aurreko atalburuaz dihardu) en cuanto determinan los efectos de las leyes y de los Estatutos y las reglas generales para su aplicación, son obligatorias en todas las provincias del reino. También lo serán las disposiciones del Título IV, libro 1.^º (ezkontzari buruzkoak).

En lo demás, las provincias y territorios en que subsista derecho foral lo conservarán por ahora en toda su integridad, sin que sufra alteración su actual régimen jurídico, escrito o consuetudinario, por la publicación de este Código, que regirá tan sólo como derecho supletorio en defecto del que lo sea en cada una de sus leyes especiales.

Irudiz Kode Zibilaren formula oso zabala izanik ere zuzenbide foralari begira, formula honen azpian dautzan datuak ezin ditugu kontutan hartzeke utzi. Gure ustez, formula hau hiru aldetatik konsidera daiteke: a) lehenbizi, sistematikaren aldetik. Formula hau Kode Zibileko aurreko atalburuan kokatzen da eta berak dioskunez Spainia osora hedatzen da. Gainera atalburu honen edukina legeen teoria, pertsonen estatutu pertsonala eta erreala etab. izango dira eta arazo honetan ere kodeek zuzenbide foralak beren formularen menpean jarriko dituzte. b) Edukinaren aldetik, bigarren. Zuzenbide foralen onarpena mugatua izango da, zerren XIX. mendearen amaieran duen egoera kontutan harturik onartzen bait da; beraz, lehen azaldu dugun prozesuan arras laburtua gelditu ondoren. c) Ordezko zuzenbidearen aldetik. Hemen ere formulak bere ondorioa dakar, hots, zuzenbide foralen barnean Kode Zibila sartzea, ordezko zuzenbide bezala. Honela,

zuzenbide foral horien edukin mugatuak erregulatzen ez dituen problemetan Kode Zibila izango da jaun eta nagusi.

Hau honela izanik, XIX. mendearren amaieran, Hego Euskal Herriko eskualdeetako zuzenbide pribatu eta foralak ondoko ezau-garriak aurkezten ditu gure ustez: a) indarrean dago, baina oso murritzua edukinaren aldetik, lege orokorrak batetik eta Kode Zibila bestetik agertu direnez; b) gainera, projektaturiko eranskinetan, bakarrik publikatuko dira lehen foruen bilketetan agertzen ziren erakundeak eta ohituzako edukina erabat baztertuko da. Eranskin hauek, izenak berak dioskunez, kode bakarraren bidean ematen diren pauso hutsak dira, zuzenbide pribatu foralen desagertze-prozesuko urrats latzak; c) Foruen aplikaziorako era-kundeak ez dira esistitzen. Hego Euskal Herriko legegintzarako botereek (Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Batzar Nagusiak eta Nafarroako Gorteak) ez dute ez esistentziarik ez botererek. Horrela, berriztatzeko iturbururik eta aplikatzeko tribunalik gabe, zuzenbide hau, kode nazional eta bakarraren aurrean, fosiltzeko arrisku gorrian dago; d) sozio-ekonomiaren aldetik, XIX. mendea de Hego Euskal Herriaren aldaketa dakar. Eta industrializazio-rako bidetik doan burgeseria liberalak (Bilbon eta Donostian), askotan Foruen aldekoa izanik ere, kodegintza onartuko du Espainiako merkatuaren batasun juridiko eta ekonomikoa lortzeko. Horrela Foruek kanpotiko erasoak ez-ezik barnekoak ere jasan beharko dituzte: ezaguna da, Bizkaitik burdina ateratzeko debeku forala sistematikoki hausten zela, Bilboko aberastasunaren iturria zen burdina bai Espainiara bai erbestera exportatzenean.

III. XX. MENDEA

Eranskinak

Espainiako kode bakarrerako oinarrigintzarako legearen ondorioz, laster hasten dira, eskualde foral guztietan, «Eranskinak» antolatzeko batzorde bereziak osatzen. Bizkaian bat eratuko da Arabako eta Bizkaiko ordezkariekin batera. Gipuzkoa, zuzenbide pribatuzko foru idatzirik ez zuenez, ez zen probintzia foraltzat hartu eta prozesutik at gelditu zen. Nafarroan, aldiz, beste batzorde bat eratu zen honetarako. Bizkaiko eta Nafarroako projekturik importanteenak 1900ean aurkeztu ziren. Bizkaikoa, haistik, ez zen oso zoriontsua, bertan bilduta bait zegoen Bizkaiko zuzenbide pribatu idatzia, baina ez herriak egunero bizitzen zuena.

Dena dela, projektu bi hauek ez ziren onartu eta ez ziren «Eranskin» izatera heldu.

Horregatik, Errepublika-garaia etorri zenean, Hego Euskal Herriko zuzenbide pribatuak bere egoeran zirauen, «Eranskin»etan sartu gabe. Baino Errepublikaren etortzearekin batera, zuzenbide pribatuaarentzat nobedadeak ere hasten dira. Iza ere, puntu honetan, joera arras diferentea izango du Errepublikako Konstituzioak. Alde batetik, bere 1. artikuluan esaten digunez,

La República constituye un estado integral, compatible con la Autonomía de los Municipios y las Regiones.

Eta geroago, 15. artikuluan:

Corresponde al Estado español la legislación y podrá corresponder a las regiones autónomas la ejecución, en la medida de su capacidad política, a juicio de las Cortes sobre las siguientes materias:

1.º Legislación penal, social, mercantil y procesal y en cuanto a la legislación civil la forma de los matrimonios, la ordenación de los Registros e Hipotecas, las bases de las obligaciones contractuales y la regulación de los Estatutos personal, real y formal para coordinar la aplicación y resolver los conflictos entre las distintas legislaciones civiles de España.

Beraz, azken konpetentzia hauek kenduz gero, eta zeharkako era batetan, legeria zibilari dagozkion beste konpetentziak errege autonomoei pasatzen zaizkie, legeria zibil forala dutenei behintzat.

Gerraurreko eta gerra osteko saialdiak

Badirudi, azalean behintzat, Eranskinen ideia alboratu egin dela, are gehiago 1925ean agertutako Eranskin bakarrak, Aragoakoak, izan zuen kritika ikusirik. Dena dela eta formula honen barnean, anitz gauzaren gaineko konpetentzia ematen zaio Estatutuari, zuzenbide zibilaren oinarriak horren eskuetan gelditzen direlarik. Honela, berriro, bidea irekitzen zaio zuzenbide pribatu foralari, baina «irekitasun» hori mugatua da eta, noski, Kode Zibilaren batasuna perilean jarri gabe. Horregatik, Konstituzio hau betetzeko publikatu ziren bi Estatutuetan formula berbera jarraitu zen. Hara zer esaten den Kataluniakoan, 2. artikuluan:

Corresponde a la Generalidad la legislación exclusiva en materia civil, salvo lo dispuesto en el artículo 15, 1 de la Constitución y la administración que le esté plenamente atribuida en este Estatuto.

Euskadikoan ere (Nafarroaz beste hiru probintzietakoan) honako hau irakur daiteke 2. artikuluan:

Corresponde a la competencia del País Vasco, de acuerdo con los artículos 16 y 17 de la Constitución de la República, la legislación exclusiva y la ejecución directa en las materias siguientes: (...) B) Legislación civil en general, incluso en las materias reguladas actualmente por el derecho foral, escrito o consuetudinario, y el Registro Civil. Todo ello con las limitaciones establecidas en el número 1.^º del artículo 15 de la Constitución.

Euskadiko kasuan hiru probintzietako zuzenbide forala bakanrik hartzen da kontutan, eta ez Nafarroakoa. Dena dela, formula hau katalana baino egokiagoa da gure ustez, zeren, zuzenbide idatziaz gainera, kontutan hartzen bait du euskal zuzenbide pribatuaren oso importantea den zuzenbide ohitura zko. Hala ere, zuzenbide foralak descentralizatorako bidean jarri zituzten formula hauek ezin izan ziren inoiz bete, Kataluniakoa izan ezik, gerra zibilaren poderioz, eta praktikan ez zuten aldaketarik ekarri zuzenbide foralekiko joeran.

Gerra ostean berriro hasten dira zuzenbide foralen problemak. Aragoako Eranskina kritikagarria izan bazeen askoz kritikagariagoa zen zuzenbide hauen egoera. Horregatik, 1946an, kongresu bat ospatu zen Zaragozan gai honi buruz. Kongresuaren ondorioak hauek izan ziren: 1) Zuzenbide foralen errealitatea eta legitimitatea onartzen da, baina zuzenbide nazionalaren parte diren aldetik soilki; 2) eranskinen sistema erabat baztertzen da; 3) azken irtenbide bezala, Zuzenbide Zibilaren «Kode Orokorraren» proposatzen da. Haatik, zuzenbide foralen estudio eta konpilazioak egin beharko dira aldi luze batetan Kode Orokorrari begira.

Argi ikusten denez, planteamendu honen funtsean kode bakar eta nazionalaren ideia dago eta zuzenbide foralatik Kode Orokorrerako probetxagarri diren erakundeak hartzen dira soilki. Honela, behin eta berriro zuzenbide foral honen edukina murrizten ari da.

Bizkaiko eta Nafarroako Konpilazioak

Laster, eta dekretuz izendatutako batzorde batek eginda, Bizkaiko Konpilazioa agertzen da, 1959ko Ekainaren 30ean hain zuzen. Konpilazioaren hitzaurrean zera esaten da:

La idea que preside esta obra es la de llegar a través de una ordenación y sistemática compilación de la tradición jurídica y del conocimiento, certeza y comunicación de los distintos derechos hispánicos, al estudio y redacción de un Código Civil general... Para encaminar de un modo entrañable y científico hacia la realización e integración de lo nacional...

Bai hitzaurrea bai edukina (oinetxekotasuna, oinordekotasuna, ordeinu-motak, ezkontz erregimena) kontutan harturik, bi gauza nabari daitezke konpilazio honen baitan: 1) Zaragozako Kongresuko politikari jarraitzen zaio, Kongresu horren fruitua da eta Espainiako Kode nazionalaren ildotik doa; 2) edukinaren aldetik ondo azaltzen denez, baserrira eta leinuko ondasunetara norabidatua dago, baserrria eta horko bizimodua zaintzeko asmoz.

Hala bada, konklusio gisa zera esan dezakegu: Konpilazioan bertan ez dela agertzen Bizkaian bizirik dagoen zuzenbide osoa eta erakunde batzu, testamentu amankomunatua adibidez, ez direla onartzen Kode Zibilaren eraginez. Beraz, legea den aldetik indarrean iraun arren, teknika legislatiboaren aldetik kritikagarria da Konpilazio hau, presaz egin zelako eta funtsezko arazoak konpondu ez zituelako.

Euskal Herriarentzat bigarren pauso Nafarroako Konpilazioa izango da. Lege Paktatuak ematen zion legegintzarako autonomi apurrari esker, gauzak beste era batera egin ziren Nafarroan eta bertako zuzenbide pribatu forala oreka handiagoz kodetu zen. Dena dela, eta ezaguna den prozesu batetan, «nafartasuna» defendatzen dutenen eskuetan gelditu zen arazo hau eta 1973an publikaturiko Konpilazioan bi puntu hauek ikusten ditugu: 1) Onartzeako sistema. Aurreprojektua egin eta gero, Francok onartu zuen berari 1938 eta 1939ko legeek emandako legegintzarako botereari esker. Beraz, sistema oso berezia erabili zen; 2) edukinaren aldetik, Konpilazio hau Nafarroako klase eta sektore konkretu batzuren emaitza zen, hain zuzen ere nafartasuna eta kontserbadorismoa defendatu zutenen fruitua eta, noski, askotan gehiegizko irtenbideetan jausi ziren beren «nafartasuna» defendatu nahirik.

Honela, Nafarroako zuzenbide pribatua kodetua gelditu zen, baina diferentzia batekin: nafarrek, beren autonomi apurrari esker, Kode Zibileko puntu batzu (adin-nagusitasuna eta emazteen eskubideak, esaterako) Nafarroan era berezian aplikatzea lortuko dute Madrileko konbenio baten bidez.

IV. ESPAINIAKO AZKEN KONSTITUZIOA

1978ko Konstituzioa

Monarkiarekin eta erregimen berriarekin datozkigun berritan sunen artean, konstituzio berria dago. 1978an publikatzen da eta zuzenbide pribatuari buruzko formula pittin bat aldatzen du. Honela diosku 149. artikuluan:

El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

(...)

8.^º Legislación civil sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales y especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los Registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del Derecho, con respecto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial.

Formula hau Bigarren Errepublikako formularen parean jartzen badugu, alde handirik ez dagoela ikusten dugu. Haatik, nota bi daude hemen, Bigarren Errepublikako formulan hain zehazki agertzen ez zirenak: 1) Alde batetik, indarrean dirauen zuzenbide pribatu forala onartzen da bakarrik («allí donde existan»). Zuzenbide pribatu hau, noski, Konpilazioan agertzen dena izango da. Beste Komunitate Autonomo guztiak zuzenbide zibil orokorra dute. Alde honetatik Gipuzkoako ohiturazko zuzenbide pribatu foralari bidea ixten zaio, idatzi gabe dagoenez. 2) Konstituzioko artikulo horrek («conservación, modificación y desarrollo») konpetentzia ematen dio Komunitate Autonomoari. Beraz, badirudi kode orokorraren ideia baztertu egin dela, Komunitate Autonomoaren eskuan uzten bait da zuzenbide horiek aitzinarazteko ahalmena. Baina formula honen bigarren partean betiko mugak agertzen dira, batez ere Estatuko zuzenbide zibilarekiko harremannak erregulatzen dituzten arauen eta beste konpetentziengatik artean erreserbak egiten dituenean. Bestalde, oso formula mugagabea da honela dioena: «El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: (...) determinación de las fuentes del Derecho, con respecto, en este último caso, a las normas del derecho foral o especial». Beraz, eta kasurako Bizkaiko Konpilazioan

zuzenbide foralaren iturburuuen finkapena agertzen ez denez, nori dagokio konpetentzia hori, euskal parlamentuari ala Estatuari?

Euskadiko Estatutua eta Nafarroako Hobekuntz Legea

Konstituzio honen menpean argitara eman diren estatutuen artean, Euskadikoa eta Nafarroakoa interesatzen zaizkigu guri. Beti bezala, banaturik gelditu den Euskal Herri honetan, batasunaren ideia galdu egin da.

Euskadiko Estatutuan, 10. artikuluan, zera esaten zaigu:

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko galei dago-kienean konpetentzia exclusiboa du:

5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta bereziaren —idatzia nahiz ohizkoaren— kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarra-en lurralte-barrutiaren finkapena ere.

Hau ikusirik, ondoko ezaugarriak berez ditzakegu formula honetan:

a) «Kontserbazio, aldatze eta bilakaera». Formula oso irekia eta zabala da eta kontutan hartzen badugu Kataluniako eta Gali-zako Estatutuetan agertzen diren formulak oso antzekoak direla, konklusio gisa ideia hau atera dezakegu: Konstituzioak eta Estatutuek irekitako bideak Konpilazioen joeraren aldaketa suspozatzen du. Beraz, legeria zibilaren filosofiaren aldaketa dakar berekin, baita beraren erreforma ere.

b) «Herrialde Historikoren Zuzenbide (...) idatzia nahiz ohizkoaren». Plurala erabiltzen denez («Herrialde Historikoen») eta ohiturazko zuzenbidea ere kontutan hartzen denez, badirudi Gipuzkoaren kasua ezin dela kanpoan utzi euskal Estatutuaren araber —eta Konstituzioaren kontra. Bestetik, euskal zuzenbide pribatuak ohiturak duen importantzia onartzen da.

c) «Beraren indarraren lurralte-barrutiaren finkapena». Azken hau, Bizkaian bereziki, garrantzi handiko arazoa da. Izan ere, orain arte izan diren eztabaideak, Bizkaiko zuzenbide foralaren lurraldetasuna finkatzeko, hemendik aurrera, eta formula honek dioskunez, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren eskuetan gelditzen da.

Nafarroako Hobekuntz Legearen aurreprojektuan honela esaten da:

Art. 48. 1. Navarra tiene competencia exclusiva en materia de Derecho Civil Foral.

2. La conservación, modificación y desarrollo de la vigente Compilación del Derecho Civil Foral o Fuero Nuevo de Navarra se llevará a cabo en su caso mediante ley foral.

Formula hau, Euskadiko Estatutukoaren antzekoa izanik, kasu bietan lejeria foral hauek aplikatzeko beharrezko diren Tribunalen konpetentziekin osatzen da. Euskadiri dagokionez,

Euskal Herriko jurisdikzio organoen konpetentzia ondoko haue-tara hedatzen da: a) Zibil mailan instantzia eta gradu guztie-tara, Euskadiko Zuzenbide Zibil Foralaren gaietan kasazio eta berrikusketazko errekurtoak barne direlarik (14. art.).

Eta Nafarroan,

La competencia de los órganos jurisdiccionales radicados en Navarra se extiende: A) En el orden civil a todas las ins-tancias y grados, incluidos los recursos de casación y re-visión en las materias de Derecho Civil Foral de Navarra (Art. 61).

Honela, eta teorikoki behintzat, zuzenbide pribatu foral honen iturburuak eta erakunde aplikatzaleak bertokoak eskuetan geldi-tzen dira. Honi eransten badiogu, Euskadik eta Nafarroak arazo honen gainean duten legegintzarako boterea, egungo lejeria zibil eta foralaren egoera azalduta dago.

Baina, zoritzarrez, egoera hau, teorian hain ona izanik, praktikan ez da hain gozoa. Ikus ditzagun jarraian, lejeria foral eta pribatu honen gainean jokatzen ari diren faktoreak, ondoko gogoe-tekin amaitzeko.

V. ETORKIZUNARI BEGIRA

Euskadik eta Nafarroak lejeria zibilari buruz duten ahalmena zabala izanik ere, ez ditu konpontzen zuzenbide foral horiek plan-teatzen dituzten problema guztiak. Hemen parte-hartzen duten faktoreak hauek dira:

1. Espainiako Kode orokor eta nazionalera bideratuak gau-de, eta ideia hori ez da inola ere desagertu. Gainera, nazioarteko zuzenbide pribatuau dauzkagun joera uniformatzaleak ikusirik (hala nola, ondasunen trafikoan, merkatal zuzenbidean etab.), arlo horiek zuzenbide foralarentzat erabat galdurik daudela esan de-zakegu.

2. Espainiako Konstituzioak irekitako bidea arrisku gorrian dago, legegintzarako autonomiari dagokionez, LOAParen onarpe-naren ondorioz. Lege honek, funtsean, bere lehenengo bost arti-

kuluetan Estatuaren kontrola suposatzen du, Komunitate Autonomoen konpetentzia exklusiboak ere barne direlarik.

3. Gainera, eta zehazkiago, zuzenbide foral honen mugatasunek, edukinaren nahiz lurraldetasunaren aldetikoek, beroren hedadura gutxitzen dute. Horretaz gain, gizarte baserritar batil lotua dagoen aldetik, zuzenbide foral honek ez ditu sartzen bere baitan Espanian eta Europan gertatzen arl diren aldakuntza juridikoak. Honela, esaterako, Espaniako azken Kode Zibileko aldaketak eta bereziki ezkontz erregimenari buruzkoak ez dira onartu Bizkaian, eta horko herrialde foraletan ezin alda daiteke ezkontzako ondare-erregimena, senar-emazteen ondasunen separaziora ailegatzeko. Horrela, herrialde foraletan bizi diren separatu eta dibortziatu askori beren egoera erregulartzeko bidea hersten zaie.

Horregatik, eta konklusio gisa, Euskadiko Estatutuak eta Nafarroako Foruaren Hobekuntzak ematen duten ahalmena desarrilatzeko hauxe eskatuko genieke Euskadiko (hemen zerbait eginda dagoelakoan gaude) eta Nafarroako parlamentueli: era dezentela lehenbailehen bakoitzak bere batzordea zuzenbide pribatu foralaren kontserbazio, aldatze eta bilakaerarako, batzorde horiek, zeinek bere parlamentuaren aurrean, beren projektuak aurkez ditzaten. Projektu hauek, ordea, egiazkoak izan behar dute, betidaniko euskal zuzenbide pribatu forala beren baitan daramatenak, zuzenbide bizian oinarrituak eta beharrezko estudio eta azterketak egin ondoren burutuak; horrela helduko da euskal zuzenbide pribatua, Nafarroakoa nahiz beste hiru probintzietakoa, egun ohitura den maila juridikora.

A. U.

XVIII. mendeko lirika herrikoia

Jon Kortazar

1. GENERO BATEN AURREAN?

Erromantzeen lana egitean, horien eta XVIII. mendeko lirikaren arteko desberdintasunez konturatu nintzen¹. Horregatik, erromantzeen lanarekin hain lotua dagoen bigarren honetan, lirika zuberotarrari buruz ihardun nahi nuke.

Eta hasteko, nahiko azalekoa den puntu bat: erromantzeen definizioa, alegia. Orain artean ez gara definiziota sartu: argi dago sistema baten aurrean aurkitzen garela erromantzeetaz mintzatzeko orduan; baina ez ote gara bigarren sistema baten aurrean aurkituko XVIII. mendeko lirikaz hitz egitean?

Erromantzeen definizio baterako, hiru-lau ezaugarri hartzen dira kontutan, gaztelerazkoetan behintzat: 1) antzinako epikatik etortzea; 2) XV, XVI eta XVII. mendeetan sortuak izatea; 3) metrikan era jakin batzuk izatea (8+8 silaba, puntu bokalikoa ahaldirik eza); eta 4) amaieran bapatean etetea.

Baina definizio honetako puntu guztiak betetzen ez dituen eta erromantze deitzen den lan poetikorik ere bada J. M. Lekuonak erromantze generoaren barnean sartzen du XVIII. mendeko lirika; horrela azpi-irakurtzen da behintzat haren «Euskal erromantzeen atarian»² artikuluaren sailkapenen batean³. Kontzeptio historiko-ebolutiboa nabari da artikulu osoan: J. M. Lekuonarentzat, herri-poesiak bilakaera hau izan du: epikan hasi zen eta, mendeen buruan, lirikan amaitzen du. Espreski hala esaten ez badu ere,

goian genioena baiezatzen dute herri-literaturan markatzen dituen hiru aroek. Ikus haren sailkapena: 1. Eredu epikoen joerakoak: (XV-XVI). 2. Eredu epiko-lirikoen joerakoak (XVII). 3. Eredu lirikoen joerakoak (XVIII).

Honetako planteamentu ebolutiboa, Lafittek ere defendatzen du. Baino, egia esan, bigarren kriterio bat jarraitzen duelarik: Lekuonak gai-edo genero-kriterioak erabiltzen dituen artean, Lafittek formalak darabiltza:

«Literatura moduez gauza bera erranen dugu: zenbait kantu **ipuin** itxuran emanak dira; bertze asko **bakar hizketan** moduan, alegia norbait bere buruaz bere buruari mintzo; batzuetan **maitalea bere maiteari** mintzatzen zaio, hunen erantzunik gabe; gehienetan **elkar-hizketak** dira gizon gaztearen eta neskatxaren artean, bakotxa berzearen zinezko amodiaoz segurtatu beharrez»⁴.

Beraz, hemen ere hipotesi historikoa jarraitzen da, narratistik elkarriketara iraganez. Prozesu hau, gutti gorabehera, eboluzio historikoarekin parekatzen da. XV-XVI. mendeetako erromantzeak narrazioan oinarritzen badira, denbora pasa ala, elkarriketarako joera nabaria izango dute. Egia da, hala ere, kriterio biak ez datozela bat, konplexuagoa dela problema: XV. mendekoak ez dira narrazio huts, elkarriketa huts ez diren bezala. Kuriosoki prozesu bera eman da erdal erromantzeetan ere⁵. Eta kasu honetan erdibidea aukeratu izan da, kriterio historikoa jarraituz. Erromantze zerbait egin beharko genukeela uste dut. Egia da XVIII. mendeko lirikak zerikusi handiak dituela erromantzeekin⁶, poesia herrikoiaren sistemak bietan funtzionatzen du eta. Baino desberdintasunak, gai-desberdintasunak batez ere, hain haundiak izanik, erdibidea proposatuko nuke puntu honetan: izenez behintzat, erromantzeak eta XVIII. mendeko lirika gauza desberdin bezala onartu, jakinik ere herri-lirika direla biak, ezaugarri-berdin-goak (estiloaren aldetik nabariagoak) ere badituztela.

2. AZTERGAIA

Lan honen **corpus**-aren bila, A. Onaindiaren **Milla euskal Olerki Eder**⁷ (MEDE) antologiara jo dugu berriro ere, textuak erabiltzeko ematen duen erreztasunagatik. Erosoa da, arrazoi bigatik: olerki-multzo haundiak bildu duelako, eta iturri desberdinak erabiltzen dituelako. Leialtasun ortografikoaren aldetik arazoak planteatzen dira, baina ez dago horretan aldakuntza haundiak egin beharrik.

«Maite-Leloak» atala aukeratu dugu azterketaren gaitzat, 18.ean hasi eta 72. olerkiraino. Olerki bakoitzak zenbaki bat darama izenburuaren aurrean eta, olerkiak aipatzeko, zenbaki hori dugu. Beraz, zitaren aurrean doan zenbakiak, antologian zenbaki bera daraman poemara bidaltzen gaitu: izenburuak (hainbeste izanik) arazoren bat edo beste planteatuko lukeelako onartu dugu sistema hau.

2.1. Gaiak.

Gaia dugu, agian, genero hau erromantzeetatik bereizteko lehen erizpidea. Hainbatek ikusi duenez, maite-olerkiak ditugu; ez bakarrik hori, ordea. Maítaleen harremanetako une berezi battean gertatzen dira.

- 1) Agur-kanta bezala kontsidera ditzakegu batzuk. Momentu baten mutilik agur egingo dio neskatoari, normalean hau bakarrik geratuz.
Sineste-kantak edo fideltasunaren kantak ditugu besteak. Esan nahi da, maitasunak aurrera egin baino lehen, maitaleek alto egingo dute, elkarri beren benetako sentimenduak itaunduz.
- 2) Bigarren, berezia dela esan behar aitaren presentzia: Mai-taleak elkartzeko oztopoa da. Oso erabilia da, «aitak ez nau zurekin batzen uzten», topiko bezala. Ez da hemen matriarkalismoaren aztarnarik geratzen; aita bihurtu zai-gu frustazio-arrazoi.
- 3) Frustazioak, beraz, edo hobe gaiaren tentsioa, nahi eta ezinarekin zerikusia du. Nahi izatea, askotan betetzen ez den elkar-bizitza izango litzateke. Baino ahaztuta geratu da erromantzeen tragikotasuna: desagertu egin dira haietako heriotzak.
- 4) Erromantzeetako hirukotean (maitasuna, sexoa, bortxakerria), desagertu gabe, leundi egin zaigu hirugarren hau. Ez dira pertsonaiak desagertu, lehenbiziko bien zeregina indartu egin dela baina esan behar. Sexualitatearen agerpenak askoz ere argiagoak izango ditugu.
Zera esaten genuen lehenago alpatutako artikuluan: XVII. mendeko poemak, serie guztian ideologizatuenak zirela: birjinitateari buruzko aipamenak eta aholkuak oso argiak ziren. Birjinitatearen gaia iritsi egiten da XVIII. mendeko poesia honetara. Gaiak beraz, puntu bereziago batzuk ditu

kasu honetan: maitasuna eta sexualitatea batera agertzen dira, eta, maitaleek ezkontzerik izango ez badute ere, hori ez zaio oztopo izango elkarrekin batzeko:

40 — Desir nuke bi seme.

- 5) Frustazioak maitasunari buruzko ideia berezi batzuk sortuko dizkigu, maitasunaren negatibotasunarekin zerikusia dutenak, hain zuzen. Maitasun erromantikoaren aurrean, pena ere ikaragarria izango da.
- 6) Bainan maitasuna lortzeko habila izan beharra ere badago; beste gabe, xamurtasuna izango dugu textuaren tonurik argiena: Puntu hau, ordea, beherago aztertuko dugu.

2.2. Egitura.

Egiturez esatekorik gutti dugu, ez dago arazo haundirik eta. Puntu nagusi bezala, narrazioaren proportzioa baxua dugula, esan behar, batez ere elkarritzetak ditugula poemetan.

Baina elkarritzetaren planteamendua ez dugu nahiko izango, zeren, kasu batzueta, narrazioren bat edo beste bai bait dugu: hemen ere, narrazioak lehen pertsonan kontatuak ditugu, ordea, argi eta garbi; piloka aurki daitezke adibideak.

Beraz, elkarritzeta soilak dauzkagu, batetik eta, bestetik, elkarritzeta nagusi delarik, lehen pertsonan egindako narrazio txikiren bat dutenak.

Dena dena, aipatu beharra dago «bihurrera-teknika» erabiltzen dela elkarritzetan. Ez dakit izena ongi datorkionentz, baina honela deskriba daiteke horko teknika: elkarritzetaren partaideetako batek, besteak lehenago esandakoa erabiltzen du bere diskurtsoa hasteko: (23,24/33/35/37/38/41/44/45/51). Teknika berezia da, errepikek bitartez expresibitatea lortzen duelako, eta poema borobiltasunaren joera geldoan gerarazten duelako.

3. ESTILO-ARAZOAK

Teknikak direla eta, puntu batzuk oso interesarriak iruditzen zaizkigu, arlo honetan desberdintasun nabarienak bait ditugu.

Hasteko:

—Amaiera askoz ere argiago agertuko zaigu genero honetan. Erromantzeen ezaugarria hauxe genuen: amaierarik ez finkatzean;

irakurlea aske geratzen zen bere interpretazioa emateko, une berean ausnartzea eta partehartzea eskatzen zitzaiolarik honi.

—Guzti hau ahuldu egingo zaigu XVIII. mendeko literaturaren **argumentuak** argiagoak izango ditugunez. Beraz, gure partehartzea ere mugatuagoa: beti geratuko zaigu itaunen bat, egiteko prest bagaude —eta zer gertatuko zaio maitaleari?—, baina itaunak ez du, erromantzeetan bezala, gaiarekin zerikusi haundia duen, eta gaia bera alda dezakeen indarrik. Gaiaren problema ondo buztartua dago generalean: esan nahi dugu, gaiaren arlo bakarra hartu egiten da eta, egitura-arloan ikusi dugunez, gai hori lotu egiten da, bihurrera-teknikaren bitartez.

—**Gaiaren lirikotasuna** askoz ere markatuagoa da XVIII. mendean: lirismoa dugu generorik erabiliena, ez dugu jadanik narrazio zabalik. Baina, bestalde, elkarrizketa nagusitu egiten da zuzentasunean irabaziz.

—Dena dela, **sinbolizazio-joera** dugu aldaketarik haundiengoa, nire ustez. Joera honek nolabaiteko hieratismoa sortu du pertsonaiengana. Zerbaitekin konparatu behar, eta pintura erromanikoaren konparatuko nuke: pertsonaia guztiak joera berdinez, sistema ezagunez deskribatzen dira. Egia esan, badira honetan tendentzi bi: batak, metaforaren bitartez sinbolizatzeko joera du; bigarrenak, arruntasun eta arketipoetara jotzen du.

Lehen tendentzia hori dugu, lehenik Peillenek eta Haritschelharrek gero⁸ azaldu digitena; horiei jarraituz, lau metaforaren bidez azaltzen dela esan dezakegu neskatxaren irudia:

1) **Izarra:** urrun dugun maitalea, lortu-ezina: neskatxa urrun dago eta ez dio maitaleari kasurik egingo. Maitasun esperantzabageak «neskatxa-izarra»rekin lotzen dira, edo, izarrik ezean, eguzkiarekin.

2) **Lorea:** sinbolo honen bitartez aipatzen den neskatza mai-tasun humanoagoz ikusia dago. Lorea atzeman dezakegu: haragizkoa da, ez soil argizkoa.

3) **Txoria:** sinbolo honen bitartez aipatzen den neskatxa ma-ituen dute poemek. Txoria bada neskatxa, mutila ehiztaria izango da: haren iturriko urak edan ostean, urruntzen den maitalea. Kasu honetan, bakarrik geratuko zaigu neskatxa. Honelako teoriak behin baino gehiagotan azaldu izan dira⁹. Dirudienez, ordea, laugarren puntu batez osatu da sinbolizazioaren bide hau:

4) **Urx'aphala:** bere lumarik ederrena galdu duen txoria, ale-gia. Kasu honetan, espreski azaltzen zaigu hirugarren puntuaren idarokitzeten zitzaina: harreman estuen agerpen eliptikoa.

Baina, ez dugu hau, ezta guttiagorik ere, sistema bakarra. Bi-garren honek estilizaziorantz jotzen du. Hasteko, pertsonaiak ez dira izenez zehazten, kasu orotan izen sintagma klitxetu baten bitartez adierazten baizik. Izen-sintagma hori «izen + izenlaguna» erakoa da. Izenak arruntak dira eta, batez ere, Haritschelharrek aipatu izan dituenak. Behin eta berriro erabiliaz, klitxeturik geratu dira, nahiz eta ahalmen ebokatzailea haundikoak izan.

Honelako poesiak, horregatik, joera ebokatzailea indartzeko beste expresabide batzuk bilatu, eta aurkitu, ditu. Baliajideak nahiko desberdinak direnez, banaka aztertuko ditugu.

a) **Izenlaguna.** Aukera ez da zabala: ederra, ejerra, pollita, xarmangarria. Ez dira asko, egia: Soilak eta zuzenak bai, ordea. Bustiduraz hornituak, xamurtasuna adierazteko.

Borgesek honela esaten zuen behin¹⁰: «Horien errepiapena, behin eta berriro erabiltzea dela eta diot; eta **ronrad**, **waelrad** edo "baleen bidea" "itsaso" esateko erabiltzen jarraitzea; horrelakoak, edo "itsasoko zura" edo "itsasoko zaldia" esatea, "untzia"ren lekuaren». Egia da goiko metaforok ez dituela maite esaten duela; baina aipamenak beste literaturetan eta metaforak duen hieratismoa azpimarkatzen du. Geroxeago, dio berak: «Orduan ikusi nuen benetako metafora onak beti berdinak zirena. Denboraren eta bidearen, heriotzaren eta ametsaren, bizitzaren eta ametsaren konparaketa dela eta diot; horiek ditugu literaturaren metafora nagusiak, izaeraren zerbaite bati dira».

Honelakoxeak ditugu gure izenlagunak ere. Muinera jotzen dutenak, zer esan gehiagorik uzten ez dutenak.

b) Sinboloren prozesu berritzalean, beste elementu batek ere, **koloreak**, argi egingo digu: erromantzeetan ez zen kolorea erabiltzen. Hemen neskatxaren deskribapen fisikoari lotua agertzen zaigu, paralelismo liluragarria eta prosografian estilizazioa mantenduz:

- 18: begi nabarra, xuri gorri larria
- 20: biloa hori, kolorea gorri, esku larria xuri
- 30: bilo hori, narru xuri, eta begi nabarra
- 32: eper xangi gorria
- 41: xori papogorria
- 54: kolore xuri-gorri

Kolore berdinak beti, baina xinpleak, argiak, biziak; kolpean ikustekoak. Ikusten denez, badago beste sistema bat deskribatzekoan erabiltzen diren elementuetan. Biloa, begia, narrua: impresio baten muinak.

d) Izenlagunen kopurua ez da hemen agortzen; badira **bereizkuntza** markatzen dutenak. Ikusiko dugunez, nahiko arruntak dira, berezitasunik, indibidualizaziorik markatzen ez dutenak, baina sinboloa berriztatzenten dute:

- 25: ez da tipi, ez handi
- 34: xori kantatzaile
- 45: bihotz gogor, espiritu zorrotza
- 55: xori errexinula

«Kantatzaile» hitzak ez du txori erreala zehazten, baina bai lirika herrikoian agertzen diren beste txoriengandik bereizten.

e) Izenlagunekin, bukatzeko, beste posibilitate bat geratzen zaigu: bat gabe, **hainbat izenlagun** erabiltzearena:

- 37: txori kantatzaile, eder xarmangarria
jaun gazte eder.
- 54: maite polita, xarmegarri

Pilaketa-joera honen intentsifikazio-helburua, lortua dagoela uste dugu.

f) Honelakoak, ordea, ezagunak ziren erromantzeen sisteman. Hurren datozenek, berriz, beste ambiziorik dute. Badirudi irudimenaren zabaltza gertatzen dela. **Expresabide konplikatuoa** ditugu eta gusto literario baten azalpen bestalde. Dena dela, ez dago «literaturitis»-tik; esan nahi dut, xuxentasuna bilatzen da, estiloa gaiaren menpean jarriaz, eta, zorionez, expresabidea ez da bere balio hutsez erabiltzen, ez dago estilo afektaturik. Hasciera honetan, metaforek, lehenago esan dugunez, sistema honetan duten garrantzia aipatu behar. Balina metafora ez da kasu bakarra: Zabaltze horrek estiloaren muga batzuk apurtzen ditu, estilo landuago baten baliapideak direla medio; zehazkiago esan: aposizioaren, konparazioaren, singulartzearen, ekilibrio topikoaren eta «bat» numeralaren erabilera bitartez.

g) **Aposizioa**: balio adierazkorra markatzeko erabiltzen da, baina ez da honen funtzioa hor bukatzen. Lehenago frogatu dugunez (eta azterketatxo hau ez da frogatze-saiakera baino), expresabide guztiun helburu behinena pertsonaiaren identifikazioan datza, sinbolismoaren klitxe-arriskutik urrunduz:

- 33: eper xango gorria, airian joailia propia
- 33: izar maitia, iduzki eder begia¹¹

h) **Konparazioak**, bigarren expresaketa honetan loturaren fijazioa azpimarka dezakegu.

- 20: eskuko larria xuri, zilar fina dirudi
 27: ainhaba bezala
 34: hala nola ni maiteak
 54: kolore xuri-gorri, arrosa dirudi
 66: Aingeruarekin zaitut konparatzan
 66: Amodioa duzu arrosaren pare.

i) **Hiperbolea:** neskatoa maitea izendatzeko gorespen topikoa erabiltzen zen erromantzeetan, narratarioaren (irakurlegaiaren) eta pertsonaien artean distantzia lortzeko eta harengan hauenganako lilura lortzeko, batzutan, eta bitarteko bezala, erromantzeetako pertsonaien klase soziala aipatuaz.

XVIII. mendeko lirikan ez dago klase-arazorik, edo pertsonaiak klase sozial goreneari jarri beharrik. Ondorioz, arazoak (nexkataxa «mundu ororen gainetik» jarri beharrak, **prima inter pares**) beste bide batzuk aurkitu behar ditu:

- 20: beste ororen gainetik
 20: Kataluñañ ehun mando zilhar diharureki:
 hurak oro ba dituketzu.
 25: Zeruan zenbat izar, maitea, ahal da?
 Zure parerik ene begietan ez da.
 27: Itsasoa pasa niro
 zuregatik igeri
 30: Jentetan den ederrena.
 37: hora dela diote zelian ederrenik
 lurrian ikusten dit bat ederragorik.
 41: parerik ba diala ezpeitzeit iduri.
 45: Oro ejer, oro pollit zu zira, ene maitia.
 46: haren parerik ez da bertze bat munduan¹².

j) Berezi konparaketa exajeratuak baino ez ditugu baina badira beste adibide urriago batzuk. Arrarotasuna, bigarren erabil-pide honetan, sema horrek markaturik **Izenlagunen bitartez** lortzen da, adibideetan ikus dezakegunez:

- 41: ene bihotzko lili aitatia
 66: lili arraua.

Hiperbolik ez dagoela onartu beharko, baina neskatoxaren zehaztasun-funtzioa ere bete egiten da kasu honetan.

k) **Espazioaren bitartez** ere lortzen da horrelako singulartzaea:
 29: hiru uso doazi karrosa batean,
 hetarik erdikua ene bihotzean.

l) **Oreka topikoa:** neskatoa, beraz, tentsio biren arteko erdiko

puntua dugu. Orekaren kontzeptua, adibidea irakurriz batera uler dezakegu;

25: ez da tipi, ez handi, bai biren arteko.

Hemen detailea, ez detailatzerakoan sortzen da, sorpresa eta indar ebokatzailea, «bien arteko» hori oreka eta duintasuna da. Paradoxala.

m) **Bat numerala.** Lirika honetan (izenik aipatzen ez deneko honetan) maitea erdi-zalantzak geratzen da. Ezagun artean eza-guna, deskripzioaren bitartez identifika ezina, klabez aipatua, **bat** numeralak frekuentzia anormala du. Baina honelako expresabideak arazo bat planteatzen du estilistikaren aldetik: monotonia. Irtenbide bezala, joskeraren jokoa erabili da: posibilitateak bakkarak agortu dira behintzat: a) Joskera «normalak» **bat** hori izen-sintagmaren atzean jartea eskatuko luke; b) joskera normal horren haustura, numerala izen-sintagman tartekatuz lortzen da:

- | | |
|-----------------------|----|
| 21: lili bat xarmanta | b) |
| 23: lili eder bat | a) |
| 37: izar bat ederrik | b) |
| 37: txori eder bat | a) |

Olerkiak bokatibo edo elkarrizketaren deigarri bezala erabilten dituenean apelazioak, zuzenean egiten direnean deiok, **bat** numeralaren presentzia guttitu egiten da.

Sinbolismotik aparte, elaborazio literario berezi hori **liris-moaren** indartzean ere badatza. Indartze horretarako elementu literario landu batzuk erabili dira, oihartzun klasiko eta guzti.

Lirismoaren joera honetan, lehen puntu gaiaren aldetiko prezisioa dugu. Pertsonaien sentimenduak ditugu gai, eta horiexek azaltzen dira, beste forma gabe, narrazioa oso mugatua gertatzent delarik.

Baina lehen ikusi dugunez, ez da hau lirismoa indartzeko era-biltzen den expresabide bakarra. XVIII. mendeko lirika honetan dena dago lirikari begira: baliapide berriak eratzen dira edo baliapide zaharrak intensifikatzen.

Baliabide berrien artean hauek ditugu:

1) **Heriotzaren topikoa.** Maitasun hau erromantizismoaren kontzeptuan sar dezakegu. Puntu batera heltzean eta maitasunak aurrera egiten ez duenean, maitaleetariko bat heriotzara abiatzen da:

22: otoitzent zaitut hemen berian lurrez estal nazazu.

52: eztuzu profeiturik ni hola penaturik

ez eta plazerik

ni tumban sarturik

dela maitasunari indar emateko:

25: Etzaitut kitaturen tonban sar artio.

59: ez sekula, tonbareen barruen sartu artino.

dela maitaleaz trufa egiteko:

23: etzira hilen hortarik.

Heriotzaren apelazioa nahiko exageratua da. Hala ere, konkretutasunak ematen dio bere indarra. Hitza ez da agertzen, eta elipsia betetzeko berriro jotzen da zehaztasunera. Metonimia-ren erabilerak (kasu honetako metonimia, kontzeptu zehatza tonba orokorraren heriotza aldean erabiltzean datza), esaldiaren joera erretorikoa ahultzen du, expresio poetikoaren argitasuna zainduz.

Ez da, ordea, posibilitate bakarra. Beste hau, gure corpus generalaz kango dago, baina, kantua nahiko ezaguna denez eta, bestalde, tunba Etxahunek erabili duenez, ez dut transkribatu gabe geratu nahi. Olerkia «Prima eyerra»¹³ dugu, eta expresa-bidea:

desertüara
nigarrez hiltzera.

2) Konparazioak¹⁴ erabilera berria izango du. Hiru aukeratu ditugu: bik hoera herrikoi nabaria dute; hirugarrenak, berriz, joera oso klasikoa:

27: Airean ainhara bezala.

34: ... zirena deitzen den bat

hark inganarazten tizu itxasoan gaunti joaliak
hala nula ni maitenak.

Aipamen klasikotik aparte, nahiko arraroa egiten den tonu klasikoa ere aipagarria dugu, guzti hau konparazioa hiru-lau bertsotan luzatzen delarik, alegoria txiki bat osatu arte.

3) Lekuonak¹⁵ esaten duenez, poematan (salbuespenak salbuespen, cfr. 70. zb.) ez dago espazio-denboren aipamenik, dena orokortasun batean mugitzen da. Horrela dugu, egia. Bainaz ez da ahaztu behar beste matizazio hau: espazioa eta denbora elementuak balio expresiboz erabiltzen dira, denborarenak oposizio expresibo bat osatzen duelarik. Oposizioa xinplea dugu, baina nahiko adierazgarria, sinbolo bezala funtzionatzen bait du.

Hainbat poematan aipatua, **gau/egunen oposizioa** dugu. Gaua aukerako denbora da neskatzari bixita egitera joateko, eta eguna maitearen ezaguera egiteko.

Maila sinbolikoan oposaketa berezia egiten da, maitalearen barne-egoeraren eta kanpoko iluntasunaren artean:

- 26: Gabaz ilhun euria denian
bai eta ilhun euria denian
ilhun izanagatik euria denian
gogua alegra dut zureganat jitian.

Lehoa, bestalde, oso **espacio** aipatua da, gaiak eskatua izanik.

- 26: Oherat ez ba zira joan, so egizu leihora.

4) Bainan orokortasunetik irteteko, badugu beste baliapide bat: **izadiaren aipamenak**. Ia irudi poetiko hutsak ditugu, kopla zaharren teknikarekin zerikusirik dutenak.

- 21: Neguaren ondotik jiten duzu uda.
- 31: Urxo xuri pollit bat, gabaz dabilana.
- 40: Landan eder iratze
behi ederrak aretxe.
- 40: Bortu goretan lanhape
hur bazterretan ahate.
- 41: Borturik goreneta erorten elurra.
- 41: Lumarik ederrena pabuak buztanin.
- 44: Lilitan ederrena elorri zuria.
- 45: Baratzian eyer da jirofleia loratu
- 54: Mendian zoin den eder eper zango gorri.
- 59: Kaila kontuz ogi petik uztaril agorrilletan.
- 59: Kukuiak umeak xillo ttipian haritz gainean.
- 59: Primaderan zoinen eder
brioletaren loria.
- 62: Mendiak bete belarrez.
- 62: Mendian eder arbola luze lerdena.

Irudiok irudi guztiak bertuteak dituzte: sentsorialak dira, ikusi, entzun eta usaintzekoak. Bestalde, ponderatiboak ere badira: esandakoaren balioak aipatuz, «eyer, eder» izenlagunak azpimarratu egiten ditu baliook; eta, bukatzeko, irudiok erdi-sinbolo bihurtzen dira, beren objektibotasunean, konnotazio-bide bait dira. Esaldiak baieztagen borobilak dira: ez zaio irakurleari ukatzerik uzten. Bainan beren fintasunean, karga poetiko ikaragarria dute. Zehatzak izanki, irudimenezko mundu oso baterako ate dira.

Hemen agertzen diren elementuek (abere eta lili) sinbologia

berezia osatzen dutenez, interesgarria izango litzateke sistema honen azterketa pausatua, lan orokor batean ezin egin duguna¹⁶.

Baliapide honekin jarraituz, badago bariantxo bat. Kasu honetan deskripzio estuak ditugu, baina izadikoak izan beharrean, gizonaren eskutik irten diren elementuak dira.

- 19: Etxeak eder du, bai, saihetsean labe
- 29: Komentuko paretak, oi, pareta finak,
ofiziale onek dirade eginak
doblezka ba dituzte leihoetan burdinak.

3. HALA ETA GUZTIZ ERE, LIRIKA HERRIKOIA

Hala era guztiz ere, ez, baizik guztiaren gainetik lirika herrikoia. Hauxe du eta bere azken sena. Puntu honetan batera datorrak XVIII. mendeko lirikak eta beste lirika batzuk. Orain aztertuko ditugun baliapideak Espainiako erromantzeetan ere agertzen zaizkigu¹⁷.

1) **Puntuak** ez du poesia honetan garrantzi haundirik izaten. Ximplea izan ohi da; askotan pobrea, atzizki bati lotua. Bainan puntuan baliorik ez badago, aliterazioak¹⁸ (konpentsazio bezala edo) ikaragarri nagusituko dira. Aliterazioa expresabide klabea dugu, poemaren musicalitatea indartzen bait du. Musicalitateak badu zerikusirik poema oriomenean gordetzeko erraztasunarekin, baina, hemen expresabide estilistiko bezala interesatzen zaigu: hain zuzen, poemaren balio artistikoa indartzen duen neurrian. Adibideak ugariak diren arren bat alpatuko dugu:

- 54: Mendian zoin den eder eper zango gorri

Bertso honetan hiru edo lau aliterazio behintzat baditugu: horzkariek egiten dutena: den — eder; leherkariena: zango gorri; sudurkariena: Mendian zoin den; urkariena: eder eper; eta, azkenik, garrantzitsuen, bokalikoa, e-reñen errepikapenez lortua: den eder eper. Hainbat errekuartsorekin bertsoak irakurtzearen sensitibitatearen ondoraino heldu behar!

2) Nahiko orokorra den bigarren topiko bat ere aipatzeko dugu: **zenbakia topikoa**. Lirika herrikoi honetan, zenbakiok ditugu: hiru, zazpi eta zortzi.

- 29: hiru uso doazi karrosa batean

Zazpi zenbakia mitikoa gehiagotan aipatzen zaigu (24. eta 33. poemak), baina guk zortzi zenbakiarekin batera agertzen den adibidea aukeratu dugu:

- 29: Zazpi eihera ba-ditut erreka batean,
zortzigarrena aldiz etxe saihetsean.

Zortzi zenbakiak, hor, erromantzeetan bezalatsu, balio indartzailea du.

3) **Parallelismoak** ere aipagarriak dira honelako joera berezian:

- 18: munduan den ederrena zelian ekia
lurreko anderetan oi, ene maitea.
18: begia duzu nabarra / xuri gorri larria.

Terminoak balio expresiboz aldatu egin dira: «nabarra» bigarren aldean, «xuri gorri» lehenengoan.

- 29: Zazpi eihera ba-ditut erreka batean
zortzigarrena aldiz etxe saihetsean
40: Apezak dira Espanian
bereterrak Erruman.
40: Aita dizut hil berri
amak eztizu urt'erdi
52: Bortiak xuri dira elur direnian
sasiak ere ilun osto dienian.
62: Mendiak bete belarrez, begitartiak nigarrez

Ezin uka genezake parallelismoen joera ezaguna izan dela erromantzeetan. Lirika horretan, ordea, indartu eta ugaritu egin da expresabide honen erabilera. Indartu, kontrajarpentan sintaktikoarekin nahastu bait da parallelismoa.

4) **Errepikapena**, parallelismoarekin oso loturik dagoen beste expresabide bat dugu. Orokorki, bertso-erdia errepikatzen da, ez osoa¹⁹, bigarren honek problemak bait dakartzera errimaren aldetik, potoa izango litzateke eta, errimak, esan dugunez, garrantzi haundirik izan ez arren²⁰. Dena dela, badira errepikapenak estrofa desberdin biren artean: ikus 20. poema.

Errepikapenok era desberdinak dira:

a) Joskerazkoa: esaldi osoa berresanaz:

- 19: argi egidazu (I, IV. bertsoetan)
20: Katalunan ehun mando bere zilar kargeki
60: Libertatia zoin eder den

b) Semantikoa: hitza (nahiz izen-sintagma) errepikatuz:

- 33: otoi, otoi
57: urxo xuria, urxo zuria
60: zeren? zeren?
64: Ez, ez, ez

c) Errepikapenok, aldakuntza txikiren batekin ere agertzen dira. Normalean, pertsona gramatikalaren aldaketan datza:

- 20: Nik ba ditut milla ardi...
 Ba duzia milla ardi
 33: Urh'ereztun bat ba dut nik
 Urh'ereztuna ba duzu

d) Beste kasu batean aldakuntza txikia **eta** juntagailuaren presentzia dugu:

- 21: entzunik ba duzula lili bat xarmanta
 lili bat xarmanta eta bihotz bat net (sic) ona.

Eta juntagailu honen erabilera oso aztertua dago. Baino gogora dezagun **eta-k**, neurrian ez-ezik, erritmoan ere zerikusi haundi duela: Semantikazko errepikapena apurtu eta zerbaite berri datorrenaren berriemaile dugu, batzutan intentsifikatzaile bezala ere erabilia:

- 23: Ez ahal nuzu dukia
 ez eta Aitor'en semia!

5) **Kontrajarpenak** ere garrantzi haundia dute estetika herrikoi batean. Era desberdinatan aurkitu ditzakegu.

Badira oposizio hutsak: argiena, egoera temporalaren eta barne-egoeraren arteko kontrajarpena dugu.

- 26: Ilhun izanagatik euria denian
 gogoa alegra dut zureganat jitian.

Badira besteren batzuk, argi eta garbi antonimiaren bitartez osatzen direnak:

- 27: gauak pasatzen ditut ardura
 egunak ba lire bezala.
 28: Zuk egin afrontua...
 Nik orai penak.
 37: Ene gazte lagunak libertitzen plazan
 eta ni, malerus, tristerik kanberan.
 38: Bihotzez eri nuzu, kanpoz alegra
 41: Batak dizu txapela, bestiak boneta.
 44: Maiz eraiten dautazu zuk maite nauzula
 eta jendek erasten bertzerikan dela.
 46: udan ez neguan.
 54: airea zahar eta kantore berri.

Antonimiatik at, adibideetan badira differentzian oinarritutako kontrajarpenak (37), distribuzioan oinarritutakoak (41), edo anankusia osatzen dutenak (44)²¹.

6) Gorago esan dugu, lirika herrikoia dugula hau. Eta horixe adierazten du expresabidearen **era zuzenak**, inguru-minguru gabeak.

Oso normala da bertso bakoitzean aditz bana joatea, lirika ekintzaren bitartez expresatzea:

- 70: Goazin lagun, goazin biok, goazin Atizanerat
uso xuri bat jalgitzen da Atizaneko plazarat
usoñio hora nahi nuke bildu sarrietarat.

Adibideak (bertso bakoitzean aditz bana baino gehiago da) oso argi uzten du beste giltzarri hau: ekintzak eta desioak batera azaltzea:

- 25: Zuri nuzu hersatzen, arrosa ederra,
pena gaitz honetarik nezazun atera;
baldin badut hortarik hiltzeko malurra
bazindukea bada bihotzean pena?

Aditzok erritmo berezia jartzen dute ahapaldi bakoitzean: ez da bakarrik zangalatrau falta, ahapaldi barneko egituraren zerbaite da.

7) XVIII. mendeko lirikan oso erabiliak dira **itaun erretorikoak**. Ez dakit izenlaguna ondo jarrita dagoen kasu honetan; erantzuna ez bait da argia, eta, itaunak benetako itaunak izanki, maitaleari eta irakurleari erantzunaren eske geratzen bait zaizkie.

- 19: Lotara ziradea, lotale polita?
19: zer ala zu ez zuzkate goardirik gabe?
21: Zertarako egiten duzu horrenbeste duda?
Zer uste duzu? ala haizu dela beti
gortiaren egitia prima gaztiari?

Itaun erretorikoak garrantzitsuak dira, bi erantzun posibleren zain geratzen bait gara (ez, noski, kasu guztietan). Eta itauna zabaltzeko, baldintzazko esaerak ugari agertzen zaizkigu poemetan barna.

Honelako joskerak poetika nahiko silogistikoa (zelan edo halan deitzearren) sortzen du. Esan nahi dut, silogismoaren antzera, planteamendua jarraitzen saiatzen dena; problema logikoa balitz bezala, termino biren artean aukeratzen duena, itaunari baiez nahiz ezetz esaten zaiolarik hurrengo lerroan.

- 10: Lotara ziradea, lotale polita?
Lotara ez ba zira, so'gin dazu leiora.
22: Horiek hola baldin badira, nor fidaturen zauzu?
Kanbiatu behar duzu, ni nahi balin banuzu.

- 25: ... oi bena nolako?
 Ez da ttipi, ez handi, bai bien arteko.
 26: Izar xarmangarria, oherat joan zirela?
 Oherat ez ba'zira joan, so egizu lehiora.
 33: Lehen bertzetan ibili eta orai niri gortia?
 Zoazkit begien bixtatik

Bigarren funtzi batetan deigarri hutsa dugu itaun hori:

- 19: nori zer doako?
 35: Zer eginen dut nik?
 44: zer duzu pentsatzen?

8) Bukatzeko, aipatu beharra dago aditz **etikoaren erabilera**. Erromantzeetan baino urriagoa da, hirugarren pertsonako entzulerik ez dagoenez. Entzulea, maitea, bigarren pertsona dugu («zu), eta normalagoa da ez agertzea; baina aurki dezakegu noizbehinka.

5. LABURPEN GISA

Heldu gara saiotxo honen amaierara. Hasieran aipatzen nuen arazoa berriro jarri nahi nuke paper gainean. Lan hau **Euskal lirika gortesaua-ri** jarraipen bezala burutu da, XVIII. mendeko Ipar aldeko lirika aztertz. Erromantzeen eta lirika honen artean ba dira desberdintasun argiak; argiegiak XVIII. mendeko lirika erromantzeen jarraipen edo aro historiko soila konsideratzeko.

Agian, ez dugu hau hiztegi-arazo edo sasi-intelektualen arteko debate agorra baino...

Nolanahi ere, lan honetan erromantzeen eta lirika honen arteko desberdintasunok azpimarratza izan dugu asmotan, eta oso nabariak direla ikusi dugu. Gazteleraz aspaldidanik daukate eginda bereizkuntza. Kronologiarri begiratuz, erromantze zaharrak eta berriak bereizten dituzte. Genero literarioari begiratuz, epikatik datozten lan literarioei deritzate erromantze. Lirika herrikoia, azkenik, epika izpirik ez dutenei.

J. M. Lekuonarenganako errespeto eta mirespen osoz, XVIII. mendeko lirikak baldintza biak betetzen dituela ikusten dut nik: beranduagokoa eta lirikoa da. Ez dakit izen berririk merezi dueñentz. Badakit, ostera, gauza bi direla Erromantzeak eta XVIII. mendeko lirika.

J. K.

1. KORTAZAR, Jon: «Euskal lirika gortesauari buruzko oharrak», in: **Jakin** 16, 1980, 76-90 or.

2. LEKUONA, J. M.: «Euskal erromantzeen atarian», in: **VARI**: **Euskal**

Lingüistica eta Literatura: Bide berriak, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak Bilbo, 1981, 293-319 or.

3. **op. cit.** 302-306 or.
4. LAFITTE, P.: «Amodiozko kantuak», in: VARII: **Bilintx. A los 100 años de su nacimiento**, CAM, Donostia.
5. DIAZ ROIG: «Introducción», in: **Romancero viejo**, Cátedra, Madrid, 1980.
6. Salaberrik ere izenen desberdintasuna proposatzen zuen: «romance» deituz XVIII. mendeko kantuak, eta guk erromantze ditugunetza «legend» hitza erabiliz.
- Eromantze izena ere ez dagokie oso ondo gure XV, XVI, XVIII. mendeetako olerki. Dakigunez, erromantze hitza gaztelerazkoa dugu, bal etimologiaz, bal kontzeptuz. Kontzeptuak poesien etorrera ere azaltzen du: «Cantar de Gesta» ren atalak ziren hasieran erromantzeak. Gure erromantzeek, epika izan arren, ez dute agian sorrera bera. Nere lagun Jon Juaristiri zor diot bigarren hipotesi hau.
- Jonek (olerki zelten ezagutzaile berezia berau) Europa Erdi eta Ipar Aldeko baladekin lotzen ditu, guk presuntzioz «Lirika gortesaua» deitu genituen poemak.
7. ONAINDIA, A: **Milla euskal olerki eder**, Larrea — Amorebieta, 1954, 55-95. orrialdeak erabili ditugu. Lanaren mugari lotzeko, poema batzuk ez dira kontutan hartu; zehatzago esan, alde batera utzi ditugu: 39. Izar ederrak; 42. Bortian Ahuzki; 47. Trebola baratzekoan; 48. Jinkoak dizula egun on; 49. Lurrazen pean; 50. Amodioa; 53. Ai, neure beltzarana; 56. Salbatore gora da; 65. Alargunza; 67. Zapli - zortzi.
8. HARITSCHELHAR, J.: **Le poète Souletin P. T. Etchahun (1786-1862)**. Société des Amis du Musée Basque, 1969, 281-291 or.
9. HARITSCHELHAR, J.: «Simbólica amatoria: Los nombres de la mujer amada en la canción popular vasca» in, **Estudios de Deusto**, 1972, 9-27 or.
10. PARIS REVIEW: **Conversaciones con los escritores**, Kairós, Barcelona 1980, 90 eta 97 or.
11. Aipatu beharrezkoak dira beste expresabide bereziak esaldiaren baitan: lehen adibidean, barne-errima, amaieraren errepikapena; bigarrenean, «begi» hitzaren metaforizazioa. Agian, adibide biotan aurki genezake lirika honen elaborazio literarioaren prozesua.
12. Ez lutzatearren: 52,62,66,68. poemetan era aurki daitezke adibideak.
13. SALLABERRY: **Uscal Herri maiteari**, Hordago, Donostia, 54-56 or.
14. Pertsonaiak definitzeko expresabide berri bezala aipatu dugu lehenago.
15. LEKUONA, J. M.: **op. cit.**
16. Honeako expresabideok badute ponderazioarekin zerikusírik.
17. Gure lan hau aurrera eramateko, DIAZ ROIG: «Introducción», in: **El romancero viejo**, Cátedra, Madrid, 1980, 13-37 or. ikerketaz baliatu izan gara. Begira batez ere estiloari buruzko oharrak.
18. Jakina denez, soinu bat errepikatuz sortzen den expresabideari deritz aiterazio.
19. Bada kasuren bat. Ik. poema:
 entzunik ba duzula lili bat xarmanta
 entzunik ba duzula lili bat xarmanta
 lili bat xarmanta eta ...
20. Badira salbuespenak: begira 64. poemaren 2. estrofa. Potoan jausi gabe, hurbil dabiltsan **bainiz, ainiz, bainintz, banintz**.
21. Anakrusia expresabide berezi bat dugu: kontrajarpenean bi ditugu, bakoitzaz esaldiaren alde banatan, gurutze bat eginik (adibidean, eraalten/erasten, zuk/jendek):
 Maiz eraiten dautazu zuk maite nauzula
 eta jendek erasten bertzerikan dela.

LIBURUAK

Lankide Aurrezkiaren
"El desempleo en el País Vasco"
liburuari buruz

Iñigo Garaialde

Iragan Apirilean aurkeztu zuen Lankide Aurrezkiak Euskal Herriko (LKA eta EH aurrerantzean) langabeziaz burutu duen azterketa¹. Azken lan honekin, aspaldidanik jarraitzen duen euskal ekonomiaten ikerketa bidean pauso berri bat eman du LKAko Estudio Taldeak. Euskal ekonomiaz arduratzen direnen artean arras ezagunak dira talde honen emaitzak. Alde batean, 1976tik aurrera urtero argitaratzenten duten informea eta, bestetik, zenbait gai garrantzitsuz noizbehinka agertzen dituzten azterketak izan dira fruiturik nabarmenenak. Azken hauen artean, EHko industri egituraz (1976), pagamendu balantzaz (1978) eta EEEEn sartzeak sor litzakeen ondorioez (1980) egingako lanak dira ezagunenak. Aurten, langabeziaz argitaratutako liburuak zerrenda hau luzatzen du.

Azken lan honen helburua argi dago. Liburuaren azpitituluak dioenez, langabeziari soluzioak aurkitu nahian abiatu dira egileak azterketa honetan zehar. Hitzaurrean esaten denez, lan honen arduradunei, langabeziaren egoera eta iragana aztertzeak baino gehiago, problemari eman behar zaizkion erantzunak bilatzeak eragin die. Lana hiru zati nagusitan banatua agertzen da. Lehenik, EHko langabeziaren egoera adierazten da laburki, krisialdiaren eragina aztertzuz. Hurrena, zenbait helburu lortzeko beharrezkoak liratekeen hazkunde- eta inbertsio-tasak adierazten dira. Azkenik, nazioarteko lan-zatiketaren aldakuntzak aztertzen

dira produktuaren zikloaren teoriaren bidez. Analisi honen birtarbez EHren esportazioen egoera eta perspektibak baloratzen dira, eta industri espezializazioari buruzko zenbait gomendioarekin amaitzen da lana.

Hiru zati hauen arteko loturak argi ikus daitezke. Egoeraren deskribapena eta Europarekiko konparazioak enplegu-politikaren helburuak argitzeko erabiltzen dira. Helburu horiek era-bakiz gero, beharrezko diren inbertsio- eta hazkunde-tasak kalkulatu eta, bide horretatik, politika ekonomikoaren neurriak taxutzeko esparrua muga daiteke. Hala ere, inbertsio hau zein sektore eta produktutara zuzentzea komeni den erabaki beharrean aurkitzen dira politika ekonomikoaren arduradunak. LKAk produktuaren zikloari buruz egindako azterketak lagundu ahal ditu galdera honen erantzuna bilatzerakoan.

AZTERKETAREN LABURPENA

1. Langabeziaren gaurregungo egoera

EHko desenpleguaren problemaren larritasuna bere testuin-guruan ezartzeko, krisialdiak lanindar-eskaintzan eta enpleguaren eboluzioan izan duen eragina aztertzen da lehen atal honetan. 1975. urterarte Hego EHko populazioak gorakada nabarmena izan zuen, berezko hazkundeari etorkinen efektu positiboa gaineratuz. Krisialdia hasi zenetik, populazioaren hazkunde-tasek behera jo dute, bai jaiotze-tasak erori direlako, bai migrazio-saldoek alderantziz jokatzen dutelako azken urte hauetan.

Populazioaren hazkunde-tasen murrizteak baino garrantzi handiagoa du, ordea, aktibitate-tasen beherakadak. Hego EHn, Spainian bezalatsu, krisialdiak jende asko bota du lan-merkatu deprimitu batetik at. Egoera normalean bere lanindarra eskaintzeko prest egongo liratekeen jende hauek egungo geldialdian ez dira lan-merkatuan sartzen, aktibo etsi bihurtuz. Fenomeno honek garrantzi handia du EHn. LKAren kalkuluaren arauera 93000 pertsona aurkitzen ziren kasu honetan 1980. urtean, hots, populazio aktiboaren % 9,4.

Hurrena, enpleguaren eboluzioa eta egitura aztertzen dira. Honetan ere, krisialdiaren eragina nabaria da. 1975etik 1980ra 119000 lanpostu galdu ziren Hego EHn, hauetatik 78000 industrian eta eraikuntzan. Enpleguaren uzkurdura honen ondorioa langabezi tasen gorakada izan da. Gorakada hau, nahiz eta

orokorra izan, industri eta eraikuntz sektoreetan, alde batetik, eta emakume eta gazteen artean, bestetik, nabarmendu da batez ere. Adibidez, euskal emakumeen langabezi tasa gizonezkoena baino % 50 altuagoa da. Gazteenak, berriz, tasa orokorra aise bikoizten du.

Egoera larri hau bere neurrian baloratzeko, langabetuen heren batek bakarrik jasotzen duela desenplegu-asegurua kontutan hartu beharra dago. Asegurua jasotzen dutenen proportzioa eroriz joan da azken urte hauetan, bai langabezia luzatzeko joeraren eraginez, bai eta Enpleguaren Oinarrizko Legearen aplikazioaren ondorioz.

EHko egoera hobeto juzkatzeko, LKAk Europako nazioekiko konparazioak agertzen ditu. Bertan jasotzen diren zifren arauera argi ikus daiteke EHko egoeraren larritasun berezia, aktibilitate-tasen aldetik, enpleguaren uzkurdura eta langabeziaren gorakada aldetik, edota enplegu eta Barne Produktu Gordi-naren (BPG) egitura aldetik. Europako nazioekin ezezik, Europako eskualde atzeratuenekin (Campania edo Calabriarekin, adibidez) konparatuz ere EHko egoerak lazkeria berezia era-kusten du.

2. Egoera hau gainditzeko beharrezkoa den ahalegina

Bigarren zati honetan enplegua sorterazteko beharrezko liratzeekin hazkunde- eta inbertsio-zifrak aztertzen dira. EHko 1990. urteko populazioa Bilboko Merkatal Ganbarak egindako estimazioetatik hartzen da. 1975-90 eoperako migrazio-saldoak zero balioa hartuz gero Hego EHko populazioa hiru milioi pertsonatik gora izango litzateke azken urte horretan².

Aktibilitate-tasaren eboluzioa aurrikustea ez da zeregin erraza. Horregatik, zenbait hipotesi ezberdin erabiltzen da enplegu politikaren helburu posibleak taxutzeko. Hala ere, aztertutako kasu guztietai beharrezkoa litzatekeen enplegua sortzeak ahalegin handi bat eskatzen duela argi ikusten da. Hamarkada honetarako 155000tik 207000ra lanpostu berri sortu behar dira 1980. urteko aktibilitate-tasa mantendu eta % 5-14eko langabezi tasa atxekitzeko.

Beste ikuspuntu batetik, EHko egoera Europako aktibilitate-tasa eta enplegu-egiturekin konparatuz nolako differentziak nahi diren aztertzen da. Kasu hauetan ahalegina askoz ere handia-

goa litzateke, 300-400 mila lanpostu faltako bait lirateke 1990ean EH eta Europako nazioen enplegu mailen artean.

Maila honetako enplegu-sorketa ezin espero daiteke gaurrengun ditugun ekonomiaren hazkunde-tasen bidez. Ez eta ere Koooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (OCDE) datozentz urteetarako espero dituen % 1,5-2 tasekin. 1980. urteko enpleguoa mantentzeko soilik, EHk % 3,5 hazkunde-tasak eskatzentz ditu. LKAren azterketak argitzen duen bezala, urtean % 5-6ko hazkunde-tasak beharko genitzuzke 1990ean egungo langebezi tasak mantendu ahal izateko. Argi dago tasa hauek ez direla berez sortuko.

Lana arlo interesgarri batean sartzen da ekonomiaren garapenaren eta inbertsioaren arteko erlazioak aztertzen direnean. Alde batetik, bi aldagai hauen arteko erlazioa nabarmenki aldatu da krisialdi aurretik gaurko egoerara. Horren arrazoi nagusia inbertsioaren helburu ezberdinan datza. Azken urteotan, inbertsioa ez da produkzio-ahalmena goratzeko asmoan egiten, produkzioaren konkurrigarritasuna hobetzeko asmoarekin baizik. Enpleguaren ikusgunetik, aldakuntza honen ondorioak oso latzak dira. Gaurko egoeran inbertsioak, enpleguak sortu beharrean, desagertarazi egiten ditu maiz.

Zenbait estimazioen bitartez, EHn enplegu berri bat sortzeko beharrezko den batezbesteko inbertsioa estimatzen du hurrena LKAk. Inbertsio-zifrek fidagarritasun urria dutenez hiru zifra ezberdin jasotzen dira, beren artean differentzia zabalak aurkezten dituzkenak (3,8tik 7,1 milioi pezetara lanpostu berri bat sortzeko). Zifra hauek ekonomiaren sektore bakoitzean balio ezberdinak hartzen dituztelako, eredu baten bitartez inbertsio-zifra orokorra sektorekatu egin da. 1982-90 eperako 3,9 bilioi pezeta (1980. urteko pezetak, hain zuzen) beharko lirateke % 5,5eko hazkunde-tasa lortzeko eta, bide horretatik, langabezi tasa % 10eraino jaitserazteko.

Inbertsio-zifra hauek lortzeko ahalegin handi bat beharko litzateke gaurko egoera kontutan hartuz bereziki. 1982. urterako bakarrik, 347 mila milioiko inbertsioa beharko litzateke, krisialdian sartu aurreko urteetako inbertsioa baino heren bat garaiagoa. Alde honetatik ere, ekonomiaren berezko mekanismoek ez dute posibilitate handirik helburuak betetzeko behar den inbertsioa sorterazteko.

Ondoren, EHk inbertsio horren finantzapenerako behar den aurrezki ahalmena daukan ala ez aztertzen du LKAk. Puntu ho-

netan ere, konklusioa ez da baikorregia. Hala ere, finantzaren defizita beste faktore batzuk eragindako fenomeno bat da, hazkundearen eta irabazien geldialdia hain zuen. Alde horretatik, finantzaren urritasuna ez da inbertsio murritzaren iturburu, ezaguna bait da dagoen aurrezkia bera ere ez dela guztiz inbertitzen.

Azkenik, inbertsioari begira eraikuntzak duen garrantzia aztertzen zaigu. Ekonomiari eragiteko sektore honek duen ahalmena ezaguna da eta beste zenbait ikusgunetatik ondorio mese-degarriak ditu. Adibidez, enplegua sortzeko eta beste sektoreei eragiteko ahalmen handia du eraikuntzak. Bestalde, kanpo-merkataritzan sartzen ez diren produktuak produzitzen dituelarik, eraikuntzak ez du konkurrigarritasun problema larririk aurkitzen, industriaren produktu gehienek duten moduan.

3. Industri dinamika

Azken zati hau da, agian, lanaren alderdirik interesgarriena. Kanpo-sektorearen kemenak ekonomiaren berreragiterako duen garrantzia dugu azterketa honen oinarria. Esportazioen bizkortasuna hazkundearen faktore nahitaezketzat hartzen da. Hortaz, EHren industri espezializazioa baloratzeko, nazioarteko merkatuan produktu bakoitzak dituen berezitasunak eta perspektibak aztertu beharrean gaude. LKAk produktuaren zikloaren teoria darabil azterketa hori burutzeko.

Produktuek bizi-ziklo bat dutela dio teoria honek. Hasieran produktu jaioberriak teknologi edukin handia izan ohi du eta bere kostu garaiagatik kontsumidore aberatsen merkatura zuzentzen da. Produkzioa normaltzen eta merkatua zabaltzen den erara, elkarlehiaketa handiagotuz joaten da eta, horrekin batera, prezioak erortzen benetako dermiotan behinik behin. Bigarren aldi honen berezitasunak hazkunde-tasa oso garaiak eta industrialpen zabala dira. Azkenik, berritze-prozesua mantsotuz doalarik, heldutasun fasean sartzen gara. Aldi honetan, produkzio serie luzeak ezartzen dira kostuak beheratzeko eginahaletan eta enpresa multzoa gutxitzen da. Lanindarraren koalifikapena jaitsiz doa eta kapital intentsitatea haziz, faseak gainditzen diren neurrian.

Produktuaren ziklo hau nazioarteko merkatal harremanetan ere agertzen da. Nazio aurreratuak sortzen dituzte produktu berriak eta hazkunde-fasean beraiek dira hornitzairen nagusiak.

Produktuak heldutasun fasera iristen direnean, kanpo-merkatzaren fluxuak zentzuz alderanzten dira eta nazio aurreratuak importazioetara jotzen dute produktu hauen beharra asetzeko.

Produktu bakoitzoa gaurregun zein fasetan dagoen jakiteko, LKAK nazioarteko kanpo-merkataritza aztertzen du. Analisi horretarako munduko zenbait nazio hartzen dira, hiru mailatan taldekatutik: nazio aurreratuak, tarteko mailakoak, eta industrializazio bidetan aurkitzen direnak. Talde bakoitzarentzat hiru indize aztertzen dira: espezializazio-maila, hazkunde-tasa, eta merkatal fluxuen norabidea. Hiru erizpide hauek aplikatuz produktu bakoitzaren bizi-lerro fasea argiratu daiteke. Analisi honetarako Kanpo-Merkataritzaren Nazioarteko Sailkapen Uniformea (ISIT) erabili da eta emaitzak hiru digitu maila arte zehazten dira. Guztira 136 produktu-sail aztertu dira indize hauen bitartez.

Hiru motatako produktuak bereizten dira (dinamikoak, geldikorrak eta atzerakorrak) nazio aurreratueta dituzten jokabideen arauera. Azken bi taldeetan aurkitzen diren produktuak heldutasun fasean daudela esan daiteke. Nazioarteko lan-zatiketaren aldakuntza azkarra delako, produktu heldu horien kanpo merkatal fluxuak ez dira beti modu berean aldatzen. Kasu batzutan, hornitzairen berriak erdi-mailako garapeneko nazioak dira; beste batzutan, aldiz, industrializazio bidetan daudenak; eta zenbait kasutan, bi taldeak aldi berean.

Espero zitekeen bezala, EHko esportazioei begiratuz, zikloaren erdiko fasean dauden produktuak agertzen dira nagusi. Hortaz, nazio aurreratu eta erdi-mailakoetara zuzentzen da euskal esportazioen gehiengoa (hiru laurden, gutxi gora-behera).

Bigarren erizpide bezala, produktu bakoitzaren teknologi zaitasuna dugu. Produktu sailketa EEEk egindako estudio batetik hartzen da. Guztira 226 produktu eta zortzi zaitasun-maila definitzen dira, lehenengo mailan produktu aurreratuak jasoz (zenbait produktu kimiko eta sendagarriak, adibidez) eta zortzi-garrenean teknologia errazenekoak (larru-produktu eta altzariak, adibidez). Berriro ere, EHko esportazioak erdiko mailetan konzentratzen dira (% 9 bi maila goren eta % 7 azken bi mailetan gelditurik).

Maila arriskutsuenak 5etik 8rainokoak izanik (hauetan nabarmenduko bait da industrializatzetan ari diren herrien konkurrentzia), EHko espezializazioa arrisku-maila handi samarrean aurkitzen da. Azken lau sailetan sartzen diren produktuak euskal

esportazioen % 48 dira. Beste % 37 arrisku txikia duten produktuetan dago (falta den % 15a ez da aztertzen).

Industri dinamikaren analisiaren konklusio gisa EHrentzat perspektiba hobeak dituzten produktuak hautatzen saiatzen da LKAren ikerketa hau. Horretarako, produktuen bizi-lerro fasea eta teknologi zaitasuna hartzen dira produktu tipoak mugatzeko. Produktu onuragarrienen artean, EHk esportatzen edo Espainiak importatzen dituenak lirateke hautapen jatorrenak. Lehen kasuan kanpo-merkatu bat irekia dagoelako eta indartzea errazagoa litzatekeelako; bigarrenean, Espainiako merkatuari so importazioen ordezkapena lor daitekeelako.

Erizpide guzti hauek erabiliz, heldutasun fasean aurkitzen diren 89 producto-sail aukeratu dira. Horietatik 22 kasutan teknologi zaitasunaren maila oso apala da (azken bi mailak). Beste 13 kasutan garapen bidetango herrialdetara zuzentzen ari dira kanpo merkataritzako harremanak. Gelditzen diren 54 producto-sailak dira, LKAren eritzian, EHren espezializaziorako probetxugarrienak. Hauetatik, 13 kasutan esportazio-politika sustatu beharko litzateke; beste 31 kasuetan Espainiako eskea ase gabe aurkitzen denez gero, barne-merkatu hori izan daiteke euskal produkzioaren lehen bezeroa.

Azterketa, bi eraskinek osatzen dute. Lehenengoa, OCDEren partaide diren herrialdeetan enplegu-politika mailan aplikatutako zenbait neurri deskribatzen dira laburki. Bigarrenean, EHko zerbitzu-sektoreak duen defizita eta enplegua sortzeko abagaduneak aztertzen dira.

IKERKETAREN BALORAPEN BAT

Aztertu den gaiaren gaurkotasuna eta garrantzia ukaezinak dira. Langabezia eta enplegu-sorketa dira, ziur aski, gaurko euskal ekonomiaren arazorik larrienetakoak. Egunero sakontzen ari diren gizarte-kontradizioak leher egitera iristea nahi ez bada, problema hauei erantzun bat eman beharko zaie. LKAren lanak bide horretan zenbait pauso ematen ditu eta horregatik bakarrik ongietorria zor zaio.

Horretaz gainera, euskal ekonomiaren alor hau urriki landua aurkitzen da, bestek ere gehiegiz daudenik esan gabe. Lan hau da, egiazki, EHko langabeziaren soluzioaz aurkezten den lehen

azterketa sakona. Alde honetatik, behintzat, ezin kritika daiteke LKAk aukeratutako ikerketa gaia.

1. Ikerketaren konklusio nagusiak

Azterketa honen lehen konklusioa EHko langabeziaren larritasuna bera da. Alderdi hau lehendik ezaguna bazen ere, ez da sobera behin eta berriro egoera latz hau aurkeztea. EHko egoera oso larria da bai aurreko situazioa gogoratuz, bai eta Spainia eta Europako egoerarekin konparatuz ere.

Gauden ataka honetatik irteteko behar litzatekeen ahaleginaren neurria ere ondo argitzen du azterketa honek. Bai sortu behar diren lanpostuak begiztatuz, bai inbertsio edo finantzape-naren aldetik, ahaleginaren eskala gaurko zifretatik oso urrun aurkitzen da, dudarik gabe. Langabezia soluzio bidetan jartzeko behar liratekeen baliabide hauek berez ez direla sortuko argi ikus daiteke LKAk emandako zifrak azertuz.

Guzti hori aurrean izanik, kanpo-eskariak sorteraz dezakeen berreragitea aztertzena jotzen du LKAren lanak. Esportazioen espezializazio hoherena antzeman nahian produkturen bizi-zikloa aztertu eta bide horretatik zenbait gomendio onuragarri eskaintzen ditu lan honek. Gizarte-zientzia guztietan bezala, gomendio hauek ez dira guztiz zehatzak eta kontuz aztertu beharko dira praktikan jarri baino lehen. Hala ere, joera orokor bezala, kon-tutan hartzekoak dira azterketaren ondorio hauek.

Azkenik, eraikuntzak eta zerbitzuek eskaintzen dituzten zenbait alderdi probetxugarri ere agertzen ditu lan honek: eraikuntzak berreragite-indarra den aldetik, batez ere, eta zerbitzuek enplegu-sortzaile eta EHko zerbitzu-eskaintza kaskarra zuzentze-ko bide bezala.

2. Azterketaren zenbait hutsune

LKAren azterketak bereizgarri bitxi bat du tankera honetako beste zenbait lanekin konparatuz gero. Langabeziaren arazoa kon-pontzeko bideak bilatu nahi dituen lan batek enplegua sortzeko edo banatzeko neurri zuzenei hain arreta gutxi emateak harri-tzekoa dirudi. Egiazki, ez dirudi oso egokia hamar orriko deskri-bapen labur batez gai hau alde batera uzteak, batez ere gai eztabaidatua bezain gutxi azertua gertatzen denean.

Milaka milioi pezeta xurgatzen dituzten enplegua sustatzeko neurrien balorapena oso jakingarria litzateke langabeziar ardurazten diren guztientzat. Sindikatuek aspalditik eskatzen duten lanaldiaren laburketaren eta gainorduen gutxitzearen ondorioak aztertzeak ere benetan interesgarria dirudi. Berdin esan daiteke lan banaketarako beste neurriez ere: ikasketa luzeagoak, jubilazio aurreratuak, enplegu-arauketak, lanaldi partziala, eta abar. Neurri guzti horien ondorioak zenbatekotu eta berorien kostuak baloratzeak enplegu-politika juzkatzeko bide beharrezkoa dirudi.

Puntu hauetan LKAren lanak ez digu asko laguntzen. Egiazki, ikerketaren ikuspuntu guztiz beste bat da, enplegu-sorketaz zeharki baizik ez bait da mintzatzen. Alde horretatik, industri politika da lan honen mamia eta ez enplegu-politika. Perspektiba onak dituzten produktuetan espezializatzeak hazkunde-tasak igo erazi ditzake, baina enplegua sortzeko biderik aproposena ez izatea ere gerta daiteke. Ez dezagun ahaz hazkunde-tasa garaiek, nahiz eta normalki enplegua sortzeko kondizio hobeak eskaini, ez dutela beti langabeziaren arazoa konpontzen. Espania edo Italiako «mirari ekonomikoa» gogora ekartzea besterik ez daukagu, hazkunde-tasa garaienetakoak emigracio bortxatuarekin batera zihoazela jakiteko.

Bestalde, esportazioen suspertzek garrantzi handia du hazkunde ekonomikoa lortzeko (EH bezalako herri txiki eta ireki batean, batez ere), baina hazkunde-faktore bakarra edo garrantzitsuena bezala ikustea oso bestelako gauza bat da. Alde honeitatik ere, azterketak soslai nabaria agertzen du, lanpostuak sortzea hazkundeari lotu ostean, hazkundea kanpo-merkataritzan finkatzen duenean. Arrazoia du LKAk faktore honen garrantzia azpimarratzean, baina azterketa horretara bakarrik mugatzen deunan lana gutxiagotuta aurkitzen da.

Beste ikuspuntu batetik, EHko langabeziaren aurka efizienziaz jokatu ahal izateko fenomenoaren azterketa sakondu beharrean gaude oraindik. Ezin gara Ormaetxea jaunarekin ados etorri liburuaren hitzaurrean langabeziaren egoera eta joerak nahi-koia aztertu direla dioenean. Zorigaitzez, EHko langabezia oraindik behar bezala aztertu gabe daukagu bai daturik ezaren ondorioz (eskualde edo adin arteko banaketa ezagutzeko, adibidez), bai analisi faltarengatik (aktibitate-tasen joerak ikertu gabe aurkitzen dira, LKAren lanean bertan agertzen den bezala). Arlo hauetan lan asko dago oraindik egiteko eta, zoritzarrez, honetaz arduratu behar liratekeen instituzioak lozorroan daudela

dirudi (INEMen datuen fidagarritasun urria guztiz ezaguna da; nahiz eta Spainiarako zenbait lan interesgarri prestatuak izan, INERen datuek EH mailan argitasun mugatua eskaintzen dute; Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Zuzendaritzak ere ez du problema argitzeko eta ezagutarazteko ahalegin handirik egin).

3. Metodologiaren aldetik zenbait ohar

Lehen aipatu diren hutsune horiek izan arren, LKAren azterketa oso zabala dela aitortu behar dugu. Langabeziaren eboluzioa, enplegu-egitura, inbertsioaren eta hazkundearen arteko erlazioa, beharrezko inbertsio, industri lurra eta finantzapena, eraikuntzak eta zerbitzuek enplegu-sorketan joka dezaketen partea, produktuaren zikloa eta industri dinamika, eta makina bat puntu gehiago aztertzen ditu lan honek. Ezin esan daiteke azterketa ikusgune hertsia batetik egin denik.

Hala ere, metodologia kasu askotan ez da behar adina argitzen. Esate baterako, enplegu-egituraren aldakuntzak aztertzeko erabiltzen diren ereduak ez dira inon azaltzen. Era berean, datuen iturburu eta zehaztasunak, doikuntzetan erabilitako unitateak, etab., ez dira sarritan argitzen. Zenbait kasutan (aktibitateaz eta enpleguaz aritzean, adibidez) erabiltzen diren datuak ez dira guztiz konparagarriak eta ateratzen diren ondorioak, noizean behin, okerrak gertatzen dira³.

Akats hauek lanaren baliagarritasuna mugatzen dutela aitortu behar da, zenbait kasutan ezin bait da emaitzen koherentzia juzkatu argitasun faltarengatik. Beste batzutan, berriz, ateratzen diren ondorioak ez dira guztiz zehatzak eta irakurlearentzat nahasgarri gerta daitezke.

Industri dinamikari buruzko atalean erabili den metodologia argiago aurkezten zaigu. Hala ere, bizpahiru lekutan zenbait zalentza sortzen da produktuak sailkatzean (euskal esportazioak produktu zikloaren arauera sailkatzean, adibidez).

Konklusio gisa, LKAren lana EHko gizarte-problematikaz arduratzen direntzat, eta ekonomilari eta politikoentzat bereziki, irakurri beharrezko liburua dela argi dago. Esan bezala, langabeziak eta enpleguaz hainbat (ziur aski, gehiago ere bai) arduratzen da lan hau industri dinamikaz. Alde honetatik, behi-

nik behin, industri birmoldaketaz eta hazkunde ekonomikoaz ari direnek zenbait argitasun aurkituko dute obra honetan.

Amaitzeko, kritika bat euskararik ezagatik. Argi dago azterketa osoa euskaraz egiteko zailtasunak handiegiak liratekeela, eta ekonomia euskaraz irakurtzeko eskea oso eskasa dela, zorigaitzez. Hala ere, lanaren laburpen bat edota sarrerako konklusioak gatzelaniaz eta euskaraz eskaintza ez litzateke gaitzegia gertatuko. Batez ere, «Euskadiko Kutxa»k argitaratutako lana dugunean eta beste zenbait arlotan LKA euskal giroa sendotu nahian dabilenean⁴. Gaurko egoeran ekintza testimoniala gerta daiteke, agian, baina gure hizkuntza nazionala ekonomi arloan finkatzen hasteko bide bakarra dugu. Bide hauetatik inoiz abiatzen ez bagara, ez gara inoiz iritsiko.

I. G.

1. Caja Laboral Popular (Dpto. de Estudios), *El desempleo en el País Vasco. Bases para la formulación de soluciones*, 1982, 311 orr.

2. LKAK 3100000 pertsonako populazioa ematen du 1990. urterako, nahiz Bilboko Merkatal Ganbarak 3008200 pertsonako zifra argitaratzen zuen hipotesi berarekin. Ik, *Dinámica de la población y del empleo en el País Vasco*, Bilbo, 1978, 102. or.

3. Kasu nabarmen batzu 1975-76 eta 1979-80ko aktibitate eta enplegu datuekin gertatzen dira. Berdintsu emakumezkoen euskal eta español aktibitate tasak konparatzean.

4. Guztia aitorzeko, Bilbon egindako aurkezpenean lanaren mamia euskaraz ere argitu zitzaigun. Argitalpenean hori bera egitea ez zen ba zailegia gertatuko!

KULTUR BIDEETAN

SEIE

(Salleko Euskal Idazleen Elkartea)

Martin Lasa

I. SARRERA GISA

1. Lanaren helburua

Euskara Mailaka Metodoa-ren egile bezala ezagutuko dute, SEIE ezagutzen dutenek.

SEIERen aurkezpena baino gehiago, lasalletarrek euskal arazo- etan eginikoaren aurkezpen bat egitea nahi luke artikulu honek: SEIE izena jaioberri bat besterik ez bait da eta, egia esateko, laburritz horren pean, *Euskara Mailaka*-tik kanpo ezer gutxi argitaratu bait da¹. Bere sustraiak eta mugak adierazten dituen historia agertzen dut, beraz, hemen.

Honako galdera hauek interes bizia izango lukete: Zer dago elkartea horren atzetik? Noiz eta zertarako jaio da? Gehiago oraindik, nola jokatu dute eta jokatzen ari dira lasalletarrak Euskal Herrian? Saiatu ote dira bertakoak izaten, kanpotik zetozenak bertarakotzen? Ala arrotz bihurtu dira etxean etxe koentzat? Egin dituztenetan, noraino heldu dira...?

Maiz esaten ari da euskal literaturaren eremuan kritika bat egi- teko dagoela, kritika-lanen faltan gaudela. Beste horrenbeste esan daiteke hainbat eremutan². Adibidez, nola jokatu dute eliz era- kundeek eta erlijioso-erakundeek Euskal Herrian? Nola jokatu dute alderdi politikoek euskal kulturan? Nola irakaskuntz erakundeek (estatu-eskolak, halako eta bestelako erakunde pribatuek) eus- kararen eta euskal kulturaren arazoetan?

Iritzia eta balorapenak sarri entzun ohi dira: asko-gutxi,

ondo-gaizki, oker-zuzen... Nahiz txaloak jo edo salaketa egin, zertan oinarrituz egiten ote den galdegingo nuket. Ezin ukatu askotxo erabiltzen direla bihozkadak eta klixeak, ez beti argituak eta zuzenak. Erakundeen euskal emaitza aurkezta eta aztertuko duten zehazketa serioak guztiz beharrezkoak ditugulakoan nago.

Erakunde bakoitzak saiatuko balitz eskuartean dituen datuak aurkezten! Monografiak, apalenak izanik ere, idatziz jartzen! Azterketa partzialak idazten! Material interesgarriak ondo zaintzen eta gordetzen!³.

Ezin nik orain, nahiko nukeen arabera eta irakurle argiari zorlitzaiokeen neurrian, erantzun borobilik eman goiko galderei. Datu pila falta zaizkit behar bezalako azterketa sakon bat egiteko⁴. Datuak, inguruko giro orokorraren baten ikuspegitik parekatu eta konfrontatu beharko lirateke, iritzi kritiko sendo bat eman nahi izanez gero⁵.

Beraz, dudana emango diot irakurleari: lortu ahal izan ditu dan barne-datuak, lasalletarren arteko euskal kontzientziaren prozesu historikoaren une garrantzitsuenak, han-hemenka balorapen laburren bat⁶.

2. Lasalletarren historia apur bat

Lasalletar erakundea 1680an eraikia izan zen, La Salleko Joan Bautistaren eskutik. Ehun eta berrogei urte luze igaro ziren Ipar Euskal Herriko ikastetxe batetara etorri arte, Baionara, hain zuzen ere 1820an. Pixkanaka, eskakizunen arabera eta eliz eta herri-agintarien laguntzari zor, hemeretzigarren mendean zehar Baionan, Hazparnen, Uztaritzen, Kanbon (Lapurdi); Maulen, Atharratzen (Zuberoan); Donapaleun (Nafarroa Beherean) badira lasalletarrak.

Hemeretzigarren mendeko azken hogeitamar urteetan, Frantziako ideien eta jokabideen giroa ez zitzaien erakunde erlijiosoei erosoa bihurtu, are gutxiago irakaskuntzan zihardutenei. Emile Combes-ek Gobernu-zuzendaritza zuen garaian, 1904eko uztailaren 7ko lege berri batek Kongregazio guztiei irakaskuntza debekatu zien⁷.

Lege horren ondorio gisa etorri zitzagun —Ipar Euskal Herrikoek erbestezeratzeko erabakia hartu ondoren— Hego Euskal Herriko ikastetxe-ugaltze azkar bat.

Joan den mendeko azken urte haietanxe, 1878an, Kongregazioak Madrilen ireki zuen penintsulako lehen ikastetxea, «Asilo

del Sdo. Corazón» izenekoa. 1887an, Gabriel de Ibarra deiturik, Deustun hasi ziren eskola ematen. Hau izan da Euskal Herrian Kongregazioak jarri duen lehena. Bi korronte, beraz, honantz zezen; bata, Madriletik, bestea Ipar Euskal Herritik eta Bordeletik.⁸

Zenbait puntutatik begiraturik, ezin aipatu gabe utzi nolako zatiketa administratibopean egon diren gure ikastetxeak Kongregazio barruan. (Kontutan har, eragin haundia dutela egitura horiek bokazioen jatorri-lekurako, frailegaien hezkuntzarako, lanaren geografi hedadurarako). 1887tik 1923ra gure zenbait ikastetxe Madrileko Probintziaren zati bat ziren: Madrilen zegoen Probintziala eta aginte-zentrua; beste zenbaitek 1904/1907tik aurrera Baiona-koaren nahiz Bordelekoaren zati ziren; 1923an, Valladolid-eko Probintzia berriaren pean jarri zituzten ikastetxe guztiak, horrela 1940ra arte iraun dutelarik. Urte horretan, «Bilboko Probintzia» eraiki zuten⁹.

Lasalletarrok Euskal Herrira etorri baino lehen, zenbait euskaldun Kongregazioan sartuak ziren¹⁰.

II. JOAN DEN MENDEKO HASTAPEN URRUNAK

Oraingo SEIEk joan den mendean aurkitzen ditu bere erroak. Oso gutxi dakigu (gazteenok, bederen) Ipar Euskal Herriko lagunei buruz, are gutxiago euskal arazoetan egin zutenaz edo ez zutenaz. Gure liburutegi hornituenetan erabilgarri duguna guztiz «frantsesa» da horrelako «zertzeladak» argitzeko. Euskaldunik ba-zegoela, bai; hainbeste esatera heltzen dira. Hortik aurrera, ezer gutxi: ez asko edo gutxi zirenik, etab., etab.¹¹.

Guztioan artean ezagunenak bi hauek ditugu: MIXEL ELIZANBURU (Frère Innocentius), Joan Bautista olerkari famatua-ren lehengusu propioa, eta ARNAUD AGIRRE IRIBARNEGARAY (Frère Juvénal-Martyr). Biak heletarrak ditugu. Biak ere, bata bestearen ondoren, Hazparneko San Jose Ikastetxean irakasle eta zuzendari izan ziren, eta euskal kulturan alde gartsuki lan egin zuten ikaslego plurilingüistiko (lapurditar, frantses eta espainiar) bat biltzen zuen ikastetxe hartan. Mixel izan zuten irakasle-tzat Jean Hiriart-Urruty idazle bikainak, Lapitz-ek, Barbier-ek, Landerretxek, St. Pierre monsignoreak...¹² eta Elizanburu hark lagun min izan zituen Arbelbide misionesta, Broussain medikua, Zalduby-Adema olerkaria.

Ziur-ziur, irakaskuntza soilera mugatu izan balute beren lana,

ezezagunak izango litzaitzigu ke gaurregun. Baino, zorionez, lan idatzia egitera ere heldu ziren¹³.

Elizanburuk, Baionako Lasserre baitan inprimarazi zituen: *Lehenagoko eskualdunak zer ziren* (1889). Euskal ohiturak. Moralista kutsuko pasarteak baditu¹⁴. Erliejoaren eta politikaren arteko auzia ikuspegi «txuri» monarkizale porrokatu batetik tratatzen duten lau liburuska: *Framazonak* (1890), *Frantziako birur errepubliken ictoria laburzki* (1890), *Zer izan diren eta zer diren oraino Framazonak munduan* (1890), *Frantziako bigarren eta irugarren errepublikaren ictoria bitchia* (1891)¹⁵. Azkenik, kongregazioaren fundatzailearen biografia, *Joannes Batista Dohatsuaren bizia* (1891), eta otoitz-liburu bat, *Sakelako liburuchka edo giristino guzientzat on den esku liburu ttipia* (1892).

Susmoa dut liburuska horiek, azken biak izan ezik, artikulu solte eran *Eskualduna* astekarian agertutakoak direla¹⁶. Arnaud Pochelou-ri esker dakigu, bai Innocentius bai Juvénal hasiera bateko idazlari izan zirela kazeta horretan, 1886an *Le Réveil Basque* «gorri» eta errepublikazalearen aurka sortu zenetik¹⁷.

Arnaud Agirreren liburu bat bakarra ezagutzen dugu: *Vocabulaire trilingue Français-Espagnol-Basque*, Baionan Lamaignère-k argitaraua (1899). Dudarik gabe, berak prestaturikoa izan behar du *Recueil de Chants Religieux latins, basques, français, espagnols à l'usage des élèves de l'Ecole Chrétienne de Hasparren* lanak. Garbi ikusten da liburu biak Hazparneko ikastetxeko beharei erantzun bat emateko egin zirela¹⁸.

Ba ote zegoen Baionako probintzia harten euskal arazoetarako plangintza eta helburu programaturik? Nola jokatzen zen beste anaien ikastetxeetan? Galderetan geratu behar, honetaz ezer gutxi bait dakigu.

III. HASTAPEN HURBILAK

1. Bigarren Errepublika garaian¹⁹

Ez dutuste gehiegikeria bat esatea denik, Hego Euskal Herriko lasalletarrok nahikoa berandu arte ez dugula plangintza orokrik planteatu euskal kultura mailan. Probintzia mailan baino gehiago jokatu da, nire ustez, pertsonen iriztiaren eta bultzadaren arabera. Herriagandik hurbil egoten saiatu gara, gure kongregazioaren izpírituari atxekiz. Horri esker, anaiak euskaldunak, bertako eskoletan egon diren neurrian, pertsonalki eta nolabait euskara

erabiltzen saiatu dira: Kristau-Ikasbidea ikasteko eta adierazterakoan, abestiak erakusterakoan, otoitzetan, ikaslearekiko eta gurasoekiko harremanetan...

Indarrak bateratzeko eta elkarlan sendoagoa planteatzeko interes haundiko bi une ikusten ditut gure artean: II. Errepublika, lehenbizi, eta 1960tik honako urteak, gero.

Errepublika bitartean, zenbait euskaldun hemendik kanpo dabilta, Valladolideko probintziak zituen ikastetxeetan barreiatutrik (euskaldun zaharrenak, agian, Madrileko probintzian, Andaluzian bat baino gehiago). Bertako gehientsuenak, gazteak oraindik eta ausartak, Zumarragan, Beasainen, Andoainen, Zarautzen, Azkoitian, Irunen, Donostian, Bilbon, Barakaldo, La Arboledan.

Suspertziale eta aitzindari bezala, J. B. Mintegiaga agertzen da; berak lagundurik (harreman ofizialetan batez ere), J. M. Iziar, M. Oyarzabal, L. M. Zelaia eta Iñaki Olabeaga²⁰.

Lan interesgarri bati —textugintzari— eman zioten hasiera gure artean. «La Instrucción Popular» edo «Bruño» izenpean, Eusko Ikaskuntzaren onespina lortzen saiatuz, *Aurtxoen Kristau Ikastia* (1932), *Zenbakiztia. Lengaien Idaztia* (1933), *Lege zarra eta lege berria* (1933), «Colección de Cánticos Sagrados» erako euskal osagarria (1933). Gerra zibilak atarian utzi zituen: *Gramática Vasca* (M. Oyarzabalena), *Euskal Irakurgaien Antología* (J. M. Iziar eta I. Olabeagarena)²¹.

Eskoletan egindakoaz gain²², euskarari seriotasun bat eman nahirik, titulapenak lortzeari garrantzia eman zioten. Hala, Beasainen ziharduten bitartean, Bartolo Otaegik, Luis Mari Sarasuak eta I. Olabeagak 1934ean, Eusko Ikaskuntzaren Euskal Irakasle titulua lortzen dute.

Guztiz interesgarria Errepublika garai hori, eta emankorra, gerra zibilak altxaturiko ekaitz-erasoak hainbat pauso eta asmo on suntsitu ez balitu. Aipatutako horietako batzuk, salatuak, pertsegituak, hiltzeko bilatuak, eskapa egin behar izan zuten²³.

2. 1940-1960. urteak

Gerraoste triste lazgarria. Itxaropen-izpi bat askoren barnetik: azkenik, irrikaz desiraturiko —eta hainbat katramilak oztopaturiko «Bilboko Barrutia» onartua eta ofizialdua izan zen²⁴. Baionatarra orduko Nagusi Orokorra, hemengoak asko maite zituena (eta hemengoek maite zuten).

Urte latzak, hala ere, euskal kulturarako. 40-50 hamarkadan

ezer gutxi egin zelakoan nago, giro orokorra hotza zelako, batek; eta, egia esan behar bestetik, euskaldun irakasleek beraiek ere, 1940 aurretik ikasketak Euskal Herritik kanpo eginak zirelako, estatalismoz kutsatutako giroan eta euskara galdua edo erabat galtzeko zorian zuten, alboan kontrakoak izanik ere. Ekintza «simplikoa» bat, «Colección de Motetes» bilduman zenbait euskal kanta sartu ziren gerra biharamunean bertantxe. Une jakinetan (45ean, 48an) zertxobait lagundu zitzaien ikasle euskaldunei euskara gal ez zezaten. Ez zen, ordea, jarraitasunik ikusi, eta zenbat baserritar egon ote ziren komentuetan etxeiko euskara galtzeko arrisku bizian —eta batzuk galdu ere egin zuten— laguntha faltaz, politika egoki baten faltaz? ²⁵.

Tamalez, pauso juridiko esperantzagarri hura, euskararen arloan ez zen ia somatu.

50-60. urteetan gauzak pixkaka hobeagotuz joan ziren. Ez nuke esango ekintza «pertsonalak», «sakabanatuak», «leku konkretuekin uztartuak» izatetik pasatzen direla, baina gehituz doaz: eskoletan euskaldunekin jokabide zuzenagoa eramatzen da (otoitzak, Kristau-Ikasbidea direla eta); orduko da «*Gure Otoitz*» liburuska ²⁶, *Kristau-Ikasbidea, Lege zarra eta lege berria*-ren berrargitalpena; Olabeagak, bere zuzendaritzaga garaian, Zarautzen euskal el-kargo bat benetan euskaldun izatera bultzatzen du, eta euskal giro politik bat sartzen du ikastetxeen.

Irungo Martindozenean, 50... 53... urteetan ikaslegai euskaldunekin zenbait ekintza bultzatzen dira: euskaraz hitzegitea, aita Zabalaren Gramatika ikastea, Biblia-zatiak buruz ikastea. Ekintza horien atzetik, gure Nikolas Alzolaren esku apala nabari da, bera jarri bait zuten urte haietan ikaslegaien irakasle bezala; ez zen, ordea, beste munduko irakasle horietakoa eta beste leku batetara eraman zuten, formazio-etxeiko kalterako ²⁷. Ez dakit oker nabilen esango dudanarekin, baina uste dut Mikel Lasari berari ere euskal zaletasunean lagundi ziola.

1950etik aurrera indartu ziren euskal kulturarako Irungo San Martzial ikastetxeko aldizkaria (Nikolas Alzolaren esku), Bilboko Santiago Apostol-eko *Enlace Colegial* izenekoa (Jokin Otaegi-ren artikuluei zor), eta batez ere *Nora...?*, osoki euskaraz idatziriko ikastetxearteko aldizkaria ²⁸. Nikolas Alzola, Jokin Otaegi, Joxe Mari Arzallus izan ziren aldizkari honen zuzendariaik.

1956tik aurrera hasi ziren Alzolaren urterik oparoenak, BRSBAP eta *El Bidaoa* leku, Irungo San Martzialen irakasten zegoen bitartean.

1956tik aurrera ere lasalletar bat agertzen zaigu *JAKIN* aldizkariaren lehen ekinaldian, 2. zenbakitik aurrera hain zuzen: Mikel Lasa, Tejares-Salamancatik; ez hango giroak euskaraz idazteko laguntzen ziolako, bere euskal sen sutsuak agintzen ziolako baizik²⁹.

1958-59 ikasturtean I. Olabeagaren eragina nabaria izan zen La Salle Eneako frailegaien artean, euskarari eta euskal giroari begira.

Jose Pablo Basterretxearen probintzialgo garaian (1953tik aurrera) euskal lanek aurrerakada izan zuten, berak babesturik: eskoletan, idazlanetan, Irungo La Salle Eneako giroan, dantza-taldeak sortaraztean. 1960. urtea pasata, karguan bukatu baino lehen, La Salle Enearen 50. urtemuga ospatzeko, *Gure Etxea* poema idatz erazi zion Olabeagari eta lasalletar musikagile bikain agertzen zen Tomas Aragüés gazteari jar erazi zion musika. Irunen eta Bilbon aurkeztu zen poema sinfoniko hori, eta disko bat grabatu eta finantzatu zuen.

IV. GORPUTZ-KONTZIENTZIA (1960-1969)

60-69 hamar urteotan, Vatikanoko Batzarrearen orientabideak eta gure Batzarre Nagusiaren ondorioak biziki sentitu ziren Euskal Herriko lasalletarron artean. Belaunaldi gazteengan, batez ere, txinpartaren indarra izan zuten honako ideia hauek: Euskal Herrian errrotu beharra, irakaskuntza herrikoi eta euskaldun baten beharra, erlijioso-bizitza euskaldunago bihurtu beharra. Ez zen hori honen edo haren pentsakizun soila. Mugimendu sendo bat gorputz-haragituz joan zen. Ez zen beldurrik oztopoen aurrean aurpegia ateratzeko...

Zenbait ikastetxe euskara ematen hasi ziren (kasu, Herrerako San Luis Ikastetxea, 1967an); Probintziako aldizkaria³⁰ elebidun bihurtu zen (talde berri baten indarrez, Probintziako Kontseiluak onarturik), inkesta bat zabaldu zitzaien gurasoei euskarari buruz pentsatzen zutena eskatuz, gero erantzunen arabera ikastetxeak aldatzeko ondorioak aldarrikatuz eta gora eramanez; Euskal Batzorde ez-ofizial bat eratu zen³¹, mentalizatzen, suspertzen, bultzatzen eta salatzen lan franko egin zuena, eta euskarazko materialak idazten ere bai; formazio-etxean lan bikaina egin zen euskal musikaren eta euskararen arloan³², Joxe Erzbengoak batez ere, euskalduntze bidea sendotu zuen aspirantadoan plangintza bat praktikara eramanez³³; Bilboko Santiago Apóstol ikastetxean «iraultza» tinko bat aurrera eraman zen, euskaldun bideetatik sar zedin³⁴.

1968an, garrantzizko gertakizun bat: Probintzia mailako lehenengo Batzarrea egin zen. Garrantzizkoa diot, lehendabizikotz erabaki ofizial batzu hartu bait ziren euskararen arloan: ikastetxeak euskarari ateak irekitzearen alde, irakaslegai prozesuan zirenei euskara eta euskal kultura ematearen alde eta, elkargoetan otoitzak euskaraz egitearen alde.

Orain arte, Probintziaren bizitzan zehar, pertsonek izan dute garrantzia euskararen arloan. Hemendik aurrera, aginte-egiturak sartzen dira jokoan.

V. OFIZIALTASUNAREN LORPENA (1969...)

SEIE izena bera urteotakoa da. Aipaturiko mugimenduaren barnetik sortu eta indartu da euskaraz idatzeko grina eta zaletasuna. Horra hor bizirik Salleko Euskal Idazleen Elkartea.

Garrantzi haundikoak 1969-1971. urteak. Bigarren Batzarrea Probintzian. «Euskal Batzordea» ofizialtzen da, Probintzia barneko erakunde bezala, Batzorde-burua izendatzen da (Jose Manuel Agirrezabalaga), aurrekontu bat ezartzen zaio, lan-plangintza bat martxan jartzen da helburu hauek lortu nahirik: irakasleak pres-tatu, lasalletarrak euskaldundi, euskal publikapenen informazioa zabaldu, textugintza bultzatu, euskal liburutegia sortu, kultura eta irakaskuntzako erakundeekin harremanetan egon, ereduzko ikastetxe elebidun bat sortu. Borrokari joera batetik pedagogi alorretara makurtzen da batzordea.

Agirrezabalagaren garaian harturiko abiada oso sendoa izan da, bai ordurako baita gerorako ere. Ikastetxeei laguntzeko, euskaranen irakaskuntzarako plangintza bat egin zen maila edo etapa baikoitzerako hainbeste ordu proposatuz, eta zenbait material egin ziren: *Historia de la Literatura Vasca, Euskal Literaturaren Historia* (1971)³⁵, *Apuntes de Historia del Pueblo Vasco* (1971-72), *Euskal Herriko Geografia* (1975), *Euskal Herriaren Historia* (1975), azken hiru hauek pro manuscripto atereaz; irakasleen arteko topaketak ugaldu ziren; Probintzia barneko komunikapen ofizial guztsia elebidun bihurtu zen; *Unánimes gure aldizkariak* pedagogia, pastoraltza, literatur gaiak eta elkarteko-kronikak euskaraz ematen hasi zen; formazio-etxeeko gazteei euskarari eta euskal kulturari buruzko ikastaldi programatuak eman zitzaizkien; 1971tik aurrera urteoro gogo-jardunak euskaraz egiten hasi ziren, batez beste talde bakotzean 50-60 lasalletar euskaldun (eta euskaldun berri) bildurik; *Kanta Jaunari* otoitz-abestien bilduma argitaratu

genuen³⁶; elkartea (komunitateak) euskaldunago bihurtuz joan dira, han eta hemen guztiz euskaldundu arte; 1971tik hona, udal-dian ikastaro intentsiboak eman izan zaizkie ia urteoro irakasleei, euskalduntze-alfabetatzetako D mailakoentzat; *Euskara Mai-laka Metodoa* sortu, experimentatu eta zuzendu zen³⁷; Zarauzko ikastetxea elebidun-eredu bezala bultzatu zen; Euskal Liburutegia, kontsulta eta mailegu-zerbitzu bezala, Zarautzen jarri zen³⁸.

Ezin dut ezkutuan utzi esango dudan hau: Probintzia erlijio-soaren funtzionamendua eragin haundia izan du aurrerabide ho netan. Aginte-estiloa oso pertsonalista izan da gure erakundean Kontzilioria arte (Kontseilu probintziala baldin bazegoen ere). Ordurarte, Probintzialak berak aginte eta eragin haundia zuen. Konzilioak eta kongregazioko Batzarre Nagusiak egoera hori guztiz aldatu zuen, guztion partehartzeari so eginik eta egitura-estiloak aldatuz: adibidez, Probintzi Batzarreak sortaraziz eta ordezkariak hautapen bidez izendatzetik. Egia osoa esango baldin badut, erakunde berri horiekin, Probintzialak hurrengo lau urteetan Probintziak eraman behar duen bidea argi eta garbi ikusten du, Batzarrean harturiko erabakieie esker. 1940tik hona, izan ditugun Probintzialak euskaldunak izan dira, eta Basterretxeaz gerotzik euskal arazoengero eta bultzagileagoak. Guztion artean gailen ikusten dugu Alberto Zabala azkoitiarra, euskal arazoetan argiena eta sutsuena. Jesus Eguskiza oraingo Probintziala ere erne eta zuzen dabil, pau so bikainak emanet euskararen arazoak bultzatzeko.

VI. GAURKO EGITURA, LAN ETA ASMOAK

Gaur, SEIE lasalletar hezitzale eta pedagogoen kolektibo bat da. Hezkuntz arloko zenbait sailetan espezializatuta gaudenok osatzen dugu. Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan, hogei bat ikastetxetan dihardugu³⁹.

Lan hauetan gabiltza: irakaskuntzan batez ere, textugintzan eta euskara lan-tresna bihurtzen, irakaslegoa euskalduntzen eta alfabetatzen. Ez gara argitaletxe, irakasle-elkarre baizik.

Elebitasunerako Idazkaritza bat dugu, Probintziako erakunde ofizial bezala: idazkari ia guztiz liberatua du, aurrekontu dexente bat, eta zenbait talde tekniko⁴⁰.

Hona ikasturterako helburuak: ikastetxeak euskalduntzeko eta elebitasuna garatzeko gertu egon (ikastaldiak, bilerak); irakasleen formaziorako ekintzak bultzatu (Heziera-Jardunaldiak, 83ko Udaiko Ikastaldiak, irakasleen arteko topaketak, elebitasun-topaketeta-

ra zenbait bidaltzea, erlijioso eta irakasle batzuk euskararako liberatza —aurten, urte osorako zortzi lasalletar liberatu ditugu); talde teknikoen lana aurrera eraman; erakundeekin harremanetan jardun; elkargoei eta ikastetxeei informazioak banatu.

Hona hemen aipatu ditudan talde teknikoak:

- *Pentsamendu eta plangintza taldea*: idazkaritzaren hari nagiak eta ekintza zehatzak proposatu eta horiek errealitate bihurtzeko aholkuak ematen ditu.
- *Euskara taldea*: *Euskara Mailaka* metodoaren ardura darama (textu-liburuak, kaxeteak, filminak). Irakurgai-liburuskak argitaratzen hasi da.
- *Entzun-Ikus taldea*: *Euskal Herria* diapositiba-bilduma Ikastola-Federakuntzaren bitartez argitaratzen dabil, 1.200 diapositiba, fitxa tekniko bana); lan monografikoak prestatuko ditu; bideo-talde berri bat lanean jarriko da.
- *Itzulpenetarako taldea*: Probintzia barneko txosten ofizial guztia ikusten ditu. Zenbait liburu itzuli ditu, argitaratzeko asmoz.
- *Musika taldea*: berria da. Erlijio eta katekesirako, eskolako eta elkarteko-topaketetarako abestiak sortzea/biltzea du helburutzat.
- *Eukal Liburutegia eta Liburuuen informazioarako taldea*: fitxatze-lanetan dabil, fondoak erabiltzeko kriteria finkatuko ditu, mailegu-zerbitzu bat ireki nahi du; publikapen berrien informazio pedagogikoko zerbitzu bati hasiera emango dio.
- *Euskal Folklorea taldea*: berria da. Euskal dantzak eta musikagailuak bultzatu nahi ditu irakaskuntzan.
- *Erlilio eta Pastoraltza taldea*: Idazkaritzarekin batera erlijio-materialak prestatzen hasi da euskaraz.

Hauezaz gain, lasalletar euskaldunen batzarre irekia eta festa eguna: informazioak zabaltzeko, oharrok eta beharrak jasotzeko, festa-giroan suspertzeko, gure tituludunak ospatzeko.

1971tik hona material eta ekintza hauek egin dira:

- *Euskara Mailaka* metodoa: bost mailatako textu-liburu, filmina eta kaxeteak; *Ariketak, Mintzabidea*; oraintxe, irakurgai-liburu saila (dena, Mensajero argitaratua). Egileak: J. Erzibengoa, P. Ezkiaga, M. Alkorta, X. Kalbo, P. Alkain, J. Lezamiz, A. Zenarruzabeitia; hasieran, J. A. Sarriegi.
- *Euskal Literatura*, 4 liburu (Mensajero, Kimu-Saila). J. Erzibengoa, P. Ezkiaga).

- *Ipuinak 1-2-3, Atdak 2-3* (berdin). (N. Alzola).
- *Alfabetatzen* (Mikel Alkorta-X. Galarraga).
- *Aditza lantzen* (J. B. Bergara).
- *Mintza Praktika Ikastaldia* (J. Erzibengoa, J. Otaegi, J. Lezamiz, A. Zenarruzabeitia, K. Aranberri).
- *Geografia: Giza Geografia. Geografia Ekonomikoa* (J. Iturburu).
- *Euskal Herriaren Historia* (E. Zabaleta).
- *Eguzkitiko energia* (P. Alkain).
- *Konmutazioa. Sistema digitalak* (Mikel Alkorta).
- *Natur Zientziak* (P. Alkain).
- *Euskal Herria. Diapositiba-bilduma* (S. Arzelus, E. Zubaleta, I. Zelaia, J. K. Alonso, J. M. Ortiz de Urbina, M. Larrañaga).
- *Erlilio-testua* (P. Alkain).
- *La Salle gure artean bizirik* (P. Alkain, J. M. Agirrezabalaga).
- *Herria Oihuka* (Talde lana).
- *Kanta Jaunari 1, 2* (M. Lasa, J. M. Agirrezabalaga, M. Goenaga).
- *Aste Santua 1981.*
- *Otoitzak.*
- *Pedagogia gaur* (J. Erzibengoa).
- *Gogoetan, Maite dedana, Biotz-Iturritik* (I. Olabeaga).
- (Elkar-lanean jardunda, J. M. Agirrezabalagak: *Haur-Katekesia*).
 - (Elkar-lanean Legazpiko beste zenbaitekin, I. Zelaia, J. Otaegi, J. Lezamiz, J. J. G. Txabarri, F. Presa: *Legazpi*).
 - J. M. Arrietak Hezkuntza Saileko Eskolaurreko eta Hasiera-Zikloko Programakuntzak egiterakoan parte hartu du.

Ekintza aipagarrienetako bat, bukatzeko: euskara (maila guztietan) eta metodologi ikastaldiak, erruz eman dira: Donostian, Iruñean, Bilbon, Eskoriatzan, Goierrin, Irunen, Elizondon...

Hara hemen gure lorpen eta hutsegiteak, gure ilunaldi eta argiak. Gaur, lan egiteko gogo bizi bat dugu.

M. L.

1. 1969-71. urteetan hasi ginuen laburritz hori erabiltzen.

2. «Euskal masoneriaren kondaira, egiteko dadukagu oraindik (beste-lako askorena bezelatsu)»: Ik. J. INTXAUSTI: *Irautzaren bildotik*, Jakin, 1972, 51. or., 36. oh.

3. Joan Mari Torrealdaik galduet zidan, orain gutxi dela, non aurki zitzakeen garai batean lasalletarrok irakaskuntzan erabilitako textu-liburuek, textu horien azpi-ideologiarri buruz azterketa bat egiteko asmoz. Ez zaigu, tamalez, erraz izango ez jakitea, ez aurkitzea. Eta lepoa baietz erantzun berdin samarra eman behar beste askok.

4. Lasalletaren Euskal Herriko historiak nahikoa aldaketa ezagutu ditu. Muga nadin, adibidez, Probintzi egitura aipatzera. Madrileko Probintziak (probintzia erlijiosoak, esan nahi da) ireki zuen lehenengo ikastetxe Euskal Herrian; gero, Baiona-Donostiaok zenbait ikastetxe, Bordele-Zaragozakoak beste zenbait gehiago; geroago Valladolid-eko Probintziaren pean jarri zituzten guztiek; eta, azkenik, 1940an, Bilboko Probintzia eraiki zen.

Donostia, Griñón, Valladolid, Talence eta Maule, eta Erromako etxeburuko artxiboetan ondo miatu beharko litzateke, Euskal Herriari buruz gordetzen dituzten datuak ezagutu nahiko balira; baita ikastetxe eta el-karte bakoitzeko artxibo-paperak ere, ikastetxe bakoitzeko historia zehatzaz jabetzeko. Guzti hori, euskal ikuspegi batetik, egiteke dago. Adibidez, nork daki historian zehar Euskal Herrian jardun duten lasalletarren jaio-terria, edo berorien formazio-lekua, edo gure Herriak kongregazioari eman dion pertsona-kopurua, edo bertan sorturiko bokazioak non izan diren heziak eta laneak nondik nora ibili diren?

5. Oso interesgarriak dira, Ipar Euskal Herriko giroa ezagutzeko: J. INTXAUSTI: *Irautzaren bildotik*, Jakin, 1972 (historia aldetik); eta J. HIRIART-URRUTYEN bi antologiak: *Mintzaria, aurpegia: Gizon!*, Jakin, 1971; *Zerenak errepublikan*, Jakin, 1972 (historiaren beraren idazle testigu on baten kronika). Irakaskuntzaren ikuspuntutik sakondu nahan, ik, lehendabizikoa, 119. orrialdetik aurrera, eta erlijio elkarteen ikuspuntutik, ibid, 140. or. eta hurrengoak.

6. Artikulu hau beste lan luzeago baten laburpen egokitu bat beste rik ez da.

7. Ik. aipaturiko *Irautzaren bildotik*, 174-178. orr.

8. Madrilekoek irekitakoak hauek dira: Bilboko Iturribide (1888), Bi-boko Santiago Apóstol (1893), Algorta (1904), Santurtzi (1913). Goitik zetozenek irekiak: Zarautz eta Azkoitia (1904), Elgoibar, Eibar, Donostia-ko San Bernardo (1905). Irun eta Los Angeles (1906), La Arboleta (1907), Beasain, Martindozenea-Irun, Elgeta, Gallarta (1909), Donostia-Herrez (1913) Zumarraga (1914). Ikus S. GALLEGOS: *Sebraron con amor. «La Salle», Centenario en España (1878-1978)*, 1978, 846-852. eta 880-882. orr.

9. «Bilbo» izena daramala eta guzti, une honetantxe Euskal Herriko lau probintziak, Errioxa, Zaragoza eta Huesca sartzen dira. Berez burura datorkio edonori, orain urte batzu Euskal Erlijiosoek eginiko proposamendua gero Euskal Herriko Probintzialek ere errepikatua (hau da, probintzia erlijiosoak beren hesi-mugak herriem beharrei zuzenago uztartu beharrean direla), edo auzi-mauzi bizian dagoen Eliz Probintziaren arazoa... Gure Probintzian, biziki planteatu izan da arazo hau 1974etik hona. Auziak ia hartan dirau, zenbait puntuatan antzinako egitura monolitikoa deseginda eskualdeku baldin bada ere.

10. Hala, Juan A. Etxeberria (anai Idesbaud), donostiarrar; Patxi eta Jokin Etxeberria, iruratarak; Pedro Goitiandia, nabarniztarra; eta hiru oartzuar: Martin Zalakain, Pedro eta Joan Beldarrain. Guztiek, Bordelen, Parien edo Toulouse-n sartuak. Ikus S. GALLEGOS, ibid., 37. or.

11. Bakarrik, «Notices Nécrologiques» biografieta joanik, edo «Fiches des Frères», edo «Personnel» koadernoetara, lego ke hori jakiterik.
12. Iku P. LAFITTE, Hiriart-Urruty-ren bizitzea: *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* liburuan, 17. or. Eta L. VILLASANTE, ik. Euskera XXII (1977) 323. or.
13. Beraren biografiak honela dio lan idatzi horri buruz: «...le f. INNOCENTIUS donnaï ses préférences à l'histoire profane. Il avait lu et compulsé la plupart des auteurs les plus estimés. Avec notre autorisation, il publia, en langue basque, une histoire très appréciée des révolutions de la France depuis 1789, et quelques autres brochures, parmi lesquelles une biographie de notre Bienheureux Fondateur» (historia gaia begiko zuela; nagusien baimenarekin euskara liburuxka batzu argitaratu zituela...): *Notices Nécrologiques trimestrielles*, 467. zb. (1895), Paris, 9. or.
14. Liburu honen eskuizkribua Baionan dago: «Euskararen Lekukotarako prestatzen zabizen lana publikatu baino lehen, Haritschelharrek, Baionako Euskal Museoan dago manuskitoa...» (J. L. LIZUNDIAK Nikolas Alzolari. 1982-Martxo-5eko gutun batetan).
15. L. VILLASANTEK honela dio: «Monarkiari zion amodio gartsu eta itsua, Errepublikari zion herria, masoienganako gorrotoa, baita egilearen anima-bakuntasuna ere» Iñaki Olabeagari 1958-II-5eko gutun batean.
16. Honela dio Elizanburuk berak *Lehenagoko...ari* dagokionez: «Ber-
tze norbaitek daut erranen zer chedetara egin dudan liburu hau edo ager
arazi demboran huntako kapituluak (Gehienak agertu dire Eskualduna ize-
na duen berrikanario)» (Iku VI. or.).
17. Ik. «*Mintzaira...*», 23-42. orr.
18. Mixeli buruzko bibliografia osotu bat: M. LASA: «Salleko Joan Bautistari goraterrereak euskaraz (II)» in *Unánimes*, 1979 (abendua), 117-118. orr.
- Mixel Elizanbururi buruzko gure Erromako artxibo paperen dokumentu batzu ditut nik fotokopiaturik (Hazparneko ikastetxeari dagozkionak; Mi-
xelen beraren zenbait gutun, etab.).
19. Tamalez, ez dut inongo argibiderik 1904etik errepublikara bitar-
teko urteei buruz iritzi zuzen bat emateko. Ezta lehenagotik Bilboko ikas-
tetxeetan egin zen eta egin ez zenari buruz iritzi bat emateko ere. Zertze-
lada soil batzu besterik ez: Zarautzen abesten zen partituraaren bat (ik.
M. LASA: «Salleko Joan Bautistari goratzarreak euskaraz (IV)», in *Unánimes*, 1981 (urtarrila) 102-112. or.
- Zarauzko eta Irungo Nobiziaduan sartu ziren euskaldunen izen-abizenak, Irunen zerbait euskaraz abesten zutela... Eta kito.
20. Mintegiaga, Joan Bautista, nafarra zen, pedagogo bikain eta aitzin-
dari ausarta, Euskal Gobernua-rekin eta Eusko Ikaskuntzarekin harremane-
tan egon zen; Iziar, Jose Mari («Lizier»), azkoitiarra, diseinulari trebea; Oyarzabal, Manuel («aita Manuel», «anaixa»), apzetiatarra, musikagilea, gra-
matikalaria; Zelaia, Ludobiko Mari, zarauztarra, Eusko Argitaldariakoen
senitarteko; Olabeaga, Iñaki, gazte bat orduan, irakasle trebe eta euskal-
dun gartsua.
21. La Salle Eneako Euskal Liburutegian gordetzen dira bi eskuiz-
kribuok.
22. Neurri desberdinatan, noski; alde haundia zegoen Gipuzkoaren eta
Bizkaiaaren artean. Hala ere, Bilboko Santiago Apóstol-en, Inazio Oliden
eta Santi Elosegi euskara sartzen eta lantzen saiatu ziren, nahikoa tirabira
izanaren.
23. Zelaia, Ameriketara; Oyarzabal, Belgikara; Olabeaga, Frantziara;
Mintegiaga, Mallorkara.

24. Ikus dokumentazio guztiz interesgarri bat gure aldizkarian idatzi nuen artikulu batetan: M. LASA: «Nace el Distrito de Bilbao. Documentos (I)», in *Unánimes*, 1980 (ekaina), 5-22. orr.
25. Ik. J. OTAEGI: «Distritoak 40 urte», in *Unánimes*, 1981 (urtarrila) 22-26. orr.
26. Zarautzen birritan argitaratua, gero beste ikastetxeetara hedatua; Zumarragan horrelako zerbait ere bazegoen argitaraturik. Gero, J. P. Basterretxea probintzialak Irungo La Salle Enean sartuko du, biztanle guzientzat.
27. N. Alzolak beti izan du estilo leun eta sarkor bat; batere indar txarrik gabeko hitzok, ordea, bazekeiten eraginkor bihurtzen. Apalkiro, ideiak sujeritzen zituen, bideak proposatzituen, halako edo bestelako ekin-tzak begi aurrean jartzen zizkizun.
28. Ikus M.-B. ALTZOLAKOA: «Euskal Bibliographia oħarrak. Sallettearen 'Destellos Lasalianos' aldizkariaren euskarazko gehigarría (1952-1954)», in *BRSBAP* (1977) 579. or.
- M.-B. ALTZOLAKOA: «Euskal bibliographiarako oħarrak: «NORA...?» hileroko bokazio-orria (Lehenbzikiko garaia: 1955-1958), ibid., 584. or.
29. Ikus JAKIN 21, 78. or. eta urte haietako aldizkarian, Salamanca-tik bidaliriko artikuluak. San Pio X-eko liburutegiak (orain, Madrilén dago garai batean «Estudios Lasalianos» haietako liburutegia) Mikelek erabili eta utzitako Itxaropenak argitaraturiko hiztegiak gordetzen ditu.
30. *Unánimes* izenekoak.
31. Jose Ramon Zamalloa aitzindariak, langile eta borrokalaria izanik eta euskaltzale argi eta sutsua, bere inguruau elkartzten zituelarik.
32. *Cantoral Vasco* eta *Eguberri abestiak* argitaratu ziren 1966an: Martin Lasak, Felix Ezamak, Joxe Erzibengoak.
33. Textu-liburu bat argitaratu zuen horretarako, polikopiaz.
34. José R. Zamalloa, Pedro Arranbide, I. Olabeaga, Patxi Ezkiaga... han zirelarik: *Enlace Colegial euskara* bideetan sarrerazi zuten eta irakaskuntzarako Jo. Euskera nola ikasi idatzi zuten (P. Arranbidek, Arruza jaunak eta L. Akesolok orrazturik).
35. Erdaraz, J. R. Zamalloak egina; euskaraz, J. M. Agirrezabalagak.
36. Koadernotxo batzu prestatu zituen J. M. Agirrezabalagak (Aingeru Castañoien laguntza zuelarik) Salamanca, M. Lasak musika-lana prestatzent zuen Donostian, eta elkartetara bidaltzen ziren noizbehinka. Gero liburu osotu eran argitaratu genuen 1971n.
37. Giro plurilingüistiko batean sortua da ikasbide hau; apunte eran eribili zen hiru edo lau urtetan zehar; 1976an, Mensajero argitaletxearen bitarte inprimatu egin genuen.
38. 1979an, Zarauztik Irungo La Salle Eneara ekarri genuen.
39. Jabe desberdinak dira: *Gipuzkoan*: OHOKO 9 (7, Guraso-Elkartete, Enpresa edo antzekoenak: Legazpi, Zumarraga, Beasain, Andoain, Mendiolabe-Donostia, Eibar, Zarautz; 2, lasalletarrenak: Irun, Donostia); BBB-UBIKO 3 (1, Elkarte batena: Eibar; 2, lasalletarrenak: Irun, Donostia); LHKO 3 (2, Elkarte eta enpresenak: Andoain, Zumarraga; 1, lasalletarrena: Irun). *Arabean*: LHKO 1 (Udaletxearena: Laudion). *Bizkaian*: OHOKO 3 (1, Estatuarena, gozamenean utzia: Sestao; 1, lasalletarrena: Deusto; 1, elizarena: Gordoxola); BBB-UBIKO 1 (Lasalletarrena: Deusto). *Nafarroan*: LHKO 4, Nafarroako Foru Aldundiarenak (Lakuntza, Irúnbia, Iruberri, Orreaga).
40. Azken urte hauetan Euskal Batzordearen eta Elebitasunerako Idazkaritzaren ardura Martin Lasak darama.

GUTUNAK

Torrealdai Joan Mariri. — Donostian

JAKINekin nabil egunotan, eta aldi egokiak ematen ditut irakurri eta gure denbora zaharrak gogoratzen. Lan handia egin duzue, zenbaki mardul hau prestatzen. Ekimen bat egiten hasi da gure arteko bat ere —Martin Lasa— Lasalletarren euskal arloko lanari buruz ikuspen bat eta kritika, eta hori azkeneko JAKIN irakurtzen dabilelako.

Nere zertxobait ere badagoela, ikusten dut. Aldizkarikoengandik hurbil ez ibiltzeagatik eman zidan beti bildur pixka bat JAKINek. Gai zailak neretzako? Gaur ez dut ikusten horrela, ondo egin duzuen aurkibide zehatza ikusita. Aldizkariaz jarraitzeko asmorik baduzue, noizbehinka bidaliko dizuet zertxobait, ontzat hartzen baduzue.

Euskararen batu-mugimenduak asko atzeratu ninduen; nere buruz alfabetatu nintzen, bizkaineraz, eta pixka bat ikasi nuenean... zorabiati egin nintzen. Hogei urte gazteago izan banintz...!

Pena handia eman zidan zurekin izan nuen ahantzi-nahasteak, Euskal Idazleei buruz egin zenuen inkesta garrantzitsuan. Baino esan nizun honelako galdualdi-distrazio handiak izaten ditudala, eta orain ge-roago eta maizago. Urteetako akatsa da, baina ezagutzen nautenek badakite problema hau, eta parkatzen didate. Ondorio zinezkoak ere izan ditut, benetazkoak ere bai.

Durangoko Azokari egin zenizkion oharrak irakurri eta astiro irakurri nituen, zehatz azterturik. Jabetu gaiaz ere bai. Aspaldian neukan kezka eta artegatasun bat. Nere gogoko ez da sari-epaietan parte hartzea, kritikoa ez naizelako. Urte asko dira, Jon Bilbao nere maisua eta biok geundela behin Azokan, eta gonbidatuak izan ginen mahalan parte hartzeko (gaztelaniar liburu sailean Jon, eta euskarazkoen sailean ni). Orduan bai, orduan sendo jo nuen kritiko bezala; itzulpen bat agertu ziguten saritarako, eta Leteren olerki liburuaren alde jokatu nuen, Literaturan asmamenezko liburua zelako. Ez zen ezagutua Xabier Lete

orduko urteetan. Urte asko igaro eta gero jakin zuen berak zer gertatu zen.

Gero, sarri harrapatu naute. Liburu-kontseilari bezala, bibliografo moduan esan nahi dut. Ezetza ere eman diet inoiz, baina kolejioko atezailei liburu pilo handi bat utzi, eta...

Zure oharren jabe egiten hasi nintzen, eta Lizundiari esan nion zer-bait egin behar genuela, batzar bat edo horrela, zurekin eta beste batzukin. Erantzun zidan biderik onena izango zela Gerediagako Idazkariarekin hitz egitea lehenengo, bilkura hura antolatzeko. Eskola egunak hasi ziren orduan, eta behin eskola lanetan sartuz gero, gizon galdua izan naiz beste arduretarako. Ikastaroan, eskolatik kanpoko ekintzak ezerezean gelditu dira gehienetan. Hitzaldietara, liburuen aurkezpene-tara, museoetara, artelan erakusketetara..., mendira piska bat, horietara bai, asko ibili naiz, buruari atsedena ematearen, osagileak esanda.

Eritasuna ere agertu zen, eta Irunera aldatzea proposatu zidan Pro-bintzialak. Mila gauza gelditu ziren aidean Deustuan. Agur egin diot orain arteko gauza askori, uste dut betirako. Durangoko Azokari, esa-terako. Baina telefonoz, ahoz Euskaltzaindian, hona bisitak egitera eterri izan diren gazteok..., azkenean ere Ian labur-laburtxo bat egin nuen azkenengo Azokarako: **Bertso paperak Durangoko Inprentaetan.**

Bihotzekoak eman dit azkenean, Eguberriletan. Kontuz ibili beharra dut, baina Euskal Liburutegiaren arduradun nabil, eta Ian eramankorra da. Ikerketa lantxoak ere egiten ditut: Izurtza aldeko euskara eta Bi-dasoakoa saiatzen dut, herri-hizkuntza mailan. Folklorea, batez ere. 1936-1939ko gerraren ondoko euskal aldizkarien berri ere ematen dut BAP Aldizkarian, ohar laburtxoetan. Euskal pentsalarri, filosofari, teologari, ertilarri, idazle eta abarrei galderen bidez beren barruko esan-nahiaik eskatzeko asmoa ere badut, ohar laburren bidez. JAKINerako IZAN daiteke gai egoki bat hau, noizean behin zertxobait bidaltzeko.

Hainbat aldiz nahi IZAN dut zurekin hitz egitea: Donostian, Tolosan, Bilbon. Idatziz ere behin baino gehiagotan hasi naiz gutungintzan, baina behin ere ezin IZAN dut bukatu hasitakoa. Adiezina edo gauzak esateko erraztasunik ez dut aurkitu. Bainan denak batera gaur!!!

Nahikoa berelekutu egin didate bihotzekoa, bigarrenezko. Bigarren aldizko Iztermin ziatikaren oinaze gogorrak ere bigundu dira egun batzuek direla, hilabete eta erdiko kalbarioa pasa eta gero. Zuretzat da lehenbiziko eskutitz «laburtxo» hau, batez ere JAKIN Irakurtzen nabi-l-elako.

Bihotzez agurtu eta besarkatzen zaitut Joan Mari, eta uste dut patxadan hitz egiteko era on bat izango dugula aurtengo urte berri honetan, hor Donostian edo hemen Irunen, arratsalde egoki batetan.

**Nikolas Altzola G.
K. I. A.**

aurkibidea**Euskararen zapalkuntza**

Zenbuki honetan ...	3
TORREALDAI, J. M.: Euskararen zapalkuntza (1936-1939) ...	5

Orain eta Hemen

Charles Darwin-en mendeurrenaren 1882-1982. — Don't cry for me, Argentina! ...	77
--	----

Gaiak

INTXAUSTI, J.: Leopoldo Etxeberria gogoratuz ...	81
URRUTIA, A.: Euskal zuzenbide pribatua: etorkizunik ba ote? ...	98
KORTAZAR, J.: XVIII. mendeko lirika herrikoia ...	106

Liburuak

GARAIALDE, I.: Lankide Aurrezkiaren «El Desempleo en el País Vasco» liburuari buruz ...	123
---	-----

Kultur Bideetan

LASA, M.: SEIE (Salleko Euskal Idazleen Elkartea) ...	135
---	-----

Gutunak

ALTZOLA GEREDIAGA, N.: Torrealdai Joan Mariri ...	149
---	-----

© JAKIN

JAKINeko idazlanetaz
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedezi, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaritza:

joan mari torrealdai
I. a. bilbao (kazetaria)

Idazkaritza eta administrazioa:

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.
Donostia - 13. Tel. (943) 27 17 13

1982rako prezioak:

barruan	kanpoan
ale arrunta 375 pta.	400 pta. (25 FF)
ale bikoitza 600 pta.	700 pta. (40 FF)
ale extra 700 pta.	800 pta. (45 FF)
harpidetza 1.200 pta.	1.300 pta. (80 FF)



**Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13
Tel. (943) 271713**

JAKIN

EUSKARAREN ZAPALKUNTZA

Leopoldo Etxeberria
Euskal Zuzenbide pribatua
Langabezia
SEIE

Uztaila
Irraila

24

1982